

Asteburu borobila
izango da
Bergaran, San
Martin jaien
bueltan | 19

Aretxabaletako
hondakin bilketa
sistema berria
irailean abiaraziko
dute | 22

Mugikortasun Asteak landuko dituzte
asteburuan hasita | Ikus 'Herriak' saila



Merkealdi azokak Arrasaten
eta Aretxabaletan | 11 eta 23



Xabier Zabala konpositorearekin
berbetan, bere ibilbide oparoaz | 32



Mozkorra tomatearen
hiru ale, jatorria duten
Aretxabaletako Durana
kalean.

**BERTAKOARI
BALIOA
EMATEKO**

Irailaren 21etik 24ra Tomatearen
Astea egingo dute 'Mozkorra'
tomatearen sorterrian | 10

XABIER URZELAI

Euskal Herriko txapela jokatu dute Aramaion, rallysprintean

Bihar, zapatua, da lasterketa, 54 piloturen partaidetzarekin, eta lehia estua egongo da | 28

Hauteskunde osteko akordioei begira daude indar politikoak

Euren asmoak partekatu
dituzte EAEko alderdi
nagusiek | 6

SINADURAK



Etorkizuneko lanbideak | 8
JON ETXEBERRIA



17 | Txikikeriak eta min handiak
JOSU ZUBIA



Zer egingo zenuke? | 18
JON OLIVARES



22 | Kalea Jolasteko balitz bezala
BEÑAT ZAMALLOA AKIZU



Oasia | 40
MIKEL IRIZAR



ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

- Erreportajea: langilea, enpresaburu
- Jesus Mari Lazkano pintorearekin berbetan

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05

SEAT ATECA BERRIA



DISFRUTATU TEKNOLOGIAZ!

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70





Aritz Etxebarria eta Asier Hormaetxe, Arrasateko Usaetxe plazan duten bulegoaren aurrean.

Biark Arkitektura Taldea, 10 urte bezeroen zerbitzura

Arrasateko arkitektura taldeak hainbat lan egin ditu, sariak tarteko

Arrasateko arkitektura talde bat da Biark Studio. Aritz Etxebarria arrasatearrak eta Asier Hormaetxe elorriarrak osatzen dute Biark. Aurten 10 urte betetzen ditu Biark Studiok. Ateak zabaldu zituztenetik hainbat lan egin dituzte, sariak tarteko.

ESPARRU ZABALA

Zerbitzu desberdinak eskaintzen dituzte. Momentu honetan gehien

egiten dituzten lanen artean Eraikinen Energia Eraginkortasun Ziurtagiria dago, beharrezkoa dena saldu edo alokatzen diren etxe eta lokalentzat; Eraikinen Azterketa Teknikoak (EAT - ITE); baserriak konpondu; Eraikinen Zaharberritze Energetikoa (fatxadak eta teilatuak); igogailuen instalazioa irisgarritasuna hobetzeko helburuarekin; etxebizitzaren erreformak; lokal komertzialen egokitzapena; txostenak, jarduerak lizentzien tramitazioak...

Eskaintzen duten lan sorta zabal da, obra berria zein berriztapen eta erreformak.

Biark Studioren lan esparrua ere zabala da: Debagoiena zein beste toki batzuk, Euskal Herriko edozein toki, Burgos, Errioxa...

%95, PARTIKULARRAK

Euren bezeroen %95 partikularrak dira. Arkitektoaren beharra daukan edozein pertsonak osatzen du talde hau: erreforma egin nahi duena, Energia Eraginkortasun

Ziurtagiria behar duena, EAT-ITE (Eraikinen Azterketa Teknikoa) behar duen komunitatea edo partikularra, igogailua jarri edo teilatua eta fatxadak berritu nahi duen komunitatea...

Instituzioentzako lanak ere egin dituzte; kasu hauetan, lanak konkurtso bidez irabazi dituzte. Arrasaten, adibidez, Etxaluzeko eraikina, San Antolin ikastolako aterpea eta laster egingo den Gorostitzako jolas parkeko aterpea; Oñatiko ludoteka; Elorri,

Galdakaon eta Aulestin urbanizazioak; eta Beasainen jolasparke bateko aterpea.

HASIERAKO ILUSIOAREKIN

Biark Studiok bere estiloa garatu eta indartu du 10 urte hauetan. Euren nortasun-zeinuak gogo, ilusioa eta irudimena dira, bereziki. Bi arkitekto hauen esanetan, "hasierako gogo eta ilusio berberarekin" jarraitzen dute lanean: "Biark-eko ateak atzo zabaldu genituela ematen du". Gaineratzen dutenez, "hamar urte hauek azkar pasatu dira, gustura gauden seinale".

Bestalde, euren lana aholkularitza lana da; hau da, bezeroaren beharrak era eraginkorrean ebazten saiatzen dira, betiere, euren nahiak eta beharrak lanaren oinarri nagusi bezala mantenduz.

EGOERARA MOLDATZEN

2009. urtean krisiak gogor kolpatu zuen sektorea. Honako hau esaten dute Aritzek eta Asierrek: "Merkatura moldatzen jakin behar izan dugu. Lehen esan dugun bezala, gure bezeroen gehiengoa partikularrak dira eta beraien behar eta aukeretara moldatzen ikasi dugu".

ENERGIA ZIURTAGIRIA

Azken urteotako berritasunetako bat da Energia Eraginkortasun Ziurtagiriaren derrigortasuna. Biark Studioko kideek horiek ere egiten dituzte: "Azkenengo hiru edo lau urteetan hainbat ziurtagiri egin ditugu, bai obra berriarentzat, bai eraikita dauden eraikin eta lokalentzat ere. Herritarra, gutxika, barneratzen ari da ziurtagiria derrigorra dela etxe eta lokalak alokatu edo saltzeko".

ZAHARBERRITZEAK

Une egokia da zaharberritzeak egiteko; izan ere, Biark Studioko kideen esanetan, "ekonomikoki bideragarriagoa da dagoena hobetzea berria erostea baino. Gaur egun administrazioak errehabilitaziora zuzendutako diru laguntzak ere ematen ditu. Erreforma etxe barruan nahiz kanpoan egin daiteke, teilatua edo fatxadak isolatuz eta eraginkortasun energetikoa hobetuz".

BIARK STUDIO arkitektoak

10. urteurrena

Aholkularitza eta laguntza tramitazioan: aukera tekniko desberdinen azterketa, proiektua, lizentzia, dirulaguntzak, obrarako aurrekontuen analisisa, obra zuzendaritza...

Komunitateak



Fatxaden isolamendua




Erreformak



Igogailuak



Etxebizitzak



Lokalak



Baserriak

ZIURTAGIRI ENERGETIKOA
(Etxea alokatu edo saltzeko beharrezkoa)

EIT-ITE
(Eraikinen Ikuskapen Teknikoa)



Informa zaitez urte bukaera arte ditugun eskaintza bereziez!

Eskatu zure aurrekontua konpromisorik gabe

www.biark.net

Usaetxe plaza 1, behea, Arrasate - Tel.: 943 79 80 33 - e-maila: biark.arkitektoak@gmail.com

Iñaki Espotza | UNED-Bergara Ikastetxe Elkartuko zuzendaria

"Ikasketak egiteko askok behar dute UNEDen erritmo pertsonalizatua"

Atzo, eguna, hasi zituzten UNED-Bergara ikastetxearen 40. urteurreneko ekitaldiak

UBANE MADERA | BERGARA

Iñaki Espotza Leibar (Bilbo-Iruña, 1962) Zuzenbide Prozesalean katedraduna da EHU eta UNED-Bergara Ikastetxe Elkartuko zuzendaria 2010etik. **1976an sinatu zen Bergaran UNEDen ikastetxe elkartua bideratzeko erabakia, 200 urte lehenago, 1776tik, Goi Mailako Ikasketak eskaintzeko legezko onespena zuen Errege Seminarioan bertan. Bergaran goi mailako ikasketetarako ibilbidea egin izana erabakigarria izan zen UNEDen eskaintza bertan kokatzeko?**

Bergaran aurkitu eta sintetizatu zuten wolframioa duela pare bat mende; nazioarteko eta lehen mailako aurkikuntza izan zen. Beraz, goi mailako ikerketa zentroa zegoen bertan garai hartan. Pentsatzen dut orduan alkate zen Jose Luis Elkorok ikusiko zuela aukera Bergarako tradizioari jarraipena emateko eta estatuan bi urte lehenago sortu zen UNED Bergaran ere jartzeko. Bergaratik kanpo, bereziki kimikariek eta zientzietan ikerlari eta irakasleek ere oso ondo dakite Bergarako kontu hori, eta planteatu zenean UNED Bergaran egitea, ilusio handia sortu zuen, Bergara, aurkikuntza egin zeneko lekua, ezagutzeko aukera emango zuelako. Bergaran bazegoen elkarte ilustratu bat, eta haien ondorengoek tradizioa babestu egin zuten eta aukera ikusi zutenean hura gauzatzeko baliabideak jarri zituzten.

Arrakastatsuak izan ziren lehen pau-

soak, oker ez banabil, ehunka ikaslerekin hasieratik, ezta?

Bai; balio izan zuen hainbat belau-naldik euren prestakuntza egin ahal izateko. Garrantzi estrategikoa izan zuen UNED-Bergarak. **Goraipatu izan da UNEDen eskaintza malguak ahalbidetu izan duela emakumeei, bereziki, ikasketok egiteko aukera zabaldu izana, bereziki 70-80ko hamarkada hartan...**

Zalantzarik gabe. Eta edonor. Izan ere, unibertsitate presentzialen erritmoa jarraitzeko norberak baditu urte bakoitzeko 1.600-1.800 ordu, ez dago arazorik; baina edozein baldintza, beste lan edo arduraren baldin bada, ezin da unibertsitate presentzialen erritmoa jarraitu; beraz, emakume nahiz gizon, erraztasun handiak ematen dizkio UNEDek ezartzen dituen erritmoak, pertsonalizatuak direlako. Adibidez, lanean dagoen pertsona bat ezin da joan 1.600-1.800 ordutan fakultate batera, eta, presarik izan ezean, UNEDen bitartez, aukera daiteke urte akademiko bakoitzeko zenbat ikasgai nahi diren; hori unibertsitate presentzialean ezin da egin. Gu haien osagarri gara. Horregatik esaten dut gure lana zerbitzu soziala dela; bestela, pertsona askok ezingo lukete edo oso zaila izango lukete goi mailako ikasketak egitea.

Zein da UNED-Bergara Ikastetxe Elkartuaren erretratua zifratan? 2.000 ikasle ikasketa ofizialetan eta propioetan beste 1.000 inguru.



Iñaki Espotza Leibar. | GIPUZKOAKO DIPUTAZIOA

Ezjakintasunetik abiatuta, hori asko da, ezta?

Bai, eta erkidegoan 7.000 ikasle dira. Adibidez, Nafarroan bi zentro daude, Iruñean eta Tuteran, eta Nafarroan 4.000 bat ikasle dira, eta Nafarroak Gipuzkoak baino populazio apur bat txikiagoa du.

"UNEDen egiten den lana zerbitzu soziala da, eta balioan jarri behar da"

Eta Gipuzkoan, gainera, bost unibertsitate ditugu.

Araututako ikasketak eskaintzeaz gain, UNEDen ezaugarrietako bat bada ez araututako ikasketak eskaintzea. Zela eragiten du horrek unibertsitatearen eskaintzan?

Estatuan guztiok ematen ditugu araututako ikasketak; gero, norberak edo ahal duenak ingurura egokitzen den eskaintza propioa egiten dugu. Guk hori aspaldi egin dugu eta indartu egin nahi dugu; horretarako Ikasketa Propioetarako Zentroa jarri dugu abian aurren, bigarren zutabe hori irmotu nahi dugulako; izan ere, horri esker egokitzen gara gizartearen dauden beharretara.

Zentzu horretan, UNED-Bergara zabaldu zenean iragarri zen egon zitekeela eskaintza kultural euskalduna. Ze punturaino izan zen horrela? Idazle Eskola hor egotea, adibidez, horren ondorio da?

Bai. Eta hori ere potentziatu nahi dugu. Uztailean egin genuen Tere Irastortzarekin, Idazle Eskolako zuzendariarekin, harremana hori egiteko; bestalde, orain hitzaldi ziklo bat prestatu dugu, horietako hainbat euskaraz izango dira eta horrekin hartuko dugu tenperatura ikusteko ze punturaino dagoen

interesa, eta, horren arabera, aurrera jarraitzeko.

Eta ez araututako zuen eskaintzan, adibidez, igartzen da euskararen presentzia handitu egin dela?

Bai. Guk normaltasunez erabiltzen dugu euskara UNEDeko lanetan eta saiatzen gara produktu akademikoak euskaraz egiten. Bestalde, Eusko Jaurlaritzarekin landu izan dugu gaia (gainera, uztailetik Jaurlaritzak UNEDeko Errektore Kontseiluko kide ere bada), eta hark badaki UNED Bergaran elebiduntasun urratsa egiteko potentziala dagoela. Gure aldetik prest gaude egiteko, eta gainontzeko agenteek urrats hori egiten badute, gai izango gara. Guretzat, estrategikoa da.

40 urteko ibilbidea eginda, zeintzuk dira epe motzerako erronkak?

Aurtengo ikasturtea abian jarri, planifikatutakoa gauzatu, eta horren analisia egin. Prestatzen hasi gara ikasturte berriaren inaugurazioa, seguru aski urriaren 21ean izango da. Hor nahi dugu parte hartzea modu nabarmen batean orduko alkate Jose Luis Elkorok, orduko lehen zuzendaria Jesus Arpal eta baita ere, Manolo Cainzos, sortzaileetako bat. Protagonismo berezia eman nahi diegu.

U» URKULLU » LEHENDAKARI

ERAIKI EUSKADI

ej pnv

ZUREA BOZKATU

f t y

ej-pnv.eus urkullu.eus



Olano diputatu nagusia eta Espotza, martitzenean. | GFA

40 urteak mamitsu ospatuko dituzte

Atzo, eguna, hasi zituen UNED-Bergarak 40. urteurreneko ekitaldiak Bergaran. Gaur, berriz, Arantzazun dute hitzordua, Von Humboldt elkartearen kongresuaren lehen jarduneari: "Etorriko dira 100 irakasle, katedradun eta ikerlari lehen mailakoak, baita ere Alemaniatik, Espainiako elkartearen sorburuan dagoen Alexander Von Humboldt fundazio publikotik (...)". Martitzenean iragarri zuten hori Gipuzkoako diputazioan Markel Olano diputatu nagusiak eta Iñaki Espotzak, UNEDeko zuzendariak; jakinarazi zuten, baita ere, urtea amaitu bitartean konferentzia-zikloa egingo duela UNED-Bergarak; hasteko, irailaren 22an Bergaran Blanca Ganboak herentzien lege berriari buruz jardungo du, 19:00etan, UNEDen. Hori iragartzeaz bat, Olanok eta Espotzak balioan jarri zuten uztailean UNEDek Bergarako Errege Mintegian segitzeko erdietsitako akordioa.

Mondragon Unibertsitateak "ezagutzan eta berrikuntzan" izan gura du eragile

Basque Culinary Centerren egin du MUK ikasturte hasierako ekitaldia

MIREN ARREGI | ARRASATE

Mondragon Unibertsitateak Donostian egin du aurtengo ikasturte hasierako ekitaldia; hain justu ere, Basque Culinary Centerren egin dute hori, Mondragon Unibertsitatearen Gastronomia Zientzien Fakultatean.

Bertan, unibertsitateko errektore Bixente Atxak azaldu du askoz eginkizun garrantzitsuagoa bete beharko lukeela unibertsitateak, "herrialdearen lehiakortasunean eta ekonomian, balio erantsi handiko lanpostuak eta maila globalean lehiatzea" baitira ekonomiaren oinarriak.

Aurreko ikasturteko balorazioa ere egin dute eta jakinarazi dute 2015-2016 ikasturtean 4.226 ikasle izan dituela MUK.

Ekonomiarekin konpromisoa

Unibertsitateko errektore Bixente Atxak hitzaldiaren hasieran gogora ekarri du berak zuzentzen



Bixente Atxa, MUKo errektorea, eguaztenean. | BCC

duen unibertsitateak gure herrialdeko talentuaren eta ekonomia-
ren bultzadarekin duen konpromisoa. Eta hiru ardatz estrategikoren inguruan egituratu du bere hitzaldia: ezagutza, berrikuntza eta talentua. Horiek omen dira Euskadiren lehiakortasunerako

oinarriak, eta adierazi du MUK horietan izan nahi duela eragile.

Garrantzizko hiru erronka ere azpimarratu ditu: unibertsitateko hezkuntza-berrikuntzan liderrak izatea, nazioartera irekitzea eta enpresekin elkarlaneko ikerkuntzan aitzindari izaten jarraitzea.

"Euskal industriaren pisua areagotzen" lan egingo du EAJk

Hain zuzen ere, industria "euskal ekonomiaren %25 izatera iristea da erronka nagusia"

M.A | ARRASATE

İnigo Urkullu lehendakariagaia, Arantxa Tapia, Joseba Egibar, Markel Olano, Eneko Goia eta Cristina Uriarte alderdi kideak izan ziren, besteak beste, EAJk eguaztenean Arrasaten egindako ekitaldian.

Euskal industria izan zuten bai Arantxa Tapiak eta baita İnigo Urkullu lehendakariagaia ere hizpide. Hauxe adierazi zuten: "EAJren erronka industriaren pisua areagotzea da eta industria euskal ekonomiaren %25 izatera iristea". Bide beretik jarraitu zuten, esanaz, industria lagundu, bultzatu eta sustatuko dutela, "hori baita enplegu berriak eta kalitatezkoak lortzeko bidea". Erronka nagusia, baina, euskal enpresa nagusiak Euskadin gelditzea dela azpimarratu zuen lehendakariagaia: "Zailtasunak dituzten enpresei laguntzeko 2.500 milioi abal publikotan. Foru aldundiekin lankidetzan 250 milioi euroko funts publiko pribatu batean euskal enpresa nagusiak

Euskadin errotzeko", gaineratu zuen Urkulluk.

Ezker abertzaleari gogor

Joseba Egibarrek, bestalde, Gipuzkoako hautagai nagusiak, ezker abertzalearen alde bikotasunaz berba egin zuen eta estatua eta ETA aurrez aurre jarri izana leporatu zien. "Zein eta ezker abertzalea, alde bakarreko estrategiaren aukera egin eta gu guztioi lezioak eman nahian ari da. Gogorarazi behar dena da alde biko estrategiaren alde apologia egin dutenak izan direla ezker abertzalekoak eta euren alde bikotasuna izan da ETA eta estatua aurrez aurre ipintzea eta hor negoziatzea".

EAJk herrigintzan esperientzia zabala duela azpimarratu zuen Egibarrek eta pausoz pauso euskal nazioaren egitura egiten ari direla gaineratu zuen.

Bestetik, informazio eskurriak banatu dituzte astean EAJko kideek Aramaion eta Aretxabaletan.



Urkullu alderdikideekin Arrasateko Seber Altuben. | MAIDER ARREGI

Hilaren 25era arte parte hartu ahal izango da hauteskundeetako porran

M.A | ARRASATE

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak gain-gainean dira, baina, zela geldituko da Legebiltzarra? Zein alderdik aterako ditu legebiltzarkide gehien? Zeinek gutxien? Zenbat bakoitza? Bada, hauteskundeetako porra antolatu du Goienak. Hain zuzen ere, hilaren 25eko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan Legebiltzarra nola osatuko den asmatzen dutenen artean *Puntu*a aldizkariko urte osoko harpidetza bat zozketatuko da. Alegia, asmatu beharrekoa da Legebiltzarrerako zenbat aterako dituzten alderdiek. Zein alderdik zenbat lege-

biltzarkide. Hilaren 25eko 20:00ak arte egongo da *goiena*. *eus* web gunean porra betetzeko aukera.

Galdeketen emaitzak

Eitb Focus inkestaren emaitzen arabera, EAJk irabaziko lituzke hauteskundeak 27 legebiltzarkiderekin, gaur egun duen kopuru berarekin. EH Bildu litzateke bigarren indarra, 17 legebiltzarkiderekin, gaur baino lau gutxiagorekin, eta hiru garren litzateke Elkarrekin Podemos, 14 legebiltzarkiderekin. PSE-EEk eta PPk 8na izango lituzkete eta Ciudadanos alderdiak 1 eskuratuko luke.



LANEAN
IKASKETETAN
SARE SOZIALETAN
EROSKETETAN
KIROLA EGITEAN
FAMILIAN
LAGUN ARTEAN
JAIETAN
AISIALDIAN

16/17
IKASTURTEA
UDAL
EUSKALTEGIAK
euskara klaseak



LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA Nafarroa 2 - Aretxabaleta Intxaurtxueta 9 - Eskoriatza 943 79 21 68 idazkaritza@udaleuskaltegia.eus	BEDITA LARRAKOETXEA UDAL EUSKALTEGIA Bidebarrieta, 18-behea, Oñati Tel.: 943 78 24 96 euskaltegia@onati.eus	ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA Arimazubi plaza, 2 Tel.: 943 79 70 77 euskaltegi@arrasate.eus	BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA Barrenkalea, 33 (Irizar jauregia) Tel.: 943 76 44 53 euskaltegia@bergara.eus
---	--	---	---



Rebeka Ubera, Pello Urizar eta Jon Iñarritu Aretxabaletan. | EH BILDU

"Akordio zabalerako eskaintzak" luzatu ditu EH Bilduk ekitaldietan

Pentsioez eta sozioekonomiaz aritu da, besteak beste, EH Bildu astean egin dituen ekitaldietan

M.A | ARRASATE

Hurrengo legealdia "erabakiarena" izan behar da, EH Bilduren ustez, eta, bide horretan, "akordioetarako eskua luzatu" diete EAJ eta Elkarrekin Podemos alderdiei eta euskal gehiengo sindikal zein eragile sozialei. "Akordio zabalen aroa izango den honetan, murrizketa sozialak desagertzeko, burujabetza

berreskuratzeko eta justizian oinarritutako bakea eskuratzeko akordioak" eskainiko dizkie aurrez aipatutakoei. Hala adierazi dute astean ere Debagoienan egin dituzten ekitaldietan. Hain justu ere, asko izan dira alderdiak gurean egin dituenak: astelehenean, esaterako, Aretxabaletan izan ziren Rebeka Ubera eta Pello Urizar hau-

tagaiak eta Jon Iñarritu parlamentari ohia eskuorriak banatzen. Eguaztenean, Rebeka Ubera eta Julen Arzuagak egin zuten hitzaldia Elgetan. Arrasaten, martitzenean, esaterako, Marian Esnaola eta Unai Urruzuno koalizioako kideak izan ziren Kulturaren, pentsio duinez berbetan, eta sozio-ekonomiaz aritu ziren atzo, eguna, Helena Franco Ogasun eta Finantza diputatu ohia eta Igor Ortega eta Ainhoa Beola hautagaiak. Bestetik, Antzuolan, Maider Otamendi eta Pedro Iturbe alderdikideak izan ziren eguaztenean herritarren galderak erantzuten eta Oñatin, atzo, Larraitz Ugarte hautagaiarekin solasaldia egin zuten.

Ekitaldia Bergaran

Kanpainaren baitako Debagoieneko ekitaldi nagusia, baina, datorren astean egingo du EH Bilduk: hilaren 20an, martitzena, izango da hori, Bergaran, eta Arnaldo Otegi eta Maddalen Iriarte izango dira.

Miribillan hilaren 17an

Nazio mailako ekitaldia bihar egingo du EH Bilduk Bilboko Miribillan eta Debagoienan ekitaldira joateko autobusak antolatu dituzte. Aurrez izena eman behar da horretarako: Eskoriatzan, Inkernu tabernan eta Hotelean; Aretxabaletan, Urbaltz, Txikibar eta Gurean; Arrasaten, Jaizale, Irati eta Amaiur tabernetan; Bergaran, Arranon, Pol Polen, Kortazarren, Artatsen eta Alkartetxean; Oñatin, Arrano tabernan eta Antzuolan Aitz Garbi tabernan edo 649 885 557 telefonoan.



Urizar informazio orriekin. | I.B

Elkarrekin Podemos alderdiak "ilusioz" hasi du kanpaina

M.A | ARRASATE

Arrasaten, Oñatin eta Eskoriatzan izan dira herritarrei informazioa helarazten Elkarrekin Podemos koalizioako kideak astean. Ilusio handiz hasi du kanpaina alderdiak, Igor Urizar zinegotzi arrasatearraren hitzetan: "Hauteskunde hauek beste ardatz batzuen gainean jorratzen direla dakigun arren, irabaztera edo Euskadi jendearentzat berreskuratzeko esperantzaz goaz". Hilaren 20an Arrasaten eta 21ean Aretxabaletan ipiniko dituzte informazio mahaia eta ekitaldi nagusia hilaren 20an egingo da, Arrasaten.

"Euskadi hobe" eraikitzeke lan egingo dute

M.A | ARRASATE

PSE-EEko alderdikideak Arrasateko Santa Marina eta Makatzena auzoetan izan dira eguaztenean arrosak banatzen eta herritarrei informazioa helarazten. Hautagai Rafaela Romerok esan zuen "pozik eta gogoz dagoela Alderdi Sozialista Euskadiren etorkizuna eraikitzeke", eta gaineratu du aurreikuspenak onak direla eta bide hori jorratzeko "toki zentrala izango duela PSE-EEK Legebiltzarrean". Romerok hauxe adierazi zuen: "Iraganean asko sufritu du Euskadik". Eta gaineratu zuen bade-la ordua "elkarrekin zerbait hobe eraikitzeke".



Asensio Santa Marinar. | I.B

HEMEN eta ORAIN DENON HERRIA

Maddalen Iriarte
GipuzkoaArnaldo Otegi
LehendakariagaiaJasone Agirre
BizkaiaMiren Larrion
Araba

Irailaren 20an

JAN EDANA ETA EKITALDIA

BERGARAN Martin
Agirre plazan

BOZKATU ehbildu

Kanpainen ere hauteskunde osteko akordioei begira

- Elkarrekin Podemosen sarrerak goitik behera aldatuko du Eusko Legebiltzarraren itxura
- Erabakitzeko eskubidearen alde dauden indarrek gehiengo oso sendoa lortu dezakete

JOSU BILBAO | ARRASATE
Legebiltzarrerako hauteskundeak irailaren 25ean izango dira EAEn, eta Debagoienean ordezkariak nagusia duten alderdien hautagaiek euren ildo nagusiak azaldu dituzte. EH Bildu, EAJ, Elkarre-

kin Podemos, PSE-EE eta PP dira alderdi hauek.

Erabakitzeko eskubidearen alde dauden alderdi politikoek, EH Bilduk, EAJk eta Elkarrekin Podemosek, gehiengo sendoa lortu dezakete. EH Bilduk "herri

akordioa proposatu" die EAJri, Podemosi eta eragile sozialei, besteak beste, "estatus politiko burujabe baten bidea abiatzeko". EAJren ustez, "Podemosek zer egingo duen ikusteko dago, bere diskurtsoa aldatzen baitu baldin-

tzen arabera". Elkarrekin Podemosek datozen 4 urteak akordioak lortzeko "erabakigarriak" izan daitezkeela azpimarratu du.

Hala ere, badirudi gakoa hauteskunde ondorengo akordioetan egongo dela. Izan ere, dirudienez,

gobernatzeko ezinbestekoa izango da alderdien arteko akordioaren bat, eta, jada, badirudi akordio posible horietan pentsatzen ari direla hainbat politikari.

Indar berria

Elkarrekin Podemosen sarrerak Legebiltzarraren itxura aldatuko du goitik behera. 2015eko Udal Hauteskundeetan indarrez sartu ziren, eta Espainiako Gorteetako Hauteskundeetan Elkarrekin Ahal Dugu alderdi bozkatuena izan zen EAEn. Ikusteko dago, beraz, koalizio moreak hartuko dituen eserlekuak noren kalterako izango diren. PSE-EE alderdiak, adibidez, beherakada aldezturik espero du: "Banatzeko orduan gehiago gara eta eserleku gutxiago egokituko zaizkigu".



EH BILDU

MADDALEN IRIARTE

Kazetaria
53 urte | Donostia.

ehbildu

"Akordio zabal eta anitz berriak adosteko prest gaude"

J.B. | ARRASATE

EH Bilduko Gipuzkoako zerrendaburua da Maddalen Iriarte. Inkesten arabera, bigarren indarra izango da EH Bildu; oposizio lehena indar bilakatuko da edo gobernu osatzen ahalginduko da?

Herri akordio zabala proposatu diegu EAJri, Podemosi eta eragile sozialei, hiru helbururekin: erreskate soziala bermatzea, bakegintza zauriak behingoz ixtea eta estatus politiko burujabe baten bidea abiatzea. Azken 8 urteotan bizitako blokeo egoera eta politika grisak gainditzeko eta etorkizunera begira jartzeko garaia da.

Zenbateraino izan liteke bidelagun Elkarrekin Podemos?

Espainian aldaketa politikoa ezinezkoa da. Hemen posible da politika berriak eta alternatiboak aurrera eramatea, herritarren beharrak eta interesak erdigunean jarriko dituztenak, ez gutxi batzuenak. Legebiltzarrean gauza asko aldatuko dira, aukera berriak sortuko dira. Gu prest gaude akordio zabal eta anitz berri horiek adosteko, ez daki-guna da ea Madrildik hemengoei EH Bildurekin eta eragile sozialekin ibilbide hori egiteko baita emango dieten.

Irudikatzen duzu EH Bilduren, Elkarrekin Podemosen eta PSEren arteko gobernu edo inbestidura akordioak?

Zail ikusten dut PSE Euskal Herriak aurrera egiteko behar dituen akordio horietan egotea. Erabakitzeko eskubidearen aurkako bere jarre-rak EHn bazter batean kokatzen du, PP eta Ciudadanosekin batera. Zer esanik ez euskararen aurka kanpaina honetan erakutsi duen jarduerara mingarri horrekin. Akaso, beste akordio batzuetan egongo gara PSErekin, Etxebizitzaren Legearekin bezala.

Nazio izaera edo ekonomia-eredu aldaketa. Zer lehenetsiko duzue?

Bata bestearen faltan ez dago aurrera egiterik. Herri bezala aurrera egiteko tresnak behar ditugu, eta herri batek izan dezakeen tresna-rik eraginkorrena estatu bat da.

Hemen hobeto bizitzeko estatua behar dugun moduan, euskarak ere euskal estatua behar du, eta feministek ere berdintasuna lortzeko estatu bat behar dugu... Argi dagoena da Espainiako Estatuan jarraitzea euskal herritarrentzat galga bat dela.

Orain ere Madrilekiko erabateko apurketa du EH Bilduk ipar?

Hemen ezin dugu erabaki. Espainiak bere politikak eta neurriak ezartzen dizkigu euskal herritarren nahi eta beharrekin kontatu gabe eta gure ekonomiarako erabat kaltegarriak diren neurriak inposatuz. Ez da Madrilekin apurtu nahi dugula, baizik eta hemen hobeto bizitzeko apustua egiten dugula, eta horretarako bide bakarra gure tresnak gure esku izatea da, Euskal Estatua sortzea, alegia.



GOIENA

JOSEBA EGIBAR

Udal funtzionarioa
56 urte | Andoain.



"EAJ-PNV da Euskadik aurrera jarraitzeko bermea"

J.B. | ARRASATE

Gipuzkoako zerrendaburua izango da, beste behin, Joseba Egibar. 2012an aurkeztu zenuten estatus politiko berriaren zantzurik ez. Sinesgarritasuna galdu du horregatik Urkulluk?

Ez. Duela 4 urteko programan, proposatu genuen legebiltzar-pontentzia bat, testu artikulatu bat egin eta prozesuaren emaitza galdetara eramateko. Prozesua ez dugu amaitu, baina abian jarri dugu. Azkarrago egitea zen gure nahia, baina 75 legebiltzarkidetik 27 ditugu. Proiektua zehaztu beharra dago, gutxienezko batzuk ados-

tu eta herritarrak inplikatu estatus berri hori errealitate egiteko. **Independentziaren aldekoa zara?** Bai, horregatik nago EAJn 16 urte neuzkanetik, uste dudalako erremintarik onena dela Europar euskal estatua lortzeko. Horretarako jaio zen EAJ, eta hori da bere xedea. Kontua da nola iritsi nahi dugun estatu-egitura horretara, ez baita nahikoa independentzia nahi dugula esatea: ibilbide-orria marraztu behar da. EAJk proiektu zehatza eta egingarria aurkezten du. Gero eta dependentzia gutxiago, independentziara arte.

Erabakitzeko eskubidearen aldeko ekimenak bultzatzen daitezke EH Bildurekin eta Elkarrekin Podemosekin?

Datorren legegintzaldirako gure helburua estatus juridiko-politiko berria bultzatzea eta gauzatzea da, Euskal Herria existitzen dela eta subjektu politikoa dela aitortuta, eta erabakitzeko eskubidea duela aitortuta. Oinarri horiek partekatzen dituztenekin elkartuko gara. Agerikoa dirudi PP eta PSOE ez dabiltzala koordinada horietan. Podemosek zer egingo duen ikusteko dago; orain arte ez du argi erakutsi euskaldunok eta katalanek libre eta demokratikoki erabakitzen duguna errespetatu eta aintzat hartzeko apustua egingo duenik. **PSE duzue bidelagun erakundeetan. Kide ahula, inkesten arabera 16tik 8ra jaitsiko liratekeelako...**

Aurreko legegintzaldian zehar, guztiekin lortu ditugu akordioak. Aldundietan eta udal batzuetan sozialistekin akordioak izateak ez du etorkizunera begira gure apustu estrategikoa baldintzatzen. Hala ere, konstituzionalismo espainolak Euskadin behera egitea berri ona da beti, ikuspegi abertzaleatik.

Gipuzkoan gehiago batzen da gaika. Debagoienean, esaterako, %80 ere bai. Nola lortu da?

Urteetan eginiko kontzientziazio eta sentsibilizazio lanak funtsezkoak dira. Maila horietan gaude, nahiz eta udalerrri askotan ez zen edukiontzi-sistema zabaldu. Datuek erakusten dute edukiontzi sistemarekin antzeko kantitateak biltzen direla, baita atez ateko sonatuarekin, hainbesteko zalaparta zituenarekin, baino hobeak.



Takeshi Uchiyamada, Toyota EuskoAuto

Toyota Motor Corporation taldeko presidentea eta Agustin Martin Toyota Espainiako presidentea Pasaian izan dira. EuskoAutok presidenteen gertutasuna azpimarratu du: "Keinu honekin, argi gelditu zaigu marka handi baten eta esku oso onetan gaudela".



-Zaharbertzeak
-Ikuskaritza Teknikoak (ITE)
-Ziurtagiri energetikoak (CEE)
-Diru laguntzen gestioa
-Ilgogailuen proiektuak
-Barne dekorazioa
-Jarduera lizentziak

tel: 677 31 20 57
email: amaiigartua@gmail.com
www.aiarkitektura.wordpress.com
Oñati



ELKARREKIN PODEMOS

**PILI
ZABALA****Odontologoa**

48 urte | Tolosa.

**elkarrekin
PODEMOS**

"Beste politika mota batzuk aurrera egitea behar du Euskadik"

J.B. | ARRASATE

Pili Zabala tolosarra da koalizio moreko lehendakari gaia.

Hauteskundeei begira inkestek 14-15-16 eserleku ematen dizkizute. Indartsu sartuko zarete?

Aurrerapen sozial, demokratiko eta elkarbizitzan oinarritutako beste politika mota batzuek Euskadin euren bidea edukitzea da gure helburua. Legebiltzarrean gure sarrera indartsua izango da, baina boto eta eserleku bakoitza garrantzitsua izango da Euskadin inor atzean ez gelditzeko. **Posible ikusten duzu ezkerreko alternatibarik?**

Egoera irekia da eta horrek gauza asko gerta daitezkeela esan nahi du, baina irailaren 25eko gauera arte ez dugu jakingo. Orain herritarrek entzuteko, hausnartzeko eta erabakitze ordua da. Gure apustua argia da. Beste politika mota batzuk aurrera egitea behar du Euskadik. Batez ere, arlo sozialean.

Ezkerrekoak, zentrokoak edo non goak zarete edo non kokatzen duzu zure burua?

Bizitza eskubidearen edota adierazpen askatasunaren, denok etxebizitza bat izateko eta duintasunez bizi ahal izateko edota

lana izatearen eskubidea, gizonen eta emakumeen berdintasuna exijitzen duten edota osasun eta hezkuntza eskubidea bermatzen duten moduko gauzak proposatzen dituzten giza eskubideak nire bandera direla esatea gustuko dut.

Erabakitze eskubidearen aldeko indarrak legebiltzarkide guztien %75 inguru zarete. Hor badago aukerarik zerbait egiteko...

Datozen lau urteak erabakigarriak izan daitezke euskal herritarren artean akordio berri bat lortzeko. Guk horrela nahi dugu, eta zabala eta transbertsala izatea espero dugu. Gizarte plural eta askotariko baten elkarbizitza bultzatuko duen akordioa, herritarren erabakitze ahalmenean aurrerapena bultzatuko duen

akordioa, lurralde estatus berri bat, horrela erabakitzen badugu, eta gure eskubide sozialen blindatzea. Euskal gizartearen etorkizunerako akordioak lortzeko lau urte.

Euskal hezkuntzaz, euskaraz, ingurumenaz, ekonomiaz... zer daukazue eskaintzeko euskal gizarteari?

Hauteskundeetara 900 proposamen dituen programarekin aurkeztu gara. Euskadin egituratutako hezkuntza sistema publiko inklusibo eta euskalduna, helduek euskara doan ikasteko aurrera-pausoak ematea, Osakidetzan podologia eta odontologia moduko espezialitate berriak ezartzea, oraingo DBEa hobetzea eta errenta basikoaren inguruan eztabaida soziala irekitzea, industria politika duin baten alde egitea...



PSE-EE

**SUSANA
CORCUERA****Abokatua**

53 urte | Donostia.

**PSE-EE
PSOE**

"Akordioei dagokienez, ez zaigu axola norekin, baizik eta zertarako"

J.B. | ARRASATE

Susana Corcuera PSE-EEko Gipuzkoako zerrendaburua izango da irailaren 25eko hauteskundeetan. **Inkosten arabera PSE-EEK 8 eserleku gal ditzake. Zer dela eta hautesleen zigor hori?**

Sozialistok aspalditik ez diegu sinesgarritasunik ematen inkestei, PSOERI dagokionez argi gelditu delako inoiz ez dutela asmatu. Euskal gizarteari hezkuntza, osasun, gizarte zerbitzuetan eta terrorismoaren amaieran gertatu zaizkion gauza onenak PSE-EE Euskadiko gobernuetan izan denean gertatu dira. Oraingoan,

banatzeko orduan gehiago gara eta eserleku gutxiago egokituko zaizkigu.

EAJrengana gerturatze saiakera handiagoa ekarriko du horrek?

Kontua ez da inorengana gerturatzea. Akordioei dagokienez, ez digu axola norekin, baizik eta zertarako heltzen garen akordioetara.

PSOEk Madrilen Podemosekin duen jarrerak eragina izango du Euskadin konfluentziarako orduan?

Ez dugu Elkarrekin Podemosen programa ezagutzen, erabakitze eskubidearen alde egoteaz gain, euren proposamenak egiten

dituzten inkestak bezain aldakorak direlako. Madrilen asko hitz egin dute, baina ez dute ezer egin aldaketa politikoaren alde, Rajoyk eta popularrek bezala Pedro Sanchezen inbestiduraren kontra bozkatzearaz gain.

Erreferendum bidez bere etorkizuna erabakitze eskubidea izango du Euskadik?

Euskadiren etorkizuna ez dugu kontsideratzen erreferendum bidezko definizio gisa. Autogobernua gizarte plural baten elkarbizitza antolatze erreminta onena da, baina berritu eta eguneratu egin behar da autogobernuaren marko politikoa. Gernikako Estatutua eraberritu behar da gure ahalmen konpetentziala blindatzeko eta eskubide sozial berriak aitortzeko.

Hiru hizkuntzako modeloak eskolatan euskararen erabilera eta ikas-tea ziurtatuko luke?

MET ebaluazio eta esperimentazio prozesuak frogatu duen moduan, ingelesez irakasgai bat emateak hizkuntza honen ezagutzan hobetzea dakar, euskararen, gaztelaren eta hizkuntzak ez diren beste irakasgaien aurreratzean eraginik izan gabe. Formaziorako aukeretan berdintasuna dakar, etorkizun hobe batera begira.

LOMCErekin jarraituko dugu?

Sozialistok euskal hezkuntza akordio zabal bat eta LOMCE legearen eta bere curriculum autonomikoen indargabetzetik abiatzea planteatzen dugu, akordio honek Euskal Hezkuntza Lege berri bat ahalbideratzeko.



PP

**BORJA
SEMPER****Abokatua**

40 urte | Irun.



"Kontzertu Ekonomikoa PPekin bermatuta dago"

J.B. | ARRASATE

Gipuzkoako zerrendaburua da Borja Semper irundarra.

Espainiako ekonomia ereduak eta krisitik ateratzeko neurriak balekoak dira Euskadin?

Ez da soilik balekoa, baizik eta Espainiako Gobernuak hartutako eta herritarren sakrifizioaren neurriak dira, eta gure herria krisitik ateratzen ari dira, Euskadi barne. Azken lau urteetan krisiak sortutako arazoei irtenbidea bilatu eta gure ekonomia zuzendu barik Eusko Jaurlaritza beste kontu batzuekin kezkatua go egon da. Gure autonomia fis-

kalak ematen dizkigun erremintak izanik eta lan arloan ditugun konpetentziak edukita tamalgarria da Urkulluren Gobernua ez dela Euskadi krisitik irteteko behar den erreformen bide horretan aurrera egiteko gai izan.

Bakegintzan gutxi aurreratu da azkeneko urteotan, kontuan izanda, gainera, ETak behin betiko utzi duela jardun armatua. Rajoyk ez du urrats bat ere eman. Ondo egin du?

ETARI terrorismoa uztea besterik ez zitzaion gelditu, ez zen boluntarioa izan, baizik eta behartua. Zuzenbidezko estatua izan da ETak krimenak egiten uztea lor-

tu duena. Orain desegin eta desagertu egin behar du. ETA euskal gizarteari kuantifikatu ezin daiteken mina egin dion erakunde kriminal bat besterik ez da.

Ondo iruditzen zaizu Otegi ezin aurkeztu izatea lehendakari izateko?

Arnaldo Otegi ezin daiteke hautagai izan horrela erabaki delako epaiak, Epaitegi Penalak kondena ezarri baitzuen delitu bat zela eta. Eta epai judizialak bete egin behar dira.

Alfonso Alonso ere zigortu dute epaitegiekin...

Alfonso Alonsoren epaia, Kontu Epaitegiak jarria, zigor baten ordainketan datza, gaitasungabetze barik, eta errekurtsioa aurkeztuta dago. Kasu ezberdinak dira, eta hau zigor administrati- bo bat da.

Foru aldundiak desagertu egin behar dira, Ciudadanosekin egin duzuen akordioak dioen moduan?

PPk ez du Ciudadanosekin diputazioen desagertzea azaltzen den akordiorik sinatu, eta gutxiago foru aldundiena. Popularrok beti diputazioen defentsan azaldu gara, beste alderdi batzuek haien desagertzea proposatu dutenean.

Kontzertu Ekonomikoa arriskuan dago?

Kontzertu Ekonomikoa bermatuta dago. Izan ere, gure posizioa foruendako eta euskal autogobernuarendako garantia da. PP moduko alderdi nazional indartsu bat egotea ezinbestekoa da, foruekin, Kontzertu Ekonomikoarekin eta euskal identitatearekin konprometitua.



7 urteko garantia

auto berri guztietan

Arrasate
Araba etorbidea z/g
943 79 07 44

ZABALIK

JON
ETXEBERRIA
goiena.eus/
komunitatea/



Etorkizuneko lanbideak

Gizadiaren historian aurrerapen teknologikoek lanbide berrien sorrera eta zaharren suntsipena eragin dute, eta aurrerantzean ere hala izango da. Iraultza teknologiko baten atarian gaude, Industria 4.0, eta eragin sakonak izango ditu lan merkatuan. Adituek dioteenez, lehen heziketa hasten duten ikasleen %65ek, bizitzan zehar, egun oraindik existitzen ez diren lanbideetan lan egingo dute. Lanbide eta lanpostu berriak sortuko dira, baina bereziki STEM arloetan (*Science, Technology, Engineering and Maths*), hau da, zientzia, teknologia, ingeniaritza eta matematika arloetan. CEDEFOP Europako Batasuneko erakunde ofizialak dioenez, Europan STEM arloetako lanpostuek %14 egingo dute gora 2020an eta gainontzeko arloetakoez %3. STEM arloko demanda hain handia izango dela aurreikusten da, enpresa askok ezin izango dituzte profil honetako lanpostu guztiak bete. Gizarte industrializatu askotan nabarmena da ingeniari eta profil teknikoko profesionalen gabezia.

Gure inguruan zenbait enpresa ere antzeko tendentziak antzematen hasiak dira, eta, beraz, hurrengo urteetan arazorik ez izateko STEM profileko ikasle gehiago beharko dira. Ikasketak aukeratzea ez da inoiz lan erraza izan, norberaren bokazioa, kapazitatea eta lan egiteko aukerak uztartu beharra eskatzen duelako. Lehenengo bi gaiek norberaren eta egin beharreko ikasketen ezagupen ona eskatzen dute eta hirugarrenak, aldiz, lan merkatuaren eboluzioaren ikuspegi on bat izatea. Inork ez dauka etorkizuna igartzeko bola magikorik, baina badirudi adituei jaramon eginez gero, STEM arloetako ikasketek perspektiba profesional paregabeak eskainiko dituztela hurrengo urteetan.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | goiena.eus/komunitatea/



GUTUNAK

Panpako-lezka, landare inbaditzailea

Anton Txintxurreta, Izaskun Urizabel eta Iker Novoa
(Oñatiko Naturzaliak taldearen izenean)
Oñati

Panpako-lezka (*Cortaderia selloana*) loretan dago bete-betean. Hego Amerikan du jatorria, baina gurean landare inbaditzaile kontsideratzen da; gure ekosistemetan oreka ekologikoa suntsitzen du.

Laster, haizeak barreiatuko ditu bere haziak, landare hau inguruetara hedatuz. Orain da momentua landare osoa –edo gutxienez, loreak– kentzeko. Bailaran ez dago oso hedatua, baina neurririk hartzen ez bada azkar zabalduko da, Asturias, Kantabria edo Bizkaiko errepide bazterretan hedatu den bezala.

Errepideak, trenbideak, industrialdeak... eraikitzerakoan egiten diren lur mugimenduetan hazten dira erraz. Obra hauen arduradunak eta gure erakundeak lanean jarri beharko lirateke landare inbaditzaileen hedapena

eragozteko. Norberak ere, artazi batzuekin, asko egin dezake!

Irailaren 25ean ere egin dezagun herri

Pello Urizar, Ander Rodriguez eta Igor Ortega
(EH Bilduko hautagaiak)
Arrasate

Arnaldoren inhabilitazioarekin tokatu zaigu hauteskundeak hastera. Gure herria iraganeko parametroetan mantentzeko asmoz ezarritako inposizioa. Inposizio bat gehiago beste askoren artean, eta ez da azkena izango herri bezala erantzuten ez dugun bitartean.

EH Bildun argi daukagu hurrengo legealdia erabakiarena izan behar dela. Hemen bizi eta lan egiten dugunon artean adostu eta erabaki behar dugu etorkizuna, eta, horregatik, akordio zabalerako eskaintza luzatu diegu EAJ eta Ahal Dugu alderdiei, euskal gehiengo sindikalari eta eragile sozialei.

Akordioa murrizketa sozialak desagertzeko, oinarritzko eskubideak

bermatuak izan daitezten.

Akordioa burujabetza berreskuratzeko. Bizitza duina nahi badugu eskumen guztiak gureganatu behar ditugu, erabakitze eskubidearen bitartez.

Akordioa justizian oinarritutako bakea eskuratzeko. Gatazkak utzitako ondorio guztiak gainditzea gure esku dago.

Euskal Herriak behar dituen bermeak ez zaizkigu Madriletik etorriko, eta ezta Madrilekin adostuko ere, azken urteotako esperientziak erakusten digun bezala. Adostasunak hemen lortu behar ditugu, gure etorkizuna beste batzuen eskuetan utzi gabe. Hemen bai dago aukera akordio zabal eta eraginkorrek erdiesteko, eta EH Bildu prest dago horretarako.

Prest dago bertako eragile politiko, sindikal, ekonomiko eta sozialekin bide-orri bat adosteko. Prest ere herritarren babesa jaso dezan kontsulta bat antolatzeke. Prest ere, demokrazia printzipioari jarraiki, bide-orria Madrileran eraman eta berorren aplikazioa negoziatzeko, betiere, eta Madrileko balizko ezetzaren aurrean, lehenik bertakoen

artearen bide-orriaren aplikazioa adosten badugu.

EH Bilduk argi dauka bidea, mugarri bakarria euskal herritarren borondatea izanik, baina horretarako herritarren babesa behar dugu, zure babesa ezinbestekoa zaigu.

Lan-istripuak

Josu Garitaonandia
(Oparitu Zuhaitz Bat egitasmoaren arduraduna)
Bergara

Oporrak pasata eta eguneroko eginkizunetan murgiltzerakoan, hurrengo oporrak noiz etorriko diren grina pizten zaigu; zuen kontzientzia piztu nahi dut, gogoraziz, lan-istripuetan langile larregi hiltzen direla eta, tamalez, batzuek ez dutela gozatuko beste oporrik. Euskal Herriko zazpi probintzietan 34 langile hil dira lehen zortzi hilabeteetan; normalizat hartzen dugu langile gehien dituen probintzian hildako gehiago egotea, baina Gipuzkoarentzako 2011 beltza izan zen: 30 hildako. Normalean, Bizkaia izaten da hildako gehien dituen, baina urte hartan Gipuzkoak baino 2 hildako gutxiago izan zituen.

Normalena izan beharko litzateke hildakorik ez egotea; lanera goaz bizi ahal izateko, ez bertan bizitza lagatzeko. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan lehen hiru hilabeteetan 7.103 lan-istripu erregistratu dira, horietatik 7 hildakoekin; ziur nago hildako bat izateko egon direla mila istripu baino gehiago behar den bezala aztertu gabe.

Hildakoen memoria erabiltzera ohituta gaude, baina lan-istripuz hiltzen direnak azkarregi ahaztuak gelditzen dira. Lantokietan egon beharko litzateke txokoren bat, bertan gertatutako lan-istripu larriak gogoratzeko; Debagoienean aurrean ez da lan istripuan hildakorik izan, baina 2015ean Oñatin bat hil zen lanera joan-etorrian (*in itinere*) eta 2014an Antzuolan hil zen gazte bat baso-lanean ari zela; ea Debagoienean ez den handitzen lista beltz hau.

Hobe zuhaitz gehiago gure mendietan lan-istripuak baino.

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Ezingo dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun, gutun bakararekin baizik.
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otarora Lizenziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otarora Lizenziaduna 31
20500 ARRASATE
Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Eredaktore burua Urtze Madera
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketaziora Imanol Soriano, Aitor Lagoma, Olex Arrieta.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundirano, Zortza Martin, Imanol Elortza, Jokin Uribeetxeberria
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereizibar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otarora Lizenziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otarora Lizenziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.com

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otarora Lizenziaduna 31
Tel.: 943 25 05 00
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.850 ale
Difusioa: 18.507 ale



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



**EUSKO LEGEBILTZARRERAKO
HAUTESKUNDEAK 2016**

HAUTAGAIEKIN ELKARRIZKETAK



JULEN BOLLAIN | ELKARREKIN PODEMOS
IRAILAK 19, 22:30



JOSEBA EGIBAR | EAJ
IRAILAK 20, 22:00



MADDALEN IRIARTE | EH BILDU
IRAILAK 21, 22:00



MAHAI-INGURUA

IRAILAK 22, 22:00

PELLO URIZAR | EH BILDU
JOSEBA EGIBAR | EAJ
JULEN BOLLAIN | ELKARREKIN PODEMOS
ENEKO ANDUEZA | PSE-EE
JUANA BENGOTXEA | PP

ehbildu



**elkarrekin
PODEMOS**



HAUTESKUNDE-PORRA


Nola geratuko da Eusko Legebiltzarra?

Asmatu hauteskunde-porra eta irabazi

Puntua aldizkariaren urte osoko harpidetza.

Sar zaitez **Goiena.eus** atarian eta asma ezazu irailaren 25etik aurrera Eusko Legebiltzarrean alderdi bakoitzak izango duen eserleku kopurua.

Animatu eta parte hartu!



HERRIAK

'Mozkorra' tomatearen astea egingo dute Aretxabaletan

- Bertako klasea ezagutarazteko ekintzak antolatu dituzte 21etik 24ra
- Tailerra, hitzaldia, lehiaketa eta erakusketa egongo dira

OIHANA ELORTZA | ARETXABALETA

Mozkorra du izena Aretxabale-tako tomateak eta fruta mota hori hobeto ezagutzeko jardunaldiak egingo dituzte herri horretan datorren astean. *Mozkorra*-ren berezitasunak eta propietateak erakutsiko dituzte. Ortu lehiaketa ere egongo da.

Aspaldikoa

Herrian gutxienez 40 urte badauka Aretxabale-tako *Mozkorra* izeneko horrek. Koldo Zubizarretak, esaterako, baditu etxean eta badaki nolakoa den: "Azal fina dauka eta oso koloretsua da. Zaporez, oso gozoa. Duen beste bereizgarri bat da multzoka hazten dela eta beste tomate mota batzuk baino lehenago egiten dela. Hori bai, gaixotasunekiko oso sentisibla da, besteak baino gehiago".

Urte asko dira Zubizarretak etxean *Mozkorra* lantzen duela. "Domeka baten, ama eta biok paseo-leku batera joan ginen. Han topatu genuen Juan Jose Arenaza Atxurdin, eta haren ortua ikustera joan ginen. Hark zeukan tomate klase hori. Gustatu egin zitzaigun eta ale bat edo bi hartu eta harrezkero geuk mantendu dugu klase hori". Berez tomatea nongoa den ez dakite.

Bertako tomatea bertan mantentzearen alde dago Zubizarreta eta helburu horixe izan du: "Kontzientzia zabaltzea gura nuen nik, horrenbeste urtez hemen landatu den tomateak jarraipena izateko kontzientzia izatea jendeak". Aurten, esate-



Azal finekoa eta koloretsua da *Mozkorra* tomateak. | XABI URTZELAI

rako, 115 urte dituen tomateak jaso du etxean. "Gasteizko moja batzuek eman didate landarea", dio Zubizarretak.

Gaur egun, Aretxabale-tako *Mozkorra* inguruko herrietan ere ikusten da. Oñatin, esaterako, San Martin auzoan dauden aisialdirako ortuetan landatzen dute *Mozkorra*. Udaberrian tomatei buruzko ikastaroa egin zuten han, Furgobaratza zerbitzuaren laguntzarekin, eta *Mozkorra* klaseko landare asko saltzen dituztela Oñatin aitortu zuen orduan

ikastaroa eskaini zuen Aitziber Otegi.

Kontserban

Aretxabale-tako tomateak hobeto ezagutzeko jardunaldiak datorren astean egingo dituzte, eta bere ezaugarriak nabarmenduko dituzte. Esaterako: beste batzuk baino lehenago etortzen da eta gerora ere ematen ditu aleak; Slow food mugimenduak Aretxabale-tako *Mozkorra* bere babespean hartu du; izan ere, galtzeko arriskuan zegoen tomate klase hori; Gas-

teizen, duela hiru urte, tomate dastatzea egin zuten, eta hamahiru tomate klaseren artean Aretxabale-takoak jaso zuen lehen saria.

Mozkorra nolakoa den jakiteko, tailerrak, hitzaldiak eta lehiaketak antolatu dituzte, besteak beste. Eguaztenean, esaterako, tomateak kontserbatzen ikasteko tailerra egingo dute Arkupen 18:00etan eta eguenean 18:30ean, hitzaldia egingo du Tomas Larrañaga antzuolarrak tomateak hobeto ezagutzeko. Hori

TOMATEAREN ASTEA

IRAILAK 21, EGUAZTENA

18:00, ARKUPE

- Tomatea kontserbatzen ikasteko saioa. Izena aurrez eman behar da aurrez.

IRAILAK 22, EGUENA

18:30, ARKUPE

- Aretxabale-tako tomatearen gaineko hitzaldia Tomas Larrañagarekin.

IRAILAK 24, ZAPATUA

12:00, DURANA KALEAN

- Tomate erakusketa popularra. Izena eman behar da aurrez.
- Ortu lehiaketaren eta erakusketa popularren sari banaketa.

ere Arkupen izango da. Mankomunitateak bultzatutako astea izango da eta tailerrean eta hitzaldian parte hartu gura izanez gero, hara deituta eman behar da izena: 943 79 64 63 da Debagoienako Mankomunitateko zenbakia. Arkupen ere eman daiteke.

Eta gauza bera egin behar da ortu lehiaketako parte izateko ere. Aretxabale-tako ortu guztiek parte hartu ahal izango dute eta oso positibo baloratuko dute simaurketa edo lurraren ongarriketako biologikoa. Puntu gehien lortuko du laborantza tradizionalera gehien gerturatu denak. Landare kopurua eta aniztasuna ere kontuan hartuko dute epaimahaia osatzen dutenek. Sariak hilaren 24an emango dituzte, tomate erakusketako sariekin batera. Erakusketako sariak pisu gehien duen tomateari, itsusienari eta klase gehien dituenari emango dizkiote.



ANTOLATZAILEAK: LAGUNTZAILEAK



IXADEBALDE

Aretxabale-tako XIII. merkealdi azoka

Irailak 17, zapatua. 10:00etatik 20:00etara
Mitarte kalean (euria eginez gero, frontoian)

- Puzgarriak egun osoan zehar egongo dira.
- 12:30etik 14:30era globoflexia.
- 16:30etik 19:30era jolasak izango dira umeentzako.
- 100€-tako bi bonu eta UDAko bi bazkide-txartel zozketatuko dira.

Amaia ume denda
Asensio
Atai
Belar Meta
Hankabeltz
Haurrak
Kilima
Kioskoa
Mari Merke
M5
Tinta Beltza
Titare
U.D.A
Bedarreta

Minerala burdina bihurtzen zuen haizeola bat aurkitu dute Arrasaten

- Arrasate Zientzia Elkartekoek Josu Etxezarraga arkeologoaren laguntzarekin aurkitu dute
- Data zehatzik ez dagoen arren, XI. eta XIII. mende artekoa izan daiteke aurkikuntza

ENEKO AZURMENDI | ARRASATE

Duela bost urte Jose Angel Barrutiabengoa eta Javi Bengoa Arrasate Zientzia Elkarteko kideak Arrasateko burdinaren historia aztertzen hasi ziren. Liburu eta dokumentu teoriko dezente eduki arren, horiek frogatzeko proba praktikoak falta zitzaizkien. "Horregatik, landa lana egiten hastea pentsatu genuen", adierazi du Bengoak.

Balio historiko handia

1262ko dokumentu batek dio herriko burdingileek erregeari eskatu ziotela Arrasatera bertara burdina jaisteko baimena. "Arrasaten dokumentu hau agertzen bada, burdina nonbaitetik atera behar ko zuten", nabarmendu du Bengoak. Hori ikusita, "altxorren bila" hasi ziren zientzia elkarteko kideak, eta, "hainbat hutsegiteren" ondoren, burdin hondarrak aurkitu zituzten Anporretako tontorraren inguruan.

"Hondar horiek zein mendetakoak diren zehatz frogatzeko karbono-14 bidezko datazio egin behar dugu. Behin hori eginda, baliteke Arrasate herriaren sorrera bi mende zaharragoa izatea", adierazi du Barrutiabengoa.



Denbora luzez egindako ikerketen fruitua izan da Anporreta inguruan aurkitutako labea | ENEKO AZURMENDI

Adituaren laguntza

Hori ikusita, Josu Etxezarraga arkeologoarekin harremanetan jarri ziren. "Ahal izanez gero, labea aurkitzea nahi genuen", azaldu du Bengoak. Euskal Herriko meatzaritza museoko arkeo-

logia taldeko kidea da Etxezarraga eta aspaldiko garaietan burdina nola sortzen zen ikertzen dihardu. "Arrasate Zientzia Elkarteko kideak etorri zitzaizkigun, ea gai hau nola ikertu genezakeen galdetuz. Beraz, Anporretara

joan, leku aproposa zela ikusi eta bertan indusketa egiteko baimena eskatu genuen", azaldu du.

Aipatutako burdin hondar horien jatorria zen labea da aurkitu dutena, arkeologoaren esanetan. "Meategietatik ateratzen zen burdin mineral hori hartu, eta ondoren lantegietan erabiltzeko burdina sortzen zuen labe honek. Hau da, minerala transformatu eta burdina atera", azpimarratu du.

Egoera onean

Gaineratu du, oraingoz, Gipuzkoa osoan ondoen kontserbatzen den mota honetako labea dela. "40 bat zentimetroko paretak topatu ditugu; paretetako plakak eta inguruan dituen harriak ondo ikusten dira", adierazi du Etxezarretak.

Aurreikuspenen arabera, bi aste barru jasoko dituzte karbono-14 datazio probaren emaitzak.

Udaberriko eta udako produktuen Merkemerkaia zapatuan

XABI GOROSTIDI | ARRASATE

Arrasatearren artean duen arrakasta ikusita, urteko bigarren Merkemerkaia egingo da bihar, zapatua. Teknikoki hirugarrena izango da, otsailaren 27ko eguraldi txarraren eraginez beste bat egin zelako martxoaren 12an.

Arrasateko merkatariek eskaintza bereziz beteko dituzte herriko bazterrak eta aukera polita izango da kalitatezko produktuak prezio erakargarrietan

erosteko. %50eko deskontuak eta hortik gorakoak jarriko dituzte herriko saltzaileek kontsumitzaileak erakartzeko.

34 denda

Aukera zabala izango da bihar, herriko 34 dendak konfirmatu dute eta euren parte hartzea edizio honeterako.

Komertzio gehienek denda kanpoan jarriko dituzte euren arropak; hala ere, orain arte leku

arazoagatik Biteri plaza erabili duten komertzioek ezin izango dute gune hori erabili.

Zapatuan ekintza ugari daudela ikusirik, beste denda batzuen alboan jarriko dituzte euren produktuak ondorengo komertzioek: BC dendak Ceciaga denda zegoen tokian jarriko ditu bere produktuak, Ekobai-koek Loramendi Kirolak eta Ume artean, Kapikua-k eta Lizarralde Kirolak-ek Maiazaren 1a plazan eta Sikol dendak Olarte kalean.

Egun osoko programazioa

Merkemerkaia ez du etenik hartuko egun osoan zehar, eta 10:00etatik 20:00ak arteko ordu egia izango dute komertzioek. Horretaz gain, 11:00etatik 13:00etara Batukada Sanbaña-ko kideek herriko kaleak girotuko dituzte eta arratsaldean, 17:00etatik 19:00etara, Erraldoien eta Kilikien konpartsaren bisita jasoko dute.

aek euskara praktikoa

%100 AFEKTIBOA

Eman izena

Debagoieneko AEK

Matrikulazioa zabalik irailaren 30era arte.

Euskara maila guztiak.

Garibai 14 · 943 77 03 69
arrasate@aec.eus

DIRU-LAGUNTZAK

Udalaren laguntzarekin.

DATUA

34

DENDA

Uda osteko edizio honetan Arrasateko 34 dendarik aterako dituzte euren produktuak kalera.

%50

DESKONTUAK

%50eko deskontuak eta hortik gorakoak aurkitzeko aukera izango da zapatuko azokan.

2016ko Elkartasun Egunak Josu Arkauzen egoeran jarriko du fokua

Musika, manifestazioa eta ekintza ugari biharko antolatu duten egitarauan

XABI GOROSTIDI | ARRASATE

Euskal presoei elkartasuna adierazteko eta euren eskubideak bete daitezela aldarrikatzeko antolatu dute Elkartasun Eguna, beste behin. Kulturaren egindako aurkezpenean salatu zutenez, "errepideko istripuek, larriki gaixo dauden presoen muturreko egoerek, osasun asistentzia desgokiek, ukatutako baimenek eta isolamendu politikek" ez dute etenik, eta, beste behin, "dispertsio politika amaitzeko beharra" azpimarratu zuten.

Aurtengo Elkartasun Egunean, bereziki, Josu Arkauz herriki-dearen egoera salatuko dute. 25 urte daramatza kartzelan, eta, Europako legediaren arabera kanpoan egon beharko lukeen arren, espainiar epaitegiek "askatasuna ukatzen" jarraitzen diotela jakinarazi zuten. "Ozen salatu nahi dugu ez dugula horrela-

korik onartuko, jendarte honek bakerako eta konponbiderako eskubidea duela", adierazi zuen Aner Elorzak prentsaurrekoan.

Zuzeneko musikaz blai

Urtero legez, zuzeneko musikaz beteta dator 2016ko Elkartasun Eguna. 23 taldek joko dute, lauk goizean, hamalauk arratsaldean eta bostek gauean. Umeen txokoa Biteri plazan egingo da eta leku berean jarriko dute LKRTSN azoka alternatiboa. 14:30ean bazkariaren txanda izango da. Aurtengo menua entsaladak, paellak eta txingarretan egindako saiheskiak osatzen dute. Txartelak 13 euroren truke daude salgai Monte, Amaiur eta Irati tabernetan.

Eguneko ekitaldi nagusia 19:30ean Herriko Plazatik abiatuko den manifestazioa izango da, eta, ondoren, Gaztetxeko kontzertuarekin eta DJekin emango

diote bukaera. Bazkarirako eta gaueko kontzertuetarako txartelak lehenbailehen erosteko dei egin dute antolatzaileek.



Aitor Urizar eta Aner Elorza asteazkeneko prentsaurrekoan. | XABI GOROSTIDI

2016KO ELKARTASUN EGUNEKO EGITARAUA

11:00 Biterin, Umeen txokoa eta LKRTSN azoka alternatiboa.

12:30 Monten, Gela Berezia eta Taupan, WC taldeak.

13:15 Kajoi eta Itzala tabernetan Igor Letona Jazz Quartet.

14:30 Biterin Bazkaria. Txartelak Irati, Monte eta Iratin 13 eurotan.

17:00 Kontzertuak.

► Libertad Condicional Ekaitzen.

► Sasikumeak Iratin.

► Kalaña Brankan.

► Las Tuercas Amaiurren.

► Fight To Life Basatin.

► Roto Osoriken.

► Kadena Perpetua Gure-Lekun.

18:00 Kontzertuak.

► Ain_1 Iturriotzen.

► Pecoza United Etxosten.

► Herdoil Jai-Zalen.

► Lokuri Haizean.

► Huntza Iluntzen.

► Los Quadrophonicos Arrasaten.

► Drop! Muxibarren.

19:30 Manifestazioa.

22:00 Kontzertuak.

► Screaming For Change.

► Bar Remigio.

► Flyshit.

► Eskean Kristo.

► Perracopters DJak.

MERKE 2016

MERKAUA

Arrasateko stock azoka

17

IRAILA

ZAPATUA

10:00-20:00 (jarraian)

ORDAINKETAK:
ESKUDIRUTAN

Arrasateko kaleetan zehar:
Olarte, Otalora, Erdiko kalea, Garibai, Biteri, Mondragones, Zarugalde, Maiatzak 1 plaza...

11:00-13:00
Sambamaña Batukada

17:00-19:00
Erraldoi Eta Kilikien Konpartsa

Antolatzailea

Babeslea

JUSTITIA, HEZKUNTZA, KULTURA, ELKARTASUNA, KULTURAREN ERANTZUNERAKO ERAGILEAK

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON

Konpartsa

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON

Bilbon egingo da 2018ko Gizarte Ekonomiaren foroa

Arrasatek parte hartze aktiboa izango du eta bertako ekintzetako batzuk hartuko ditu

X.G. | ARRASATE

Arrasateko alkateak pasa den astean parte hartu zuen mundu mailako foroaren hurrengo edizioa Bilbon egingo da eta Arrasatekin elkarlanean antolatuko du. Maria Ubarretxenak egindako bidaiaaren helburuetako bat zen Bilboren hautagaitza babes-tea eta alkatea pozik azaldu da hura lortzeagatik. "Oso pozik gatoz, azkenean lortu dugulako mundu mailako foro hori Euskadira ekartzea. Bilbo eta Arrasate artean ospatuko da eta Arrasatek presentzia garrantzitsua edukiko du bertan", adierazi du Ubarretxenak.

Lehia bizia

Bartzelona, Liverpool edo Bama-ko bezalako hirien artean lehia-tu arren, antolatzaileek Bilboren aldeko apustua egin zuten kon-

gresuko azken egunean. Ubarretxenak esandakoaren arabera, lehia estua izan da, batez ere, Bartzelonako delegazioaren partetik: "Bartzelonako delegazioa, adibidez, oso jendetsua zen eta asko zaildu ditu Bilboren aukerak kongresu guztian zehar".

Cities proiektua

Kongresua Euskadira ekartzeaz gain, *Cities* proiektuan parte hartuko du Arrasatek, Quebec, Seul, Bartzelona eta Bilbo hiriekin batera.

Proiektu kolaboratzaile honek tokiko gobernu eta gizarte zibileko eragileen kooperazioa du oinarri. Honen helburu nagusiak dira gizarte ekonomia solidario baten inguruan hausnartzea, esperientziak eta jakintza partekatzea eta nazioarte mailan praktika onak hedatzea.



2018ko kongresua antolatzeko sinadura egiten. | ARRASATEKO UDALA

Tonu lasaia nagusi ikasturteko lehen osoko bilkuran

EH Bilduk bi kezka azaldu zituen eta gai guztiak aho batez onartu ziren

XABI GOROSTIDI | ARRASATE

Asteartean ezohiko osoko bilkura egin zuten Arrasateko udal ordezkariak. Aurreko astean alkatua Montrealetan egon izanak eragin zuen osoko bilkura iraileko bigarren astera atzeratzea eta ezohiko izaera izatea.

Gai guztiak aho batez onartu zituzten eta EH Bilduk bi kezka azaldu zituen: lehena, azokari bultzada emateko planaren epeengatik, eta bigarrena, Arrasateko Udaleko Euskara Saileko burua ordezkatzeko Udal Gobernuak ez duelako oraindik egitasmorik aurkeztu.

Azoka berritzeko lanak

Zazpigarren puntura arte ez zen inongo parte hartzerik izan. Tokiko Gobernu Batzordeak bigarren hiruhilekoan onartutako kreditu aldaketen espedienteen puntuan, EH Bilduko Eneko Barberenak kezka azaldu zuen azokari bultzada emateko planaren epeen inguruan.

Herritarrei inkesta pasa zitzaizen azokaren etorkizunaren inguruan zituzten ekarpenak jasotzeko. Besteak beste, azoka dagoen tokian mantentzea nahia-go dela eta bertako azpiegiturak



Udal ordezkariak ikasturte berriko lehen osoko bilkuran. | XABI GOROSTIDI

hobetu behar direla ondorioztatu zen bertatik.

Oscar Garciak gaiari heldu eta epeei buruzko informazioa eman zion. Bi edo hiru asteko epean enpresa batekin elkartzeko asmoa dutela adierazi zuen, oraindik enpresa aukeratuta ez zegoen arren, eta mahai horretan EH Bildurekin batera lan egitea gustatuko litzaiokeela adierazi zuen. Horretaz gain, zapatu goizero elikadurarekin lotutako azoka egiteko pleguak onartu direla jakinarazi zuen.

Euskara sailaren etorkizuna

Arrasateko Udaleko Euskara Saileko arduraduna irailean erretiratuko da eta EH Bilduko Urki Larreak kezka azaldu zuen Udal Gobernuak ez duelako oraindik neurririk hartu, eta ez dituelako epeak errespetatu.

Maria Ubarretxenak berandu dabiltzala onartu zuen. Jarraian, gai hau EH Bildurekin batera adosteko konpromisoa azaldu zuen, etorkizuneko Arrasateko Udalean estrategikoa izango den saila delako.

Uribarri-Erguin auzoko jaiak aste bukaeran izango dira

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Udako oporren ostean ere jaiak ez dira falta. Oraingo aste bukaeran Uribarri-Erguin auzoko jaiak ospatuko dituzte.

Tirolina eta ohe elastikoak

Eskolatik irten ostean, 17:00etan, umeak izango dira protagonista Usaetxe plazan. Txatxilipurdiren eskutik askotariko tailerrak egingo dituzte. Ondoren, 19:00etan, txokolatea eta bizkotxoa jateko aukera egongo da leku berean. Gauean, 21:00etan, *Zuk ein zeuk jan* afaria egingo dute. Norberak etxetik afaltzeko zerbait eroan beharko du, guztien artean partekatzeko.

Bestalde, zapatuan, puzgarrietan ibili eta abentura-jolasak egiteko aukera egongo da. Tirolina, polea lasterketa eta ohe elastikoak egongo dira Usaetxe plazan, 10:00etatik 14:00etara. Ostean, salda, txorizoa eta haragia banatuko dute erretiratuek. 14:30ean, bazkaria egingo dute Hilarion jatetxean. Trikitilarien eta erromeriaren doinuekin (20:00) agurtuko dituzte jaiak.

Tomatea izango da baserritarren azokako izarra

M.B. | ARRASATE

Iraileko hirugarren zapatua da biharkoa, eta, horren harira, baserritarren azoka egingo dute, Seber Altube plazan. Oporren osteko lehena izango da. Sasoiko produktuak izango dira protagonista. Berezi-ki tomatea. "Orain dago tomatea goxoa eta mota askotarikoa erosteko aukera egongo da azokan", esan dute antolatzaileek Arrasate Irratian.

Hamabi postu

Aldaketarik ez dauka biharko azokak. Guztira, hamabi postu egongo dira: lau Arrasateko baserritarrak dira, hiru debagoiendarrak eta beste hiru bailaratik kanpo datozenak. Horietan, baserriko produktuak erosteko aukera egongo da: frutak, barazkiak, lekaleak, ogia, ahateen deribatuak, eraldatutako produktuak, berakatzak... "Ohiko postuak dira, baina barietate handia egongo dela uste dugu", diote.

Beste bi postuetan egurrezko tresnak eta orturako lanabesak eta makinak egongo dira.

Paretan zer margotu aukeratzeko unea

M.B. | ARRASATE

Asteleheneetik –irailak 19– aurrea izango dute herritarrek Elma-ko paretarako gustuko duten irudia bozkatzen hasteko aukera. Wallart Painting enpresak bost bozeto aurkeztu dizkio Udalari eta horien artean aukeratu beharko dute herritarrek, astelehenean zabalduko den prozesu parte-hartzailean.

Botoa eman ahal izango da BAZen dauden ontzietan edo Arrasateko Udalaren webgunean. Lehenean hilaren 24ra arte, zabalik dagoen orduetan; eta, bigarrenean, hilaren 25era arte.

Adinez nagusi izan eta Arrasaten erroldatuta daudenek eman ahal izango dute botoa.



Elmako paretan, eguen goizean. | MIREIA BIKUÑA

Zer margotu aukeratzeko den bitartean, Wallart Painting enpresako langileak hasi dira horma

txukuntzen: zuloak konpondu eta estali, dauden belarrak moztu, margotuta dagoena kendu...

BIODANTZA

626 66 12 92

jardunaldiak

IRAILA 19-23

Erna ezazu zure bizitasuna, sentitu, sortu eta dantza egin poztasunez.

BERGARA Astelehena, 19. Mariaren Lagundia ikastola. 18:30-20:30. Mentxu Arjonilla - 626 66 12 92

ARRASATE Asteazkena, 21. Arrasate Yoga Elkarte. 19:30-21:30. Rakek Ampudia - 679 44 12 29

ELORRIO Ostirala, 23. Txintxirri ikastola. 18:00-20:00. Mentxu Arjonilla - 626 66 12 92

www.biodanzabai.com • biodantzabai@gmail.com

grupo amuebladora mondragonesa

1956-2016

60

URTE

ESKERRIK ASKO !!

60.URTEURRENA DELA ETA, EKITALDI BEREZI BAT ANTOLATU DUGU.

ETORRI GUREKIN OSPATZERA!!

Eguna eta ordua: Irailak 23, ostirala. 20:00etatik aurrera

Tokia: Okendo etxea, Maalako errabala 13

ARRASATE

Sofa Koltxoi centro hogar MUEBLES

OHARRAK

KINTADA

1952an jaiotakoek urteko kintada eguna egingo dute urriaren 15ean. Baztan bailarara egun osoko irteera egiteko asmoa dute, eta dagoeneko zabaldu dute izena emateko epea. Interesatuak 70 euro sartu beharko dituzte lehenbailehen Kutxabaneko kontu korrante zenbaki honetan: 2095 5055 50 9116340652.



laz jokatu zuten Jesus Mari Herrero 'Pitxi' torneoa etxekoek irabazi zuten; ostean ateratako talde argazkia. | EKAITZ FILARMENDI

Jesus Maria Herrero 'Pitxi' torneoa jokatu dute bihar Iturripen

Bost partidu jokatu dituzte kategoria ezberdinetako taldeek

IMANOL BELOKI | ARRASATE

Herriko eskubaloiairen alde horrenbesteko lana egin zuen Jesus Maria Herrero zena gogoratzeko torneoa egingo du Arrasate Eskubaloi Taldeak, azken urteotan moduan.

Infantil mailako LEK Arrasatek Aloña Mendiren aurka joka-

tuko du 10:00etan, eta ondoren, 11:30ean, Arrasateko kadete mailako mutilek ere oñatjarren aurka jokatu dute. 13:00etan, berriz, lurraldeko senior mailakoek Getxoko Romoren aurka jokatu dute. Arratsaldean, aldiz, gazte mailako mutilak Getxoko Romoren aurka

lehiatuko dira, 16:00etan, eta amaitzeko, 18:00etan, Euskadiko senior mailako Ford Mugarrik Getxoko Romoren aurka jokatu du.

Denboraldia hasiera doa

Senior mailako Ford Mugarriren azken partidua izango da denbo-

raldi berriari ekin aurretik. Datorren astean, Pulporen aurka jokatu dute, eta hasteko talde "gogorra" dela adierazi du Patxi Gartzia entrenatzaileak.

Bestalde, beste kategorietako taldeek urriko lehen asteburuan ekingo diote ligari.

Santos Jimenez idazlearen 'Covalverde' liburua aurkeztu dute Kulturaten

Cuevas del Valle herrian gerra zibilean gertatutako sarraskia azaleratzen du

I.B | ARRASATE

Santos Jimenez idazleak *Covalverde* liburua aurkeztu du Kulturaten. Gerra zibilean, lehen hilabeteetan, 1936an, Avilako Cuevas del Valle herrian gertatutako sarraskia kontatzen du liburuan, hainbat herri-tarren testigantzak nobelatuta. Inoiz kontatu ez diren istorio errealak batzen ditu liburuak, eta jende asko hurbildu zen Kulturateko aretoko aurkezpenera.

Hitza lehendabizi Juan Ramon Garaik hartu zuen Intxorta 1937 kultur elkartearen izenean. Aipatu zuen: "Liburu hau aurkeztea proposatu zigutenean, berehala etorri zitzaigun burura zer hartu-eman egon den Arrasate, Bergara eta Cuevas del Valle herrien artean duela mende batetik hona. Izan ere, Cuevastik Arrasatera jende asko etorri izan da lanera".

Arrasaterekin zerikusia

Cuevasko herritar asko Anglo-Vasco-Navarro trenbidea eraikitzen zirela. "Honen ondoren, harreman horrek jarraitu zuen kolpe militar faxistari egindako erresistentziarekin, zeinetan bi herrietako pertsona batzuek borrokatu zuten, hil zituzten, eta erreprimitu horregatik. Hala, Felipe,



Santos Jimenez Kulturateko aurkezpena hasi aurretik. | I.B

Rogelio eta Anastasio Garcia Lumbreras anaiak, Elman langile ibili zirenak, *Dragones* batailoiko miliziano izan zirenak, gerran hil zituzten. 50eko hamarkadan Arrasatera etorritako *Covacheroak* lanean eta borroketan berriz hasi ziren *Dragones* batailoian ibilitako mondragoetarrekin batera. Union Cerrajeratik bidalitakoak hauek...", aipatu zuen Juan Ramon Garaik.

Santos Jimenez idazleak, berriz, adierazi zuen gizon eta emakume nagusiekin egindako elkarriketetatik ateratako lana

dela *Covalverde*. Etxe askotara sartu zela, tomate, gaztaina, pikua, eta ardoaren inguruko berbal-diaz, eta poliki-poliki gerrako pasarteak batu zituela. "Kontalari gehienak hilda daude; izan ere, urte asko eman ditut honekin. Gordetako istorioak, ahaztutakoak dira. Ez jakintasuneko historia berreskuratzearen, belaunaldi berrientzako egina da".

Hainbat pasarte eta istorio kontatu ondoren, bukatzeko, solasaldia sortu zen aretoan zeuden artean eta hainbatek erositako liburuak sinatu zituen egileak.

Tailagintza ikastaroan izen-ematea zabalik dago

I.B | ARRASATE

Arrasateko Tailaginen Elkar-teak tailagintza hastapen mailako ikastaroa antolatu du. Irailaren 26an hasiko da, eta ikastaroa 30 ordukoa izango da. Irakaslea Felix Iturbe izango da eta klaseak Nafarroa etorbideko 33. atarian emango dira, Debagoieneko Ospitale aurrean.

Hastapeneko ikastaroan, egurrekin figura geometrikoak egin eta figura hauen barruan marrazkiak egiten ikasiko dute ikasleek, besteak beste. Tailagintza Elkar-teak jarriko du materiala; egurrak eta lan egiteko erremintak. Izena eman nahi duenak, aldiz, Jose Mari Etxabe Tailagintza Elkar-teko arduradunari deitu beharko dio 620 174 255 telefono zenbakira. Bestalde, ikastaroaren prezioa 50 eurokoa izango da lanean ari diren pertsonentzat eta ikasle edo langabeentzat 30 euroko kostua izango du. Ikastarorako taldea osatzen denean ezarriko dira ikastaroen egun eta orduak, ikasleen ordutegiaren arabera.

Besaidek Oroimen Eguna ospatuko du domekan

Arrasateko Besaide Mendi Elkar-teak mendi istripuan zendutako euskal mendizale lagunak oroitzeko ditu. Besaiden bertan elkartuko dira, domekan, 11:30ean. Euskal Federazioko lehendakariak hartuko du parte bertan eta trikitilariak ere egongo dira, janaz eta edanaz gain.

Bestalde, elkar-teak Iturri-txipigaina (Anporreta) herri-tarrei bueltatzeko egitasmoa abian jarri du. Dirua biltzeko zozketa izan da eta irabazlea Besaiden jakinaraziko dute.

Igerilekuan neguko ordutegia izango da astelehenetik aurrera

Uda denboraldiko azken astea da eta aldaketak ditu Arrasateko igerilekuaren ordutegiak. Gaur, barruko igerilekua zabalduko dute goizean eta kanpoko arratsaldean. Bestalde, aste bukaeran, kanpoko igerilekua bakarrik zabalduko dute, 10:00etatik 20:30etara, eta astelehenetik aurrera neguko ordutegiarekin hasiko dira. Hau izango da ordutegia: astelehenetik egubakoitzera 07:00etatik 21:30etara eta asteburuetan 09:30etatik 13:30etara eta 16:30etatik 19:30etara.

Plazako dantza tradizionalen ikastaroa hasiko da

I.B | ARRASATE

Urtero bezala, Plazako Dantza Tradizional ikastaroak antolatu ditu Arrasate Portalo Elkar-teak. Bi taldetan banatuta izango dira: hastapeneko taldea eta beterranoen dantza-txokoa. Saioak astelehenetan izango dira, urriaren 3an hasita, eta ekainera arte iraungo dute (30 saio guztira). Ohi bezala, Patxi Monterok jardungo du irakasle.

Hastapeneko talde berriaren ikastaroa astelehenetan izango da 18:00etatik 19:30etara eta dantza-txoko ikastaroa, berriz, egun berean 19:30etatik 21:00etara. Izena eman nahi duenak AEDra deituz (943 77 12 28) edo Gazte Bulegora deituz egin dezake (943 25 20 65) irailaren 23aren aurretik. Lotuan, pasodoblea, baltsa, polka, txotis, mazurka, boleroa, habanera eta tangoa ikasiko dira. Soltean, berriz, trikitia, porrusalda, fandangoa eta arin-arina. Bestalde, jauziak, Baztango mutil-dantzak, kontradantzak, joko-dantzak... ikasiko dira, besteak beste.



MAHAI INGURUA

PUBLIKOAREN ERAGINA KIROLARIENGAN

ASTEAZKENEAN, IRAILAREN 21ean, KULTURATEKO ARETO NAGUSIAN, 18:30ean

HIZLARIAK:

Intza Lizarazu (Añares Rioja ISBko saskibaloia jokalaria), Jon Salsamendi (Urdaibai Bermeo Arraun Taldeko entrenatzailea), Oihana Kortazar (Mendi korrikalaria), Markel Irizar (Trek-Segafredo taldeko txirrindularia).

AURKEZLEA:

Aitor Elduaen

ANTOLATZAILEA:



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

ArraSasoi
"Hamabi hile, hamaika gai"

KOLABORATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

San Juan Artiako indusketa lanekin jarraituko dute

- Ontzi zatiak eta hilobi bat aurkitu dituzte aurretik egindako katetan
- Urrian bisita gidatua egin gura dute herritarrek lanak gertutik ikusteko

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Ikerketa arkeologikoa egiten hasiko dira urrian San Juan Artian eta iaz ikertutako eremua zabalduko dute. Josu Etkezarraga arkeologo donostiarrak gidatuko ditu indusketa lanak eta esperantza du iaz aurkitutako baino

aztarna zaharragoak topatzeko oraingoan. "Gipuzkoan zehar topatzen ari garenez beste ermita batzuetan aztarna benetan zaharrak VIII. eta IX. mendeetakoak, gure esperantza da hori topatzea San Juan Artian. Miaketa edo ikerketa arkeologiko

horren helburua da Gipuzkoako herrien jatorria eta herrietako auzoen jatorria ezagutzea. Bali-teke San Juan Artian bere garaian herrixka bat egotea, jendea bizitzea eta momentu batean herrixka hori desagertzea, eta ondoren benta egin izana. Baina hori hipotesi bat da eta lana egin behar dugu hori frogatzeko", azaldu du Etkezarragak.

Ermita

Datorren hilean, bizpahiru astez, hiruzpalau lagun izango dira gaur egun desagertuta dagoen ermita ingurua aztertzen. Joan den urtean egin zituzten lehenengo miaketa arkeologikoak edo katak, eta XIII edo XIV. mendeetakoak izan daitezkeen aztarnak aurkitu zituzten; ontzi zatiak eta baita hilobi bat ere. San Juan Artia Gipuzkoa eta Araba arteko ohiko pasabidea izan zen mendeetan. Han egon zen ermita noizean behin erabiltzen ote zen edo ingurua ohiko bizilekua zen jakin gura du arkeologo donostiarrak.



San Juan Artiako indusketak egingo dituzten ingurua. | J.E.



Trikitilariak joan den urteko herriko jaietan. | GOIENA

Herriko jaien parekidetasun maila aztertuko du udalak

O.E. | OÑATI

Oñatin berdintasunarekiko sentsibilitatea dagoela jakitun, herriko jaiak genero ikuspegitik aztertu gura ditu udalak. "Bi diagnosi ezberdin ari gara egiten: bata sexu erasoek eta genero indarkeriak zer eragin duten ikusteko da eta bestea, jaiak eduki sinbolikoekin eta genero tradizionalekin duten harremana eta jaien antolakuntzan eta parte-hartzean emakume zein gizonezkoek duten protagonismoa aztertzea", azaldu du Leire Zumaldek, berdintasun zinegotziak. Lana Farapi elkartearen laguntzarekin ari da egiten udala.

Duela hilabete batzuk hasi ziren azterketa egiten, metodologia kualitatiboa eta kuantitatiboa erabiliz eta herritarren parte-hartzearekin. Jaietako dokumentuak bildu dituzte: aurreko jaietako egitarauak eta aurrekontuak, adibidez; jaiak antolatzen dituzten teknikari eta zinegotziekin elkarrizketak egin dituzte eta Oñatiko jai batzordeko eragileekin talde eztabaida egin dute. Hurrengo pausoa da jaietako lana jasotzea, herritarren parte-hartzearekin. Horretarako behaketa tresna bat prestatu dute eta hilaren 20an azalduko dute, Euskaldun Berria gelan, 18:30ean.

'Gernika' filmarekin hasiko da asteburuan zinema denboraldia

O.E. | OÑATI

Gernika filmarekin hasiko da helduen zinema denboraldia asteburu honetan, Oñatin. Ikasturte berrian ere ohiko ordu eta egunetan emango dituzte filmak eta sarrerak prezio bera izango du; ikuslearen eguna astelehena izango da.

Azken urteetako datuak diote 12.400 lagun inguru joaten direla urtero zinemara Oñatin. Datu esanguratsua eta ona da hori kultura saileko ordezkariendako. Ikusle gehienak astelehenetako eta domeka iluntzeko saioetara joaten dira. "Esfortzu bat egin da azken urteetan

eta saiatzzen gara filma berriak ahalik eta azkarren ekartzen Oñatira", adierazi du Nerea Zubiak, kultura zinegotzia.

Umeena

Orain arte egin den moduan, filmak ohikoak diren ordu eta egun gehiagotan ere botako dituzte, beharra ikusiz gero. Aurten, gainera, baita umeei zuzendutako filmetan ere. "Ez da urte guztian egingo, baina, beharra ikusten denean, domeka eguerdietan beste emanaldi bat egitea ari gara aztertzen", dio Zubiak. Umeena eta zinekluba jaien ostean hasiko dira.



Bizikleten konponketa txikiak egiten ikasiko dute tailerretan. | EKAITZ FILARMENDI

Birzikleta azokarekin hasiko dute bihar Mugikortasun Astea

O.E. | OÑATI

Autorik gabeko nazioarteko eguna da irailaren 22a eta horren bueltan Mugikortasun Asteak antolatu ohi izan dira herri baten baino gehiagotan. Oñatikoa bihar, zapatua, hasiko da birzikleta azokarekin.

Bigarren eskuko bizikletak egongo dira biharko azokan. Astean batutako materiala herritarrendako jarriko dute salgai. Azokako beheko solairuan egongo da birzikleta azoka, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

Bizikletak konpontzeko tailerrak ere antolatu dituzte Mugikortasun Astearen barruan.

Datorren astean egingo dituzte Baibike-ren eskutik eta bizikletei konponketa txikiak nola egin ikasteko tailerrak izango dira. Lehenengoa irailaren 21ean izango da, 17:00etatik 20:00etara, gaztelekuko sotoan; bigarrena tokia eta ordu berean irailaren 22an. Batean edo bestean parte hartu gura duenak izena eman behar du aurretik eta horretarako bideak dira: iiglesias@onati.eus edo 943 78 04 11. Irailaren 22an, gainera, 06:00etatik 21:00etara, autoak ezingo dira herrigunean ibili. 05:45etik 09:00etara, bestalde, gosaria eskainiko zaie lanera edo eskolara bizikletan doazenei.

Berbalaguna ekimenak ere ikasturte berria hasiko du

O.E. | OÑATI

Udaleko Euskara sailak duela hiru urte jarri zuen martxan Berbalaguna ekimena, udal euskaltegiaren laguntzarekin. Euskara ikasten ari diren herritarrei laguntzea da egitasmo honen helburua, euskara hitz eginez praktikatze-ko aukera eskainita.

Egunerokoan euskaraz hitz egiten dutenek eta ikasten ari direnek talde ezberdinak osatzen dituzte. Astean behin elkartzen dira taldeak, bakoitzeko kideek eurek erabakitako egun eta orduan. Eta eurek erabakitakoa egiten dute elkartutakoan: izan daiteke herriko tabernaren batean kafea hartzea edo paseatzera joatea.

Ikasturtea hasiko du egitasmo honek ere eta izen-ematea zabalik dago. Euskara praktikatu gura duten herritarrek zein euskara ikasten ari direnei lagundu gura dietenek eman dezakete izena. Bedita Larrakoetxea udal euskaltegia da horretarako tokia. Irailaren 23a da azken eguna.

Ur txorroten proiektua udarako ez egin izana kritikatu dio EAJk Udal Gobernuari

O.E. | OÑATI

"Uda igaro da eta oñatiarrek, antzuolarrek ez bezala, ezin izan dute ur txorrotez gozatu, Udal Gobernuak ez duelako proiektua martxan jarri". Adierazpen horixe egin du Oñatiko EAJk, prentsa ohar bidez. San Martingo running zirkuitu iraunkorraren inguruan ere ez dutela "aurrerapausorik

eman" gaineratu dute jeltzaleek. Jeltzaleek diote "aurrekontuetan aurkeztutako bi proiektu horiek herritarrek egindako proposamenetatik jasoak" izan zirela eta datorren urtean gauza bera gerta ez gertatzeko, proiektua lantzen eta aukerak aztertzen hasteko laguntza eskaintzen diote Udal Gobernuari.

Hamalau dantza talde elkartuko dira etzi egingo den Haurren Egunean

Bergarakoa eta Tolosakoa lehenengoz datoz

OIHANA ELORTZA | OÑATI
Hamalau dantza talde elkartuko dira domekan ospatuko den Haurren Egunean eta horietako bi berriak izango dira: Bergarako

Moises Azpiazu dantza eskolako gaztetxoak eta Tolosako Udaberrri dantza taldea. "Dantzari asko elkartuko gara. Kanpotik 380 dantzari eta 80 arduradun eto-



Oñatz dantza taldekoak joan den urteko Haurren Egunean. | GOIENA



TXANTXIKU IKASTOLA

Eslovakiatik etorritako ikasleak

KOMUNITATEA GOIENA
TXANTXIKU IKASTOLA
Eslovakiako Kosice hiriko 30 ikasle Oñatin daude Txantxiku ikastolako batxilergoko ikasleek gonbidatuta; euren etxeetan egingo dute egonaldia. Aste betea izan dute, eta, egindako ekintzen artean, gure proiektuak ezagutzeko eta herri kiroletan aritzeko aukera ere izan dute.

rriko dira eta Oñatikoak 250 ume eta 75 arduradun ibiliko gara eurekin batera", aurreratu du Oñatz dantza taldeko Maite Irizarrek.

Eguna ondo antolatzen saiatzen dira beti herriko dantza taldekoak, eta kanpokoek ere ikusten dute hori, oso estimatua da-eta Oñatiko Haurren Eguna beste herrietako dantza taldeetan. Aurten asko elkartuko badi-ra ere, egun osoko egitaraua dute prest. "Atzeko kalean obretan dihardute eta goizeko ibilal-ditxo Otaui zuhaiztitik Foruen plazaraino izango da. Bigarren ibilbidean, berriz, Motxon eta Ultzein kaleetatik Foruen plazaraino joango gara erreka bazterreko bidetik", esan du Irizarrek. Kattin Malbadi izango da aurtengo alkate txikia eta 11:45ean izango da ikuskizuna Foruen plazan dagoen agertokian. Arratsaldeko alardea 17:00etan hasiko da eta ondoren erraldoiak eta buruhandiak ibiliko dira kaleetan zehar.

Etxeetan

Azken bi urteetan herritarren etxeetan bazkaldu dute ume guztiek eta aurten ere horrela izan daiteke. "Arduradunek herriko hainbat elkartetan bazkalduko dute: Pago Uson, Makalena, Nekazarien Elkartean, Batzokian eta Etxaluzen. Litekeena da ume batzuk ere elkarteren batera joatea, baina gehienek etxeetan egingo dute eguerdiko otordua. Eta hori eskertzekoa da. Herri-tarren laguntzarekin da posible Haurren Eguna antolatzea", dio Irizarrek.

'Elkarbusa' egitasmoa hasiko dute Elkar Hezin

O.E. | OÑATI
Elkarbusa egitasmoa egingo dute datorren astean Elkar Hezi ikastetxean, udalak antolatatu duen Mugikortasun Astearekin eta eskolan bertan duten Eskolako Bidea proiektuarekin bat egingez.

Proiektua Lehen Hezkuntzako ikasleei bideratuta dute batez ere eta etxetik eskolara joan-etorriak oinez, modu autonomoan eta ibilbide seguruetatik egitea bultzatzen du, Elkar Heziko irakasleen esanetan. Irailaren 19tik 23ra gauzatuko dute, ikastetxeko goizeko sarrerako ordutegian. Egitasmoaren hirugarren esperimentzia izango dute.

Bi ibilbide

Guztira bi ibilbide antolatu dituzte, bakoitza bere galeku eta ordutegiekin. Talde bakoitza helduek gidatua izango da, eta puntualtasuna oso garrantzitsua dela adierazi dute. Lehenengo ibilbidea Olakua auzotik Elkar Heziraizainokoa da. Ahateen urmaelean elkartuko dira 08:20an, eta Bidaurretan eta San Martin zubian izango ditu geldialdiak. Bigarren ibilbidearen hasiera Bidebarrietan egongo da 08:25ean eta Errementari plazan ere geldituko da.



ELKAR HEZI

Herberehereetatik Oñatira

KOMUNITATEA GOIENA
ELKAR HEZI IKASTETXEA
Herberehereetako Goirle herriko 27 ikaslek eta bi irakaslek astebete pasako dute Oñatin. Askotariko ekintzak burutuko dituzte Elkar Heziko batxilergoko lehenengo mailako ikasle, guraso eta irakasleekin, herria eta inguruak ezagutzeko. Donostian ere izan dira, adibidez.

NIRE USTEZ



JOSU ZUBIA

Txikikeriak eta min handiak

A skotan, zutabetxo hau idaztea egokitzen zaidanean zer idatzi jakin ezinik egoten naiz.

Hala ere, aste honetan aukeratu egin behar. Eta aukera egina dudan arren, ez nuke nahi aipatu gabe utzi PSEren perla... lotsa behar da gero!

Eskainiko nizkioke lerro batzuk bideotxoari. Noski, ETBko debateari ere ni eskainiko *nuketeketen* lerro asko...

Baina harira. Jakina denez, giroa bero-bero dago Oñatin, bertan ditugu jaiak! Aurten, Udaleko Berdintasun Sailak giro hori betaurreko moreekin aztertzeke nahia adierazi du. Aztertuko diren jaiak *San Migel* eta *Errosarixuak* izango dira.

Honen helburua izango da *emakumeen* eta *gizonen* parte-hartze baldintzak aztertzea, aurrera begira jai berdinzaleak egiten ari diren/garen bermea izateko; edo helmuga horretara ahalik eta gehien hurbiltzeko, bederen.

Askorentzako txikikeria da, inportantzia bako gauza bat... Hala ere, pentsa ezazue zuen azken debate sakonetan. Nire artean izandako gehientsuenek, aferaren sakonera joatean, generoaren gaira naramate behin eta berriz.

Hain da konplexua kontua, ezen edozein *txikikeriatan* erreproduzitu eta indartu egiten baita genero-sistema.

Beraz, gaian jantzeko eta txikikeria handiez ohartzeko neu ere irailaren 20an 19:00etan Euskaldun Berria aretoan izango naiz.

Anima zaitetz!

"Gehientsuenek generoaren gaira naramate behin eta berriz"

Zapatuan egingo dute '2057' filmaren aurre estreinaldia, Santa Anan

Bihar, zapatua, egingo dute *2057* film herrikoiaaren aurre estreinaldia. Santa Anan izango da, 22:00etan. Ondoren, festa egongo da gaztelekuan, eta sarrerarekin batera doa festara joateko gonbidapena. Guztira 200 herritar inguruk hartu dute parte ordu-bete irauten duen film honetan. Eurek 20:00etan ikusi ahal izango dute produktu osoa.

Ate irekien saioak egingo dituzte Txaloka ludotekan

Txaloka ludotekan ate irekien jardunaldiak egingo dituzte datorren astean. Hala, irailaren 19tik 27ra, eguneroko funtzionamendua izango du ludotekak, baina herriari zabalduko diote euren lana. Gaur, egubakoitza, bestalde, baratzea landuko dute 16:30ean Foruen plazan. Irailaren 23an festa egingo dute.

Soinu teknikak erakutsiko dituzte musika eskolan

Soinu tekniken tailerra eskainiko dute Jose de Azpiazu musika eskolan. Ikastaro horretan ikasgaiak izango dira, adibidez: mikrofonoak, nahasketa mahaia, ekualizazioa, edizio digitala, auto-konfigurazioa, konektoreak eta efektu prozesadoreak. Izena emateko epea irailaren 15etik 23ra egongo da zabalik.

Sanmigeletako mus txapelketa zapatuan da Portuko plazatzon

Bihar, zapatua, egingo dute San Migel jaietako mus txapelketa. Portu kaleko plazatzon izango da, 16:30ean. Izen-ematea 30 euro da bikoteko; 15:30ean zabalduko dute, eta txapelketa hasi aurretik itxi. Bost sari egongo dira guztira. Horietako bat Oñatiko lehenengo bikotearendako izango da.

Auzoko jaiak ospatuko dituzte San Martinen eta Zañartun

19:00etarako hiru minutu falta direla botako dute etxafuegoa San Martin auzoan jaiak hasiera emateko. Txorimaloak, pintxoak eta kontzertuak egongo dira gaur. Biharko hitzorduen artean, berriz, Aldakiño X-Trem 2.0, 17:00etan. Zañartun, auzoko bazkaria egingo dute domekan 14:30ean; aurretik, meza izango dute.



Autorik gabeko egunaren aurkezpena egin zuten eguaztenean. | ENEKO AZURMENDI

Autoa gutxiago erabiltzeko bidean

Autorik gabeko eguna egingo dute irailaren 22an

ENEKO AZURMENDI | BERGARA
Europako Batasunak deitutako Mugikortasun Astearekin bat eginez, autorik gabeko eguna ospatuko dute Bergaran datorren egunean, irailak 22. Egun osoko egitaraua antolatu du udalak.

Haurrak

Haurrei dagokienez, 10:00etatik 12:00etara, margo-tailerrak eta puzgarriak egingo dira Barrenkalean eta Bidekurutzetan. Horrez gain, bizikleta ibilbide bat ere

egongo da herri guztian zehar. Haurrek beraiek irakurritako manifestu batekin amaituko dituzte goizeko ekitaldiak.

Arratsaldean, berriz, San Martin Agirre plazan puzgarriak izango dituzte, 16:30etatik 20:00ak bitartean.

Helduak

Helduendako ere hainbat ekintza antolatu dira. Goizean, plazatik 10:30ean irtenda, Tipi Tapa txangoa egiteko aukera izango da.

"Udalak makilak jarriko ditu. Beraz, herritarrek arropa erosoak bakarrik ekarri beharko dituzte", azaldu du Nagore Narbaiza udal teknikariak.

Arratsaldean, aldiz, bizikleta eliptikoak eta elektrikoak probatzeko postuak izango dira herriko plazan. Horrez gain, kale-erakusketa bat eta Bergarako MetroMinutu eta soinu mapak egingo dira ikusgai.

Ikastetxeen inplikazioa

Elena Lete alkateak ikastetxe guztien inplikazioa eskertu nahi izan du. "Herriko ikastetxe guztiek mugikortasunaren gaia landu eta hausnartu dute eta kotxea hainbeste ez erabiltzeko kontzientziazio kanpaina bat egitea eskatu zioten udalari. Hain zuzen ere, kanpaina horretatik sortu da kotxerik gabeko eguna", dio. Egun hau bukatzean, ikastetxeekin hausnarketa egingo dutela gaineratu du, datorren urtean hobetzeko zer dagoen ikusteko.

Udalaren konpromisoa

Udalak erabateko konpromisoa azaldu du Mugikortasun Astearekiko eta ingurumenarekiko. "Ondorengo belaunaldiak gure lurraldea ahalik eta egoera onean uztea da asmoa. Horretarako, garraiatzeko ohiturak aldatzea oso inportantea da. Ibilgailu pribatuaren erabilera gutxitzea garrantzitsua da, eta, zentzu horretan, guztiok daukagu zeregina", adierazi du alkateak.

Aste osoaren garrantzia

Narbaizak azaldu du datozen urteetara begira egun bakarrari baino gehiago, aste osoari eman nahi diotela garrantzia. Izan ere, aurtun, "San Martin jaien antolaketa bete-betean" daudenez, egun bakarra antolatu ahal izan dutela azpimarratu du.

'Kilometroak bidea' erakusketa, 'World kafe'-a eta mahai-ingurua, hamabostaldian

ENEKO AZURMENDI | BERGARA
Bihar, zapatua, hasiko da Kilometroak jaia dela-eta egingo den kultura hamabostaldia. Egitarau zabalaren barruan, alde batetik, *Kilometroak bidea* erakusketa egongo da. Gipuzkoako Ikastolen aldeko jaiaren 40. urteurrena baliatu nahi dute antolatzaileek, edizio guztietako irudiak, leloak, argazkiak, abesti zatiak, eta abar ikusgai jartzeko erakusketa honetan. Aroztegi aretoan izango da,

irailaren 19tik urriaren 2ra bitartean. Bestetik, *World Kafe* saioa egongo da, Aranzadi Ikastolan, 09:30etik aurrera. Honen bitartez, elkertasuna hartu eta kultura eman nahi da, jai eredu berria berrasmatu guran.

Mahai-inguru bat ere egongo da, *Eskola Kirol Hezitzailea* izenekoa. Irailaren 19an izango da, Aranzadi ikastolan. Solasaldi honetan eskola kirola ikuspuntu kritiko eta hezitzailetik aztertuko da, 19:00etatik aurrera.

Egitarau osoaren gaineko informazio gehiago kultura orokorreko orrietan dago.

Boluntario beharra

Bestalde, Kilometroak ospatuko diren egunerako, urriaren 2rako, boluntario beharra dagoela jakinarazi nahi izan du Aranzadi ikastolak; zirkuituan, zirkulazioan eta iraunkortasunean –garbitasunean–, batez ere. Horretarako, 943 76 90 71 zenbakira deitu, idazkaritzan izena eman edo kmk16gb@bergara.ikastola.net helbidera idatzi.



Kilometroak 2007an. | GOIENA

Irratixan programa bat egiteko prest?

KOMUNITATEA GOIENA
TXAPA IRRATIA | BERGARA

Irratiaren magiak erakartzen zaitu? Bergarako irrati librean ateak irekita dituzu. Animatu eta etorri gurekin batera proiektuaren parte izatera. Ordua aukeratu, maneiatu behar diren lau botoiak ikasi eta esan herriari esateko duzun hori. Animatu, lotu inguruko lagun bat eta egin irratsaioa, ez zara damutuko. Irailaren 23an, 19:00etan bilduko gara Kartzela Zaharrean. Informatzeko bada ere gerturatu, eta ezagutu irratiaren barrutik. 97.2 Frekuentzia Mokoloan gaude!

OHARRAK

EGUAZTENEKO AZOKA

Baserriko produktuez gain, Pili Arinekin eskulanak, 19:00etan. Pintxo-potea, Eruan tabernaren eskutik.

NIRE USTEZ

JON OLIVARES



Zer egingo zenuke?

Sortzaileak al gara? Noiztik gara sortzeko gai? Noiz arte?

"Todo niño es un artista, el problema es seguir siendo un artista cuando creces", zioen Pablo Picassok.

Sortzeko, aske izatea ezin bestekoa da, epaituak ez izatea, hori baita sortzailetasunaren etsairik handiena, epaituak izatea. Horretan, kulp handia dauka norberak, norbera izaten baita epailerik txarrena. Baina hori nondik dator? Noiz lagatzen diogu sortzeko aske izateari?

Txikitatik moztan dizkigute hegoak, gure sortzailetasuna mugatzen, zer egin behar dugun esaten, egiten duguna epaitzen. Horretara ohitzen gaituzte eta

horrekin batera etortzen dira gure frustrazioak eta beldurrak. Dena arautua eta begirada kritikoez eta zorrotzez inguratuta egoten baita.

Ez daukagu irudimena gartzeko eta sortzeko tarterik. Beraz, ez dut nahi finkatutako araukin jarraitzea.

(.....)

Gozatu espazioaz eta askatu itzazu zure hegoak, astindu ezazu zure irudimena. Lerro ikusezin honetan irudikatu zuk idatziko zenukeena, zuk marraztuko zenukeena, zuk zeuk sortuko zenukeena. Osatu gelditzen den tarte zure sentitzen duzun bezala. Askatu irudimena!



Janaria ere etxera eramaten dugu
Plater gustukoenak:

- Xia-Jiao (ganba-enpanadillak)
- Curry triangeluak okelaz beteta
- Langostino frijituak almendrekin

Etor zaitetz!

☎ 943 25 06 77 • Fraiskozuri plaza 7 (Frontoi parean) • BERGARA



Ingeles klaseak
Matrikula epea zabalik

- Haurrak (2 urtetik gorakoendako)
- Gazteak
- Helduak
- Azterketa ofizialearako prestakuntza
- FCE eta CAE azterketetarako ikastaro trinkoak irailean

Informa zaitetz:
Ibargarai, 31 behea BERGARA
Tel.: 943 76 03 53 • espolon@euskalnet.net



Aitor Zabaleta
Tel.: **606 58 18 10**
www.txipi.com

Amillaga 5, behea - BERGARA

Denetariko hitzorduak jaietako asteburuan

- Musika eta kultura ekimen ugari izango dira domekara bitartean
- Bihar, zapatua, San Martin azoka izango da; aurten, Oxirondo plazan

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA
Atzo gaueko danborradarekin hasita –eguraldiak ez bazuen zapuztu–, hemen dira dagoeneko San Martin jaiak. 500 lagun inguru ziren ateratzekoak danborrak astintzera. Izan ere, aurtengoan hiru konpainia berri batu zaizkie lehengoei: Lokatza txirrindulari elkarte, Demasa konpainia eta gazte talde berri bat. Gaur, txikien txanda izango da. Umeen danborrada 18:30ean abiatuko da Udal Biltegitik. Herriaren erdigu-neko kaleak zeharkatu ostean, San Martin plazara iritsiko dira.

Kultura eskaintza zabala
Jai hauetan kultura hitzordu garrantzitsu ugari izango dira. Gaur iluntzean Korrontzi talde famatuaren kontzertua izango da San Martin plazan.
Bestalde, bihar, zapatua, KEA

ahots taldeak emanaldia eskainiko du 20:00etan Santa Marina elizan. 12 abeslari profesionalak osatzen dute taldea, eta Enrique Azurza da zuzendaria.
Horren ostean, 21:30ean San Martin plazan Allur taldearen dantza ikuskizuna izango da.
Domekan, berriz, aire zabaleko 43. Simon Arrieta margo lehiaketa egingo dute, urtero legez. Sari banaketa 14:30ean izango da udaletxean.

San Martin azoka
Bereizgarri nagusia, danborradekin batera, bihar egingo den San Martin azoka da. 10:00etan, bertako barazki eta baserriko produktuen postuak izango dira Oxirondon. Orain arte San Martin plazan egin izan den arren, aurten udalak gune honen aldeko apustua egin du, azoka bizi-

berritzeko planaren barruan. Bertan, urteroko gazta lehiaketa ere egingo da, eta odolostea dastatzeko aukera ere izango da.
Eguerdirako iragarrita zegoen Berakatz Zopa Lehiaketa bertan behera geratu da, elkarte gutxik eman baitute izena.

Gaueko autobus zerbitzua
Biharko, zapatua, Antzuolatik eta Elgetatik Bergarara joan-etorria egiteko gaueko autobus bereziak jarriko dituzte. 00:30ean hasita, 05:30ak arte orduro autobus bana aterako da, Antzuola-Bergara-Elgeta ibilbidea egingo duena, 04:30ean izan ezik. Aldiz, 04:40an Bergaratik Elgetara joango da autobus bat.
Kontrako ibilbidea egingo dutenak, berriz, 00:00etatik 05:00era bitartean izango dira orduro. Kasu honetan ere,

04:00koak Elgeta-Bergara ibilbidea bakarrik egingo du, Antzuolaraingo joan barik.

Sokamuturra
Gaur, egubakoitza, goizean izango den sokamuturrari buruzko ohar bat kaleratu du Udalak, esanaz 16 urtetik beherakoek eta alkoholaren edo drogen eraginean daudenek edota osasun mentala galdu dutenek ezingo dutela parte hartu. Udal langileek pertsona horiek ikuskizunetik baztertzeko ahalmena izango dute.

Oxirondoko aparkalekuak
Biharko San Martin feria Oxirondo plazan izango da, eta bertako aparkalekuan jarriko dituzte postuak. Ondorioz, feriak irautean duen bitartean ezin izango da han aparkatu.

Bizitza osoan zehar txistulari

Aurpegi ezaguna izango da bergarar askorentzat Ramon Etxaniz txistulariarena.
Bizitza osoan zehar Udal txistulari bandako partaide izan da, gaztetan hasita, eta kalerik kale aritu izan da Bergarako eta auzoetako jaiak musikaz alaitzen.
Hasi zenean, 18 bat urte zituela, bandako partaide bat gehiago zen. Geroago, 1978. urtean, Udal txistulari bandako zuzendari izatera pasa zen. Hala, gaur egun arte horretan aritu da, herriarendako lanean. Orain, baina, txistua gordetzea erabaki du, eta, urte luzeotako lana eskertze aldera, Udalaren omenaldia jasoko du gaur eguerdian udaletxean. Aurretik, 10:30ean, txistularien darian parte hartuko du Etxanizek.



Etxaniz, ezkerretik hasita hirugarrena, 1960ko hamarkadan txistulari bandarekin. | BERGARAKO ARTXIBOA, A.J. IRIGOIEN

JAI EGITARAUA

IRAILAK 16

- 09:00** Sokamuturra
- 10:30** Diana txistulariekin
- 11:00** Meza nagusia San Pedro parrokian
- 11:15** Kalejira bandarekin
- 12:00** Errekortadore eskola ibiltaria
- 12:00** Ramon Etxanizi omenaldia pleno aretoan
- 12:30** Bandaren kontzertua San Martin plazan.
- 18:30** Haurren danborrada.
- 20:30** Korrontzi
- 22:00** Suzko errubarak

IRAILAK 17

- 10:00** Barazki eta fruitu azoka Oxirondon.
- 10:30** Gazta lehiaketa Kataibian
- 11:00** Trikitilarien kalejira.
- 11:30** Odoloste dastaketa.
- 12:00** *Erleak eta ezti*a erakusketa. Erlantz Olabarria
- 12:30** Sendabelar ikastaroa.
- 13:30** Azokako lehiaketetako sari banaketak.
- 17:30** Zezentxoak eta poneyak Seminarioan.
- 18:30** Erraldoi eta buruhandien kalejira.
- 19:30** BKEko saskibalo taldeen aurkezpena
- 20:00** KEA ahots taldea Santa Marina parrokian.
- 21:30** ALURR dantza taldearen ikuskizuna San Martin plazan.

IRAILAK 18

- 09:00** 43. Simon Arrieta margo lehiaketa kultur etxean.
- 09:00** Mendi bizikleta irteera. Labegariaetatik.
- 09:00-14:00** Bergara Hiria Xake txapelketa Agorrosinen
- 11:00 – 14:00 eta 16:00 – 20:00**: Umeendako jolas parkea San Martin plazan.
- 16:30-21:00** 52. Taldekako Adiskidetasun xake txapelketa.

XARMA


Zabaldu berria!

- Lentzeria
- Umeen arropa (0-6 urte)



Matxiategi, 1 - BERGARA Tel.: 943 50 48 34

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

Munibe plaza izango da "jai herrikoien" erdigunea aurtengo sanmartinetan

Xaxau konpartsak hainbat ekimen antolatu ditu astebururako; musika eskaintza zabala izango da

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Aurtengo San Martin jaietako nobedade nagusietako bat Xaxau konpartsak Munibe plazan jarriko duen txosnagunea izango da. Atzo arratsaldean ireki zuten.

Hainbat konpromiso

Xaxau konpartsak, jaietako ekimenak antolatzeaz gain, hainbat konpromiso hartu ditu. Hala, Euskal Herriko ekoizleen artisau garagardoa edota Bergarako sagar zukua eskuratzeko aukera izango da barran. Bestalde, gogoraziti dute ez dutela inongo eraso arrazista, sexista edo homofoborik onartuko.

Zapatu eguerdiko bazkaria bizikletan istripua izan zuen Unai Prieto gaztearen koadrilakoek antolatu dute, eta txartelen salmentatik jasotako dirua berari bideratuko diote.

Bi Bala eta The Riff Truckers

Musikazaleendako gune interesgarria izango da Munibe. Gaur gauean, Bi Bala taldeak 100. kontzertua eskainiko du; hain zuzen, lehendabizikoa ere Bergaran eman zuten, gaztetxean. Bihar, berriz, The Riff Truckers gernikar eza-gunak izango dira taula gainean.



Xaxau konpartsako kideek giroa berotu dute sare sozialetan. | XAXAU KONPARTSA

TXOSNAGUNEKO EGITARAUA

IRAILAK 16

19:00 Txosnen irekiera.

20:00 Moittuai (Arranon).

23:00 Kontzertuak: What A Band eta Bi Bala

IRAILAK 17

12:00 Txosnen irekiera.

14:30 Txomingeroen bazkaria.

Ondoren, karaokea.

18:00 Txaranga poteoa.

23:00 Kontzertuak: Asea eta The Riff Truckers.

IRAILAK 18

18:00 Auzolana.

Idoia Agirrezabal | Pala jokalaria

"Polita da etxean, lagunak eta gertukoak aurrean, jokatu ahal izatea"

Aroa Elortzarekin batera jokatu du bergarar gazteak domeka honetako pilota jaialdian

M.T. | BERGARA

Domeka honetan, hilak 18, San Martin jaien baitan pilota jaialdia antolatu dute lehendabizikoz. Hiru partidu jokatu dituzte, bi eskupilotan eta hirugarrena palan, eta emakumezko kirolariak izango dira protagonista.

18:00etan hasita, infantil mailakoek eskuzko partidua izango da lehenik: Maddi Unanue/Aisha Etcheberria-Maddi Berrokal/Uxue Zubizarreta (etxeko pilotaria). Jarraian, nagusiak etorriko dira: Patri Espinar/Maddi Mendizabal-Amaia Aristegi/Mirian Arrillaga. Gazte mailakoek pala partidua borobilduko du jaialdia. Garaiz Urdangarin eta Naia Eizmendi hernaniarrak etorriko dira etxeko Aroa Elortza eta Idoia Agirrezabalen aurka jokatzera. Elortzaren ordez Maider Guridik jokatu zuela iragarri bazuten ere, eskuko lesio bat dela-eta ez da frontoian izango. **Lehen aldia izango da horrelako jaialdi batean jokatu duzuenak?** Bai; orain arte ligako partidua jokatu ditugu, baina jaialdi baten ez dugu parte hartu. Uste dut positiboa dela emakumezkoen jaialdiak antolatzea, gaur egun gutxi gabiltza-eta pilotan. Agian, horrelako partidua ikusita, jendea animatu daiteke. **Polita da San Martin jaietan nork**



Idoia Agirrezabal. | ARANTZAZU EZKIBEL

bere herrian jokatzeko?

Bai, polita da. Niretako, herrian jokatzeko beti da kanpoan jokatzeko baino hobea. Are gehiago, nire kasuan, urduritasuna handiago izaten da kanpoan jokatzeko. Etxean, lagunak eta gertukoak egongo dira ikusten, eta hori polita izaten da.

Ezagutzen duzue aurkari izango duzuen bikotea?

Bai; guk eskatu genuen Hernaniko bikote baten aurka jokatzeko, eta hala jarri digute. Inguru horretan hemen baino jende gehiago dabil palan, Deba ibarrean baino gehiago, hemen inguruan Bergaran gabiltzan bostok bakarrik gaude eta. Dena den, Gipuzkoan gabiltzan ia guztiok jokatu izan dugu elkarren kontra.

Etxeko musikariak taula gainean

Herriko musika taldeek presentzia nabarmena izango dute datozen egunotan txosnagunean. Dena den, Xaxau antolatutako gaurko lehen musika hitzordua Arranon izango da, 20:00etan hasita, Moittuai taldearen eskutik. Aurten sortutako taldea da, 16 eta 17 urteko gazteez osatua, eta euskal kantuen bertsioak egiten dituzte.

Gauean, berriz, What A Band izango da zuzenean. Talde hau ere aurten sortutakoa da, baina Fiachras edota Brigada Criminal taldeetan aritutako musikariek osatzen dute, agertokian urteetako esperientzia daukatenak. *Soft and strong* da beraien lehen lana.

Bukatzeko, bihar, zapatua, Asea taldearen street ska eta reggae doinuez gozatzeko aukera izango da Muniben. Honako hau ere talde gaztea da, eta herrikideak dantzan jartzeko gogoz etorriko dira.



Argazkioinaxx. | ARGAZKILARIAXXX

BTT martxa eta xakea, sanmartinetako kirol hitzorduen artean

Domekan, 09:00etan Labegaraieratik abiatuta, Palmera-kuak taldeak antolatuta mendi bizikleta martxa izango da. Bestalde, goizean zehar Bergara Hiria xake txapelketa jokatu du Agorrosinen. Arratsaldean, 16:30ean hasita, taldekako adiskidetasun xake txapelketa izango da.

Dantza solte txapelketa izango da hilaren 23an frontoian

San Martin jaien testuinguruan, Moises Azpiazuren omeneko nagusien dantza solte txapelketa egingo dute irailaren 23an, egubakoitza, Udaltalekuan (19:00). 31. edizioa izango da, eta Saioa Galarra eta Julen Murgiondo bergararrek osatutako bikoteak hartuko du parte.

UGARTE
AROTEGIA - ALTZARIAK

ALTZARI DENDA

Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

AROTEGIA

San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA

aroztegia@ugartearoztegia.com



Ondo ibili sanmartinetan!

Proiektuak · Koltxoak
Horma-Armairuak
Altzariak neurria
Ateak · Eskailerak · Leihoak ·
Tarimak · Egur lanak





Jesus Mari Larrañaga Gindi –baloiarekin–, Realeko beteranoen taldearekin. | GOIENA

Realeko beteranoak, besteak beste, 'Gindi' omentzeko, 24an

Futbol partiduak izango dira, eta bazkaria ere bai Seminarioko karpan

JULEN IRIONDO | BERGARA
Jesus Mari Larrañaga *Gindi*. omentzeko eguna izango da hurrengo zapatua; era batera edo bestera futbolarekin lotuta urte mordo eman eta gero eta dagoneko entrenatzaile lanak utzita, bere kirol ibilbidea aitortzeko egingo dute ospakizuna. Bergaran, Realean eta Eibarren, zelaian

eta aulkitxoan ibilitakoa da Gindi, eta hiru klubetako ordezkariak izango dira omenaldian.
Kirol ibilbidea
1965ean Bergarako gazte mailako taldean hasi eta lau urte egin zituen herriko taldean jokatzen. 69-70 denboraldian Realera joan zen, bigarren taldera, eta handik

hamarkada batera liga txapeldun izan ziren hainbat jokalarirekin jardun zuen han –Arkonada, Kortabarria, Olaizola...–. Lehenengo taldearekin entrenatzera eta aurre-denboraldia egitera ere iritsi zen, nahiz eta jokatzer ailegatu ez. 74-75 denboraldian Eibarren jokatu zuen Realak utzita, 2.B Mailan, eta handik Bergarara

itzuli zen berriz. 1978ra arte jokatu zuen, eta beste bi urte egin zituen entrenatzaile, lehenengo taldea 3. Mailara eramanez. Ondoren utzi, baina beste bi alditan ere ibili zen mutikoak entrenatzen, bost eta zortzi urtez, hurrenez hurren, 80ko hamarkada amaieran eta hurrengoaren hasieran, eta 2015ean utzi zuen arte azkena. Aldi berean, 2013ra arte Realeko beteranoen entrenatzaile ibili zen hogeitatu urtez –urtebetez jokatu ere egin zuen–.
Eta, hain justu, Realeko beteranoei sortu zitzaizen omenaldia egiteko ideia. Herriko talde A Ze Flaxakoak –haien bueltan ere ibilia da– ere batu zitzaizkien, eta Gindiren lagun talde batek ekin zion antolatzeari: "Askok ezagutzen eta maite dugu Gindi", dio Fernando Juaristik.

Egitaraua
Hurrengo zapatuko jaiarekin hasteko, 10:00etan Agorrosinen, 2007 eta 2015 artean gazte mailan Gindi entrenatzaile izan zutenen arteko partidua izango da; 11:30ean egingo dute omenaldia, eta 12:00etan Realeko beteranoen eta Bergara eta A Ze Flaxa taldeetako jokalariei beteranoz osatutako konbinatu baten arteko partidua izango da; 14:45ean, azkenik, bazkaria egingo dute Seminarioko karpan. 20 euroren truke eman daiteke izena bazkarirako, hila-ren 20ra arte, 630 62 61 30 zenbakian. Gorritz, Salva Iriarte, Idigoras, Uralde, Fuentes, Uria... espero dituzte zapatuan herrian.

BKEren saskibaloi taldeak aurkeztuko dituzte bihar plazan

19:30ean izango da. Aurrena banan-banan aterako dira taldeak, baita saskibaloi eskolakoak ere, eta denek batera argazkia egingo dute amaitzeko. Zazpi talde ditu aurten BKEk, mutilenak hiru –seniorrak, juniorrak eta kadeteak– eta neskenak lau –juniorrak, kadeteenak bi eta infantilak–, 125 jokalaririk inguru denera, eta infantil nesken beste talde bat sortzeko aukera ere badago oraindik. Iazkoarekin alderatuz, aurten ez da infantil mutilen talderik izango.

Pol Polekoen hurrengo irteerak, Anboto eta Madrilgo mendietara

Gazte taldearen hurrengo irteera irailaren 25ean izango da. Kanpazar, Besaide, Tellamendi, Anboto eta Urkiola arteko bidea egingo dute, 18 kilometro denera –zazpi ordu inguru egingo dituzte oinez–. Hasierara autobusez joango dira; 08:30ean irtengo da geltokitik. 10 euro ordaindu behar dira. Beteranoen taldeari dagokionez, berriz, hurrengo irteera urriaren 7tik 9ra izango da, Madrilgo mendietara, Navacerradara eta Ayllongo mendilerroa.



Bergarako udala



Ondo pasau San Martin jaiak!

Bilketa sistema berria irail amaierarako

Organikoaren eta errefusaren edukiontzien txartelak irailaren 19an hasiko dira banatzen Santa Ritan

IMANOL BELOKI | ARETXABALETA

Aretxabaletako Udalak hondakinen bilketa sistema berria irailaren amaieran jarriko du martxan, San Migel jaiak amaitu ondoren. Hala adierazi zuten atzo Aretxabaletako alkate Unai Elkorok eta Mankomunitateko Hondakinen Kudeaketako batzordeburu Lander Arregik.

30 gune izango dira, 120 edukiontzi guztira, eta organikoaren eta errefusaren edukiontziak irekitzeko txartelak, berriz, astelehenetik, irailaren 19tik, aurrera hasiko dira banatzen Santa Rita Komentua zen eraikinean. Zonaka banatuko dituzte, eta bandoaren bitartez jakinaraziko zaie herritarrei zein egunetan tokatzen zaien hauen bila joatea.

Ostalariei eta dendariel

Aretxabaletan, berrikuntza moduan, ostalariek eta dendariak ere jasoko dute errefusa eta organikoa irekitzeko txartela, eta hauei bandoa eskura emango zaie. Bestalde, norbaitek ezin badu txartelaren bila joan egokitutako egunean, Durana kaleko informazio bulegora joan beharko du.

Guztira, 3.324 erabiltzaile dade txartelen bila deituak. "Proba bat egingo dugu zer moduz doan jakiteko, eta beste herrietara ere zabalko nahi dugu. Hau egitearen arrazoiak da beste herrietan eskae-



Lander Arregi eta Unai Elkorok edukiontzien guneak seinalatzen. | I.B.

rak izan ditugula...", adierazi du Lander Arregik, Mankomunitateko Hondakinen Kudeaketako batzordeburuak.

Sarraila berriak

Txartelarekin ireki behar diren edukiontzien sarrailak ezberdinak izango dira beste herriei alderatuta. "Bergara, Arrasate eta Eskoriatzako edukiontziak berdinak izango dira, baina txiparekin atea kontrolatzen duen sarraila berria da Aretxabaletan. Uste dugu erosoagoa izango dela, arinagoa delako. Atea ireki eta pisuarekin jausi egiten zela badakigu; hala ere, garapen berri bat da eta

bere arazoak ere izan ditzake...".

109.860 euroko aurreikuspena

105.560 euroko kostua izango dute edukiontziek, eta, beste gastu batzuei dagokionez -muntaia egiteko pabiloia alokatzea eta edukiontziak sartzeko kamioiaren alokairuak-, guztira, 109.860 euroko inbertsioa egingo dela aurreikusten da.

"Bestalde, ontzi arinen ekoizpena handitu egin da, eta, behar izanez gero, gehiago jarriko ditugu. Hala ere, printzipioz, gune bakoitzean bost izango dira", adierazi du Lander Arregik.

Bizikletaren bueltan antolatu dute Mugikortasun astea Aretxabaletan

Martxa, azoka eta bizikletak konpontzeko tailerra izango da

I.B. | ARETXABALETA

Mugikortasunaren Europako astearen baitan, irailaren 16tik 22ra bitartean, hainbat ekintza antolatu ditu Aretxabaletako Udalak, guztiak, bizikletaren ingurukoak.

Lehenengo hitzordua domeka honetan izango da. Guraso Foroak eta Aretxabaletako Udalak antolatuta, 10:00etan, Herriko Plazatik irtenda -Aretxabaleta, Urkulu, Torrebaso, Aretxabaleta- bizikleta martxa egingo da. Gainera, Bainuetxean, Urkulurako bidea hartzerakoan, Eskoriatzatik datozenekin bat eginda igoko dira gorantz.

Irailaren 21ean, eguaztenean, berriz, bigarren eskuko bizikleta azoka egingo da Herriko Plazan, 17:30etatik 20:00etara bitartean. Aldez aurretik egoera onean dauden materialen bilketa egingo da Udaleko biltegian (Arkupe



laz, Mugikortasun asteko bigarren eskuko bizikleta azoka. | GOIENA

ondoan), eta salneurria jabeak jarriko du.

Bizikleta konponketa tailerra

Irailaren 21ean, bigarren eskuko bizikleta azokaz gain, bizikletak konpontzeko tailerra ere egingo

da Herriko Plazan 18:00etatik 19:00etara bitartean. Bertan, Lizarralde Kirolak dendakoak izango dira, konponketa txikiak egiten ikasteko ikastaroa ematen. Gurpilen zultzeak, kate mantentzea... nola egin irakatsiko dute.

NIRE USTEZ

BEÑAT ZAMALLOA AKIZU



Kalea jolasteko balitz bezala

Ezustean harrapatu ninduen lagunaren erantzunak. Mitarteko plazan aretxabaletartutako haurrak eta gaztetxoak zebiltzan jolasean. "Badakizue zer den eurengandik gehien gustatzen zaidana?", galdetu zigun. Laguna euskaltzalea izanik, euskaraz aritzen zirela erantzungo zigulakoan nengoen, baina ez: "Kalean jolasten dutela". Hori esan zuenean gogoratu nuen uda hasieran, ilundu herritan, nola aretxabaletartutako gaztetxo helduago batzuk Durana kalean gora eta behera ibili ziren lasterka

jolasean libre-libre eta poz-pozik.

Francesco Tonucci pedagogoa irakur zitekeen abuztuan El Pais-en (bideoa ere badago) haurrentzat eta gaztetxoentzat etxea kalea baino arriskutsuagoa izan zitekeela adieraziz. Tonuccik kaleko abentura, kalea euren kabuz deskubritzea eta kalean euren arriskuak hartzea aldarrikatzen zuen, besteak beste.

Mugatu ditugu kontrolpeko guneetara, kalean libre jolasten ikusi eta harritzeraino. Arriskua inoizko txikiena denean, beldurtu egin gaituzte, eta, elkarbizitzaren izenean, isiltasun eske ere ari gara kaleetan, kaleak haur eta gaztetxoentzat ere ez balira bezala. Kalea libre jolasteko ez balitz bezala.

"Tonuccik kaleko arriskuak hartzea aldarrikatzen zuen"

Jaioberriei bertso liburua egingo zaie

I.B. | ARETXABALETA

Aretxabaletako Udalak eta Aretxabaletako Lekaixoka bertso-eskolak, 2015ean jaiotako haurren gurasoei eta tutoreei elkarlanean, haur jaioberrien bertso liburua egingo dute aurten ere.

Liburuxkan, umearen argazkia eta bertso pertsonalizatu bat joango da. Bertso-eskolako kideak arduratuko dira haur bakoitzari bertso bana idazteaz, eta liburua gurasoei edo tutoreei helarazitako argazkiekin eta diseinatzailearen ilustrazioekin jantziiko dira.

Izen emate kanpaina irailaren 30ean bukatuko da, liburuxkarako; beraien izen-abizenak, jaioteguna, argazki bat, telefono kontaktua bat eta umeari buruzko informazio pixka bat (nolakoa den, zer gustuko duen, familiari buruzko datuak, portaerak, anai-arrebak...) bidali behar dituzte lekaixoka@gmail.com helbidera.



lazio liburua. | LEKAIXOKA

Abenduaren 1ean entrega

Liburuxka entregatzeko ekitaldia abenduaren 1ean Zaratza Aretoan egingo da, 18:30etan. Sorpresatxo bat ere egongo da, eta ondoren luntzarekin amaituko dute.

Ekitaldira joateko aukerarik ez dutenek, aldiz, beste bide batetik jasoko dute. Modu horretan, urte berean jaiotako haurren oroigarri polit bat jasoko dute.

Areskoren hirunako saskibaloi txapelketa, gaur, 17:00etan, Mitarten

I.B. | ARETXABALETA

Aresko Saskibaloi Eskolak antolatutako hirunakoa gaur izango da, 17:00etan, Mitarte kalean.

Gaztetxoak saskibaloira gerturatzeko asmoz, 2007-2008 urte bitartean jaiotako neska-mutilek hartu ahalko dute parte, eta baita 2003-2006 urteetan jaiotako neskek ere. Bestalde, hiru edo

lau pertsonako taldeek jokatu ahalko dute gehienez eta partiduek zortzi minutuko iraupena izango dute.

Parte-hartzaile guztiek opari bat jasoko dute amaitzean, eta jokalariei kopuru minimoa osatzen ez dutenek edo bakarrik daudenei taldea osatzen lagunduko diete antolatzaileek.

Uda sasoiko eskaintza onenekin dator Ixadebalde

Hamalau postu izango dira Mitarte kalean —euria bada, pilotalekuan—, 10:00etatik 20:00etara

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Aretxarte merkatarien elkarte-ko komertzioak eskaintzarik onenekin aterako dira kalera bihar, zapatua. Mitarte kalean jarriko dituzte postuak —euria eginez gero, Iturrigorri pilotalekuan—, 10:00etatik 20:00etara bitartean.

Taberna jatekoarekin

Hamabi merkataria izango dira; hona hemen: Amaia ume denda; Asensio; Atai; Belar Meta; Han-kabeltz; Haurrak; Kilima; Kioskoa; Mari Merke; M5; Tinta Beltza; eta Titare. Horiekin batera, egongo dira UDAkoak bazkide txartelak banatzen (goizean) eta Kurtzebarri eskolakoak zartaginak eta poltsak saltzen, ikasleen bidaiarako dirua lortzeko. Bedarretak, oster, taberna jarriko du eta jatekoa eta edatekoa eskaini. Eta umeek puzgarriak izango dituzte egun guztian, globoflexia eguerdian eta eskulan tailerrak arratsalde partean.



Herritarrak eskaintzei begira Ixadebalde azokan. | IMANOL SORIANO

Bizi, erosi, Atxabaltan leloa duten poltsak banatuko dituzte bezeroen artean: "Batzuk papezkoak, eta besteak hondakin organikoendako baliagarriak direnak", jakinarazi du Idoia Elexpuruk, Aretxarteko presi-

denteak. Poltsa horiek Aretxarteko gainerako dendetan ere izango dituzte zapatuan. Elexpuruk gaineratu du: "Aparteko eskaintzak izango ditugu beste behin, eta giro paregabea. Hor-taz, herritarrok gertura zaitezte".

Ramon Eraña omenduko dute etzi, domeka, Ojala Zelain

M.A. | ARETXABALETA

Domekan, hilaren 18an, beteko da urtebete Ramon Eraña Gallastegi hil zela. Mila saltsatan jardundakoa —Loramendi dantza taldea, atletismo taldea, odol emaleen elkarte, txistularia, euskaltzalea...—, Aretxabaleta aldean oso maitatua izan zen; horregatik, senideek eta gertuko lagunek oroitzapen ekitaldi xumea antolatu dute. Domekan izango da, Ojala Zelain, 12:00etan, eta senideek iragarri dute herritar guztiei zabalik egingo dela.

Ramon Erañaren errautsak botako dituzte Aozaratzan



Ramon Eraña. | ERAÑA FAMILIA

dagoen zelaian, eta, hainbat kantu eta dantza eskainita, *Txino Dantza*, besteak beste, hura izango dute gogoan.

OHARRAK

'ALGO MÁS QUE MORIR'

Maite Marcos aretxabaletarrak parte hartu zuen *Algo más que morir* (2014, 74 min.) filma emango dute bihar, zapatuan, Arkupen. Bi emanaldi izango dira: 18:00etan eta 20:00etan. Sarrera, 2 euro.

'HAURRAK ETA GORPUTZ ESPRESIOA' IKASTAROA

Haurraren gorputza, emozioak eta adierazpena garatzeko espazioa egokituko du Jaiki elkarteak 5 eta 10 urte bitartekoendako. Irailaren 27an hasita martitzenetan izango dira eskolak (17:15-18:15). Izena emateko bideak: 688 84 37 01 (whatsapp) eta jaikielkar-tea@yahoo.es.

Kulturari eskainitako hamabostaldia egingo dute Basotxon

M.A. | ARETXABALETA

Kulturari hainbat egun eskaini izan dizkiote irailean Basotxo erretiratuen elkarteko kideek, eta oraingoan hamabostaldia antolatu dute. Hitzaldiak (Basotxoko aretoan), irteerak eta beste hainbat ekitaldi izango dituzte astelehenean, hilaren 19an, hasi eta 30a bitartean.

'Paziente bizia' hitzaldia

Osasunaren gaineko hitzaldia-ekin hasiko dute hamabostaldia: *Paziente bizia*. Aretxabaletako erizain ohi Arantza Landaluzek hainbat argibide emango dizkiete erretiratuei (18:00).

Martitzenean, iaz ere gonbidatu izan zuten Felix Ajuria artzain eta gaztagilea etorriko da. Idiazabalgo gaztaren azterketa egingo du lehenengo eta probatzeko eman gero (18:00).

Eguaztenean, Basotxoko kantu taldeak emanaldia eskainiko du (Basotxoko kafetegia, 18:15). Eguenean Aralar inguruak (Nafarroa) ezagutzera joango dira. Eta egubakoitzean beste hitzaldi bat izango dute: *Elektrizitatea eta gasa*. Kontsumobideko kideak

etorriko dira (18:00). Domekan, San Migel jaien barruan, oster, laugarren doke txapelketa jokatuko dute (Basotxoko lorategia, 11:00). Aurrekoetan legez, Aretxarte, Loramendi, UDA eta Basotxo izango dira nor baino nor gehiago.

Txokolate-jana eta dantzaldia

Irailaren 26an, astelehena, iazko ikasturtean egindako bidaien eta ekitaldien gaineko argazki emanaldia izango dute (18:00). Martitzenean, bilera egingo du Basotxoko batzorde zuzentzaileak (15:30), eta eguaztenean, Ordiziar joango dira. Azoka eta Delikatuz orientazio zentroa bisitatu dituzte han (Azbe, 10:00).

Eguenean, hilaren 29an, Kontsumobidekoen eskutik beste hitzaldi bat izango dute: *Produktuen bermeak eta arreta teknikoaren zerbitzua*.

Eta egubakoitzean, kultura hamabostaldiari bukaera emateko, ekitaldi bi izango dituzte: batetik, Larrino eta Aozaratz auzoetara irteera (09:00) eta bestetik, txokolate-jana eta dantzaldia (Basotxoko kafetegia, 18:00).

Kepa Akixo eskultoreak 'Silences' liburua aurkeztuko du martitzenean

M.A. | ARETXABALETA

Urte askoan Miarritze aldean bizi den Kepa Akixo —*Zigor* ezizenarekin ezaguna— (Aretxabaleta, 1949) eskultoreak *Silences* liburua aurkeztuko du datorren martitzenean, hilaren 20an, 19:00etan, Arkupen.

Diziplina askotako artista

Batez ere, eskulturgintzan da ezaguna Akixo, baina olerkari-tzan, marrazkigintzan eta argazkilaritzan ere jardun izan du. 70eko hamarkadan, esaterako, poesian jardun zuen eta hainbat olerki argitaratu zituen *Maiatz* aldizkarian.

Eskultore ibilbidea 80ko hamarkadan hasi zuen. Autodidakta da eta Remigio Mendibururen (Hondarribia, 1931) eragina izan zuen eskulturan hasteko orduan. Zuhaitzetako enborrak eta altzairua erabili izan ditu, batez ere, eta haren eskultura bana daude Aretxabaletako udal-txean eta Arkupe kultura etxean.

Lehenengo liburua, oster, 1994an kaleratu zuen, *Eskulturak*, eta ondoren beste hainbat etorri dira. Azkena da *Silences*, paisaiekin eta erretratuekin osatutako argazki liburua. [Erreportaje zabala gaurko *Puntua* aldizkarian]

Ilargi plazako murala aurkeztuko dute domeka eguerdian

Gu Haziak Gara elkarteak eta herriko emakumeen elkarteak uztailean margotutako murala aurkeztuko dute domekan, hilaren 18an, 11:45ean, Ilargi plazan. Ekitaldia musikarekin girotuko dute, eta muralaren gaineko proiektzioa eman. Umeek tailerrak izango dituzte eta antolatzaileek mokadutxo eskainiko dute gero.

Jou Díaz
Harakina
Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

LANA • FISKALITATEA • KONTABILITATEA • JURIDIKOA-ABOKATUAK

zenbaki
aholkulariak-abokatuak

30 urteko eskarmentua fiskal, kontabilitate, lan eta merkataritza arloetan, enpresen, autonomoen, partikularren eta enpresa bat sortu nahi dutenen zerbitzura

Basabe Industrialdea Pab. FO - 10. bulegoa • 25 Postakutxa
20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa) • Tel.: 943 71 21 12 www.zenbaki.eus

30
1986-2016

Aresko Saskibaloia Eskola hasi da entrenamenduekin

Hirunako saskibaloia txapelketa jokatu da gaur, 17:00etan, Aretxabaletako Mitarte kalean

I.B | ESKORIATZA

Astelehenean hasi ziren Aresko Saskibaloia Eskolako lehen entrenamenduak, eta saskibaloian jokatu nahi duenak ateak zabalik izango ditu taldearen parte izateko. 2003 eta 2008 artean jaiotako neska-mutilek aukera izango dute horretarako *eskoriatz.aresko@gmail.com* helbidera izena, abizena, telefono zenbakia eta jaiotza-data bidalita. Entrenamenduen ordutegiak, mailak, *eskoriatzake.com* webgunean daude ikusgai.

Hirunako txapelketa

Gaur, Aretxabaletako Mitarte kalean egingo da hirunako saskibaloia txapelketa. 17:00etan hasiko da, baina 16:00etan izena eman beharko dute Mitarten bertan.

Saskibaloiaz arratsalde on bat igaro nahi duten 2007-2008 urteetan jaiotako neska-mutilek hartu ahaliko dute parte. Eta baita 2003-2006 urteetan jaiotako neskek. Baina azken hauek ez daukate aurrez izena eman beharrik izango.



Aresko taldeko jokalaria baloiarekin. | IMANOL SORIANO

Aurrera doaz 'Ostegun Bidaiariak' egitasmoko hirugarren edizioako kontakizunak

Ostegun Bidaiariak egitasmoaren barruan, *Ibiza Piraguan* bidaia kontakizuna egitekoak ziren Ibarraundin Ander Agiriano, Manex Agirregabiria eta Xabier Arenazak atzo gauean, eguna, azken ordukorik ezean. Hurrengo, berriz, Zaldibar antzokian izango da irailaren 22an, 21:30ean. Aintze Lucero eta Gotzone Elordik *Namibia, Botswana eta Victoria Ur-jauziak* bidaia kontatuko dute. Aurtengo uztailan egindako abenturan bizitakoak, paisaia eta safari ederrak, etnia ikusgarriak... kontatuko dituzte.

Herritarren beharrak egokiago asetzeko asmoz, astelehen goizetan zabalik izango da kiroldegia

Ikasturte berria hastearekin batera, Eskoriatzako Manuel Muñoz kiroldegian ordutegi berria egongo da. Orain arte astelehenetan 14:00etan zabaltzen zen kiroldegia, baina aurrerantzean, gainontzeko astegunetan moduan, goizez ere zabalik egongo da. Hau izango da herritarren beharrak egokiago asetzeko asmoz antolatutako ordutegi berria: astelehenetik egubakoitzera 07:30etatik 21:00etara; zapatuetan 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara; domeka eta jaiegunetan 09:00etatik 13:00etara.



Iazko Mugikortasun Astea, Eskoriatzatik Urkulurako bidea hartu zuteneko une bat. | IMANOL SORIANO

Mugikortasun Astea kirola eta natura izango dira nagusi Eskoriatzan

- Irailaren 16tik 22ra bitartean ospatuko da aurtur
- Natura eta artea batzen dituen 'Landart' egitasmoa da aurtengo berrikuntzetako bat

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Aurreko urteetan moduan, aurtur ere, Europako Mugikortasun Iraunkorraren Astea ospatuko da irailaren 16tik 22ra bitartean Eskoriatzan. Edozelan ere, aste horretatik kanpo, aurretik zein ostean hainbat ekintza egingo dira. Herritarren artean autoa albo batera utzi eta era osasungarrian mugi daitezen bultzatze-ko antolatuko da.

Gaur, goitibehera tailerra egingo da 18:00etan, Luis Ezeizako patioan. Irailaren 24an, Apotzagako goitibehera jaitsiera egingo da, eta parte hartu nahi dutenek beraien ibilgailua puntuan jartzeko erabilgarri izango dute tailerra. Birziklatutako materialekin egingo da, eta goitibehera-zaleak diren hainbat herritar izango dira etxean egin ezin dituz-

ten gauzak egiteko laguntza eskaintzen; soldatzen, esaterako. Bestalde, goitibehera lasterketako araudiaren inguruko azalpenak ere emango dituzte.

'Land Art' familian egiteko

Bihar, berriz, naturaren elementuekin artelana eraikitze-ko aukera izango da Luis Ezeizako patioan, 17:00etan. Hezkuntza Foroak antolatuta, familiei zuzenduta dago, eta sormena, lankidetzeta natura batuko dituen ekintza izango da. Maider Etxaniz gazteria teknikariaren esanetan: "Lehenengo, ideia zaparrada egingo da, zer eraikiko den aukeratzeko. Ondoren, nola eraikiko den pentsatuko da, denen artean eraikiz. Familian eta beste familia batzuekin batera ondo pasatzeko ekintza izango da eta arro-

pa erosoak, zaharrak, eramatea gomendatzen da. Eguraldi txarra egiten badu ere, ekintza burutuko da, Luis Ezeizako aterpean, edo, bestela, bolatoki zaharrean".

Irailaren 18an, domekan, berriz, Eskoriatza-Urkulu-Torrebasa-Eskoriatza bizikleta martxa egingo da. Familian egiteko irteera izango da, eta 10:00etan Herriko Plazatik irtengo dira. Aretxabaletatik ere ordu berean irtenda, eta Bainuetxean, Mendiola auzorako bidea hasten den lekuan, batu ondoren, Urkulurako bidea hartuko dute bidegorrian gora. Ondoren, Torrebason geldialdia egingo dute, eta hamaiketako banatuko da parte hartzaileentzat. Azkenik, bertatik, nork bere etxerako bidea hartuko du.

Badatuz goitibeherak

Irailaren 24an, zapatuan, Apotzagako goitibehera jaitsiera izango da, 15:00etan hasita. Eskoriatzako Goitibehera Zaleak taldeak antolatutako lasterketak lau urte beteko ditu aurtur, eta Apotzaga auzotik Intxaurtxueta auzorainoko 1,4 kilometroko bidea egingo dute parte-hartzaileek.

Lasterketan parte hartu nahi duenak Euskal Herriko Inertzia Kirolen Federakuntzaren webgunean dagoen eskuorria bete beharko du. Hain zuzen, Open Norteko txapelketarako eta Euskal Ligarako puntuagarria izango da. Hori dela eta, besteak beste, Kantabria aldekoak izango dira Eskoriatzan.



Aingeru Guarda ibilbidea, 23

IBILTARIK
CAMPER EKI-PAMENDUAK

627 140 961 | furgo@ibiltariak.com

20540 Eskoriatza, Gipuzkoa

www.ibiltariak.com

Urtea bukatu aurretik komunak martxan

Bigarren faseko lanen barruan, harrera eta administrazioa behera jaitsiko dituzte

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA
Udaletxeko igogailua martxan da, nahiz eta oraindik kanpoaldean (argiteria...) txukuntze lanak egitea falta den. Zortzi lagunendako lekua dauka (630 kilo) eta lehen baserritarren buzoiak zeuden tokitik dauka sarrera igogailuak. Buzoiak, aldiz, aguazila zegoen tokira pasa dira. Hain justu ere, baserritarrek aurreantzean malgutasun handiagoko ordutegiaz izango dute-eta buzoietara joateko aukera. "Igogailua eginda dago, eta ibili badabil. Kontua da sarrera oraindik egokitu barik dagoela, ondoan egongo diren komunetako lanak hasi barik daudelako", argitu du Antzuolako alkate Beñardo Kortabarriak.

Izan ere, prozedura-arazo batek komunak egiteko obra atzeratu duela azaldu du alkateak: "Bereziazko diru-kontuen partida batekin ordaindu behar zen komunak egiteko obra; baina ez zegoen aurtengo kontuetara pasatzeko prozedura ondo eginda. Hortaz, deitutako lehiaketa bertan behera geratu zen. Orain, prozedura behar bezala eginda, astelehenean bertan sinatu nuen lehiaketarako baldintza-plegua". Hala, komunak egiteko aurrekontua 40.000 (BEZa barne) eurokoa dela dio.

Lehen fasea bukatzeaz
"Hala, urtea bukatu baino lehen komunak bukatuta egongo dira, eta igogailua erabilgarri. Argi dago obra bukatzen denean irisgarritasun hobea izango duela udaletxeak", gaineratu du.

Bigarren fasea egiteko
Etorkizunera begira, baina, harrera, besteak beste, behera ekarriko dute eta sarrera eskurago izango dute antzuolarrek. "Egin-



Lehen faseko irisgarritasun lanak urtea bukatu aurretik egingo dira. | M. ARREGI



Buzoiak kanpoan daude orain. | M.A.

da dagoen planifikazioaren arabera, udaletxeko beheko solairuan aguazila, harrera eta administrazio sailak egongo dira. Bulego teknikoak, idazkaritza, alkatetza eta bilera gelak, berriz, beste bi solairuetan banatuko dira".

Baina, esan bezala, bigarren fasea egiteaz dago eta oraindik ere zehaztugabe eta diseinatu gabe dago. Baina beheko solai-



Igogailua martxan da. | M.A.

ruan harrera eta bulegoak ekartzea gura du Antzuolako Udalak. Goian, aldiz, bulego teknikoak eta alkatetza mantentzeko asmoa du Udalak. Guztia, baina, zehazteko dago oraindik.

Arrapala
'L' formako egurrezko arrapala, aldiz, uda hasi aurretik dago udaletxeko sarreran.

Natura, musika eta festa senidetzea sendotzeko

M.A. | ANTZUOLA
Urriaren lehen, zapatua, ospatuko da aurtengo Antzuola-Aihera eguna, Antzuolan. Hala, sentimenduz beteriko egun berezi horretarako egitaraua prest du Kultura sailak.

Egitaraua
Goizean, 10:30ean, ongietorria egingo zaie aihertarrei. Ondoren, 10:45ean, hamaiketakoaz gozatzeko aukera izango da. Indarrak hartu eta animatzen direnek ibilalditxoak egingo dute Antzuolako txokoak ezagutzeko asmoz, (11:45-13:00). Ibilaldi laua trenbidean barrena egingo da (adineko pertsonak autoz igoko

dituzte trenbideraino). Eguerdian trikipoteoak alaituko ditu herriko kaleak (13:15-14:15). Eta 14:30ean, herri bazkaria egingo dute plazan. (Txartelak salgai ohiko tokietan 15 euro). Bazkalostean, kantu-kafea (denak elkarrekin kantuan aritzeko talde batek gidatua), egingo da. Eguraldiak lagunduz gero, bolo-jokoaz eta haurrendako ur-parkeaz gozatzeko aukera izango da. Iluntzean, agurra egingo zaie aihertarrei.

Batzarra, astelehenean
Antolaketarako, irailaren 19an, bilerara joateko deia egin zaie herritarrei: 18:30ean, udaletxean.

Arrola Mendi taldeak Pirinioetara egingo du irteera iraileko azken aste bukaeran

Pirinioetako mendilerroa gertutik ezagutu nahi duten herriko mendizaleek aukera daukate Arrola Mendizale elkartearen eskutik. Izan ere, irailaren 24 eta 25eko asteburuan, Panticosa, Wallon eta Sallent de Gallegoko ibilbideak egiteko aukera izango dute. (Irteera irailaren 24an, goizeko bostetan). Interesa dutenek Arrolara jo: arrolamt@gmail.com.

Edurne Uribesalgo irakaslearen eskulan ikastaroetan izena emateko epea zabalik

Helduek zein umeek irailetik aurrera koadroak margotu, gauzak zaharberritu, egurra margotu, gauzak itxuraz aldatu... nahi dutena egiteko aukera izango dute Edurne Uribesalgoren eskulan ikastaroetan. Izena irailaren 23a baino lehen eman daiteke eta hasiera irailaren 28an emango zaio. Umeen taldea gehienez bederatzita lagunek osatuko dute. Izena emateko: 943 766 246.

Gesaltzako Añana bisitatze asmoz Landatxope elkarateak irteera antolatu du irailerako

Irteera hilaren 28an egingo da (irteera 08:45ean geltokitik). Goizean, Langraitz-Okan hamarretakoa; ondoren, Gesaltzako Añanan bisita gidatua eta bazkaria, Armentegi sagardotegian. Arratsaldean, berriz, Heraclio Fournier karta museora bisita egingo dute erretiratuek. Izena hilaren 19 eta 20an elkarateko bulegoan 16:00etatik 18:00etara. Prezioa 32 euro.

Oxel Apraiz | Antzuolako futbol jokalaria

"Eztala futbol zelaia nire jokorako egina dago; ondo ibiliko na'izela uste dut"

Antzuola futbol taldeak asteburuan hasiko du denboraldia, etxean: zapatuan, Eztalan, 16:30ean

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA
Oxel Apraiz musakolarrak (Arrasate 1976) futbola odolean darama. Aurrelariak, agur esan bazuen ere, ezin izan dio ezetzik esan Antzuolako futbol taldearen eskariari. Gogotsu eta ilusioz bueltatu da Antzuola mailaz igotzera. **Ezin futbola utzi. Agur esan zenuen orain pare bat urte, baina...**

Monoa hor geratzen da-eta... ezin utzi; kar, kar. **Baina ibilbidea bukatutzat eman zenuen UDArekin. Zer gertatu da?** Ni sei urtez Antzuolan bizi izan nintzen. Bertako lagunek beti esaten zidaten Antzuolan bukatu behar nuela nire futboleko ibilbidea, eta, badakizu, azkenean, konbentzitu egin naute.



Apraiz, UDAko kamisetaz. | GOIENA

Mondra taldean hasi zenuen zure ibilbidea. 15 urte egin nituen Mondran. Ondoren, Bergarara joan nintzen. Bizkaira salto ere egin nuen ostean: Lemoa, Barakaldo (2. B maila), Amurrio, Ondarroa, Gernika... Beasainen, Gipuzkoan, ere ibili nintzen.

Antzuola iaz jaitsi zen eta lehen erregional mailan dago orain. Ze asmo duzue? Denboraldi ona egitea da gure asmoa, eta mailaz igotzea. Baina helburu nagusia ondo pasatzea da. **Nolako taldea da Antzuola?** Talde gaztea da, ni denen aita

naiz; kar, kar. Hamar jubenil igo dira eta orain taldeko helduenak 28 urte inguru izango ditu. Aholkuak ere eman dizkiet; kar, kar. **Zure jokoa aldatu, moldatu egin duzu Antzuolan jokatzeko?** Antzuolako futbol zelaia nire jokorako egina dago. Gorputza asko erabiltzen dut eta Eztalako zelaia txikia da, niretzako egokia, eta uste dut ondo moldatuko naizela. Gero, ikusi egin behar denboraldia nola doan. **Lehen partidua UDArekin kontra.** Bai; ni lesionatuta nago (giharren gainkarga) eta lehen neurketan ezin izango dut jokatu. **Ondo konektatu duzu taldekideekin eta Igor Larrea eta Ander Arana entrenatzaileekin?** Bai, oso ondo moldatu gara eta gauza onak egiteko aukerak ditugula uste dut. Antzuolako jokalariek ondo jokatzen dute-eta futboleant.

Kiroldegiko kantxa alokatzeko ordutegiak

XABI GOROSTIDI | ARAMAIO

Kiroldegiko kantxaren denboraldiko egutegia antolatuta dago jada.

Kirol taldeen eta eskolaz kanpoko ekintzen ordutegiak zehaztu ondoren, hainbat egunetan hutsuneak geratu dira, eta horiek alokatzeko aukera izango da.

Astearteetan 20:30etik 21:30era, asteazkenetan 20:00etatik 21:30era eta ostegun eta egubakoitzetan 20:00etatik 21:00etara.

Libre geratu diren tarte horietan kantxa alokatzeko interesa daukatenek eskaera egin beharko dute udaletxean edo itxasokultura@cuadrillazuia.com e-posta idatziz. Eskae-
rak egiteko epea irailaren 28an amaituko da.

Yoga ikastaroa

Aurtengo yoga ikastaroa urriaren 2an hasiko da. Saioak egingo dituzte, igandero, kultura etxeko aretoan, eta astean zehar ere egun bat zehaztea da asmoa.

Interesdunek 626 00 81 51 telefonora deitu dezakete, edo lehen saiora agertu.



San Martin eskola ikasturte berriko lehen egunean. | XABI GOROSTIDI

"Proiektu gutxiago edukitzeagatik daude iaz baino irakasle gutxiago"

X.G. | ARAMAIO

Aurreko asteko alean, Aramaio-ko eskolak ikasturte berri hone-
tarako izan duen baliabideen beherakadari buruzko albistearen harira, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko arduradunek euren azalpenak eman dituzte.

Azalpena

"Zentro bakoitzari dagokion irakasle kopurua ezartzeko prozesua oso konplexua da. Faktore askok eragiten dute baina ikasle kopuruak eta eskolak eskuartean dituen proiektuek garrantzi handia dute. Kasu honetan, iaz baino proiektu gutxiago izateak eragin du Aramaio-ko San Martin eskolak aurtun irakasle eta gela bat gutxiago edukitzea", adierazi dute Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko ordezkariak. "Aramaio-ko

eskolari irizpide horiek zehatz eta zorrotz aplikatuz gero, irakasle bat gutxiago eduki beharko luke; beraz, dagokiona baino irakasle bat gehiago dute", gaineratu dute.

"Horretaz gain, San Martin eskolak irakasle bakoitzeko 8,5 ikasleko ratioa dauka. Zentzu horretan, EAEko ratio baxuena-
takoa da; izan ere, Gasteizen, adibidez, 20 edo 21 ikasle dituzte".

Proiektu bat gutxiago

San Martin eskolatik adierazi dutenez, aurtun iaz baino proiektu bat gutxiago dute.

Dena dela, gai hau alde batera utzi eta ikasturte berrian zentratzeko gogoz daudela adierazi dute eta kalitatezko hezkuntza ematen jarraitzeko konpromisoa berretsi dute.

Alboka eta beste zenbait instrumentu ikasteko aukera Fede de Dios irakaslearen gidaritzapean

Zabalik da alboka ikastaroan izena emateko epea. Urrian hasi eta ekainera arte iraungo du ikastaroak eta Fede de Dios izango da ikastaroa gidatuko duena. Albokaz gain beste hainbat instrumentu ikasteko aukera izango da, hala nola koilarak, txaramela, danborra edo dultzaina. Interesa daukatenek lehenbailehen deituko beharko dute 688 69 57 63 telefono zenbakira.

Emakumeen aurkako biolentziaren diagnostia egingo du Gorbeialdeko Kuadrillak

Gaur egungo gizartean gainditzeko dagoen arazo honen aurrean, Gorbeialdeko Kuadrillak emakumeek pairatzen duten biolentziaren diagnostia egitea erabaki du. Sortzen Consultoria SL enpresaren laguntza izango du eta urte amaierarako bukatuko dute. Eskualdeko udalerrietan gai honen errealitatea aztertuko da, ondoren herrietako ordezkariekin neurriak aztertzeko.

Nabigatzen eta posta elektronikoa erabiltzen ikasteko doako ikastaroa astelehenetik aurrera

Internet erabiltzeko oinarritzko ikasgaiak jaso nahi dituztenentzat ikastaroa antolatu du Aramaio-ko Udalak. Saioak KZgunean izango dira irailaren 19tik 30era, 09:00etatik 11:00etara.

20 orduko ikastaroak plaza mugatuak izango ditu eta izena eman nahi dutenek udaletxean, kultura etxean edo itxasokultura@cuadrillazuia.com helbidean egin dezakete.

Gasteizko Twin Room bikotearen vintage musikak hartuko du gaur Sastiñako kontzertuen lekukoa

Sonia Vera eta Josu Jungitu dira Twin Room taldea osatzen duten musikariak. Veraren ahots goxoak ederki bat egiten du Jungituren piano melodiekin, eta abesti klasikoak jotzen dituzte. Frank Sinatraren *Somewhere beyond the sea* edo Breakfast at Tiffany's-en *Moon River* abestiak jo izan dituzte, baina ziur sorpresaren bat izango dutela Aramaio-ko ikusleentzat.

Andramaixak giro eta umore onean igaro dituzte gatzagarrek

Joannes Mendizabal kultura zinegotziak jaien balorazio positiboa egin du; gaineratu du ekintza guztiak burutu ahal izan dituztela, eguraldia lagun

ENEKO AZURMENDI | LEINTZ GATZAGA

Guztia espero bezala irten da aurtun andramaixetan. "Oso giro onean igaro ditugu jaiak. Gainera, eguraldi ona egin digu egun guztietan eta antolatuta genituen ekintza guztiak aurrera eraman ahal izan ditugu", azaldu du Joannes Mendizabal kultura zinegotziak.

Aurtun, gainera, jaiegun bat gehiago izan dute, Arantzazuko Amaren Eguna jai izan da eta Gipuzkoa osoan. "Egubakoitza jaieguna izanik, herriko jaiak egun bat lehenago hastea erabaki genuen", adierazi du Mendizabalek.

Berrikuntzak

Bi berrikuntza nagusi izan dira aurtengo andramaixetan: alde batetik, kantu-bazkaria; eta bestetik, kintoen eguna.

Kantu-bazkariari dagokionez, "giro ona" egon zela nabarmendu du zinegotziak, bai arroza prestatzeko orduan, baita jateko garaian ere. Arrozaren bueltan elkartu ziren herriko kuadrillak, lau guztira, bazkaria gertatzeko,

eta ondoren, Sei Pistols taldeak giroa irten zuten. Datorren urtera begira errepikatzeko modukoa izan daitekeela adierazi du Mendizabalek, izan duen arrakasta ikusita.

Bestalde, Kintoen Eguna eta haien arteko jolasak ere izan ziren, lehenengoz. "Kintoak baino gehiago, hamarkada berean jaiotakoan artean osatu genituen taldeak eta oso giro berezia sortu zen. Herriko belaunaldi ezberdinetako jendea batu ginen, denok elkarrekin, eta oso ondo pasatu genuen", dio Mendizabalek.

Jarrera parte-hartzailea

Parte-hartzeari erreparatuta, herriak izan duen jarrera zoriontzekoa dela azpimarratu du zinegotziak. "Jende asko dago parte hartzen duena eta laguntzeko prest dagoena, bai ekintzak pentsatu eta antolatzeko orduan eta baita hauek egiteko orduan ere", dio.

Bizikleta martxa

Dagoeneko klasikoa den mendi bizikleta martxa ere espero

moduan joan zen. 73 helduk eta 33 umek hartu zuten parte. Aurtun ibilbidea aldatu egin dute –28 kilometroko ibilbidea– eta ziklistek "eskertu" egin dute hori, Alberto Altube antolatzailearen esanetan. Haurrek, berriz, Dorletara joan-etorria egin zuten.

Herri kirolak

Inazio Perurena harri-jasotzaileak eta Fausto Mugerza aizkolariak ohi baino esfortzu handiagoa egin behar izan zuten, beroaren ondorioz. Hala ere, maila eman zuten eta hurbildutako jendea gustura gelditu zen.

Haurrak ere, gustura

Herriko hainbat eraikin eskalatu zituzten gazteek kale blokean eta ikusmira handia sortu zen; apar festa aukera ezin hobea izan zen –bero handia egin zuen–, eta zirkuko akrobaziak, antzerkiak eta txotxongiloen istorioak ere adi-adi jarraitu zituzten herriko umeei.

Leintz Gatzagako jaien gaineko argazki eta informazio gehiago Goiena.eus webgunean dago.



Berrikuntzetako bat kintoen arteko jolasak izan ziren. | IMANOL SORIANO



Kale blokak ikusmin handia sortu zuten. | IMANOL SORIANO

Dozena bat postu izango ditu biharko baserritarren azokak

Domekarako, berriz, Vespa eta Lambretta motorren topaketa iragarri dute herrian

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA
Baserritarrekin batera herriko artisauak izango dira protagonista biharko azoka berezian, 10:30etik aurrera. Udalak dihar-du antolaketa lanetan, eta doze-na bat lagunek baieztatu dute parte-hartzea. Iragarrita daude baita ere Kimubat enpresaren barazki erakusketa, eta Igor Her-ceren burdin-lantze erakustaldia.

Intxortako igoera
Kirol hitzordua ere izango du biharko egunak 11:00etan joka-tuko baita Intxortako Igoera. Eleder Lozanok du orain arteko markarik onena: 16'14". Aurt-en ez da lasterketan izango.
Izenematea 10:20an zabalduko dute, eta hiru kategorია izango dira: 16 urtetik gorakoena, 12 eta 16 urte artekoena, eta 12 urtera artekoena. Azken horiek Salba-dorrera egingo dute joan-etorria.



Herriko ekoizlea iazko azokan produktuak saltzen. | IMANOL SORIANO

Patata tortilla lehiaketa
Arratsalderako Sagardo Eguna eta patata tortilla lehiaketa anto-latu dituzte gaztetxetik. Kuadri-llek 18:00etan izango dute suka-dean hasteko ordua. Sari bana-keta 19:30ean izango da.

Vespa eta Lambretta motorrak
Domekan, berriz, 40 bat motor espero dituzte Elgetan, guztiak Vespak eta Lambrettak. Eguer-dira arte herriko plazan izango dira ikusgai. 12:15ean ibilbide bat egitera irtengo dira taldean.

Kutxabank entitatearekin duen zorra birfinantzatuko du Udalak

L.Z. | ELGETA
Bi kalte-ordaini aurre egiteko bederatzi urteko epean milioi bat eta bostehun bat mila euro-ko ordainketa egin beharko du Elgetako Udalak. Horri gehitu behar zaio sei mailegutan bana-tuta Kutxabank finantza entita-tearekin duen 564.841 euroko zorra. Udal gobernuaren iritziz Udalak nekez egin diezaieke aurre ordainketa guztiei, eta proposatu du Kutxabank enti-tatearekin dagoen udal zorra berriz finantzatzea.
Udalbatzak martitzenean egindako ez ohiko osoko bilku-ran onartu zuen erabakia, aho

batez. Sei maileguak bateratu eta ordainketa epea hamalau urtera zabalduko dute, euribo-rra + %1,41 interes mailarekin. "Kalte-ordainak ordaindu behar diren urteetan maileguaren amortizazioa txikiagoa izango da, eta handitzen joango da behin kalte-ordainen ordainketa amai-tu ostean", azaldu du Iratitz Laz-kano alkateak. "Halako finan-tzazio berririk egingo ez bagenu (...) urtero ordaindu beharreko kopuruak izango ziren 342.000, 335.000, 334.000 eurokoak... Diru kopuru batzuk udaletxeak bere gain hartu ezin dituenak".Opo-sizioak babestu egin du opera-

zioa, baina kezka agertu du: "Ze malgutasun egongo da gastue-tarako ordainketa epealdiaren amaierako urteetan?", galdetu du Gu Geu Elgeta plataformako Eduardo Zubiaurrek. "Finan-tzazio proposamen berriak ez du esan nahi gastuetarako diru-rik izango dugunik, kalte-ordai-nak ordaintzeko nahikoa izango dugula baizik", azaldu du alka-teak. "Urterik gogorrenak 2019ra artekoak izango dira, agintaldi hau. 2020tik aurrera amortizatu beharreko kopuruak normali-zatuko dira, urtean 170.000 euro-tik jaitsiz".
Finantzazio operazioarekin batera Udalak 110.000 euroko kreditu kontua kontratatuko du Kutxabank entitatearekin sor daitezkeen altxortegi arazoei aurre egin ahal izateko.

Euskaltzaleen Egunerako bazkaria, 'Euskararen Soka', eta Egan taldearen azken erromeria herrian

Goibekok Euskaltzaleen Eguna antolatu du hilaren 24rako. Egurdiko *Euskararen Soka* ekitaldian parte hartzera deitu dituzte herritarrak, eta hasita daude soka zatiak banatzen. Baz-karirako txartelak ere salgai daude: helduendako txartelak Julianen kioskoan daude hamabost euroko prezioan, eta umeen-dako txartelak Bolatoki tabernan zazpi euroan.

Proposamen bakarra jaso du Udalak Espaloia kafe antzokiaren kudeaketarako, eta aztertzen ari da

Astelehenean, hilak 12, amaitu zen kafe antzokiaren kudeaketa-rako proposamenak aurkezteko epea, eta hautagaitza bakarra aurkeztu da. Eskaera formalizatzeko hamar eguneko epea zabal-du du orain Udalak. Falta den dokumentazioa aurkezteko eska-tu diote hautagaiari. Udal ordezkariak jakinarazi dute proposa-mena aztertzen ari direla.



LUIS MARI ARANTZETA

Burgos aldean zoragarri!

KOMUNITATEA GOIENA | **XALBADORPE ELKARTEA** | ELGETA
"Ondo ibili ginen, martitzenean, Burgos aldean. Taldetxoa joan ginen, eta egun polita pasa genuen. Gogoratu podologo zerbitzua dugula egunean. Txanda hartzeko: 943 76 80 77 (Nati) .

OHARRAK

IPUINAK LIBURUTEGIAN

Gaur, 16:40ean, 5 urteko gelatik aurrerako neska-mutikoendako saioa, eta 17:25ean 2 urteko gela-tik aurrerakoendako.

ODOL-ATERATZEAK

Sendagile taldea udaletxean izango da martitzenean, hilak 20, 18:00etatik 20:00etara.

EAJ, BOTOA POSTAZ

Interesatuek Maria Jesus Lete-rekin edo Begoña Ardanzarekin jarri behar dute harremanetan.


E-LIBURUTEGIA TAILERRA

Astelehenean, 18:30ean, e-Libu-rutegiari buruzko tailer irekia liburutegian. Informazio oro-korra eta erabilera.

Goiena Klubeko iraileko zozketa

Goiena Klubeko bazkideok irabaz ditzakezuen sariak hauek dira. Hartu parte!

Telebista - 32"
Parte hartzeko sariaren izena: Telebista



Liburu sorta
3 liburuko pack-a (Muskerraren bidea, Neronek tirako nizkin, Txerokiak denbora pasa)



Sarrerak
Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz



Otarrea
Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea



PARTE HARTZEKO:
E-postaz: kluba@goiena.eus
WhatsApp: KLUBA [Saria] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuotik sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

AUTOMOBILISMOA

Euskal Herriko txapelketa dago jokoan bihar, Aramaio 15. rallysprintean

Aingeru Castroren eta Enrique Barrenetxea-Arandoren artean zazpi puntuko aldea baino ez dago

XABIER URZELAI | ARAMAIO

Euskal Herriko Rallysprint Txapelketako zortzi lasterketa jokatuko ostean –azkena Azkoitia– sailkapena estu-estu dago bi piloturen artean, Aingeru Castroren (200 puntu) eta Enrique Barrenetxearen (193) artean zazpi puntuko aldea baino ez dago eta. Hala, bihar, zapatua, Aramaio rallysprintak egingo du epaile lana, eta ikusteko dago azken hiru lasterketetako bolada onari jarraituz –hiruretan irabazi du– Barrenetxearen Lancer EVO IXa Castroren M3a gainditzeko kapaz den, ala ez.

Bi auto horiek izango dira *potoloen* artean faboritoak, baina borroka horretan egongo dira, baita ere, Iban Tarsicio (Evo IX) edota Joseba Beola (EVO X) moduko pilotuak. Hala, lau horien artean lehia polita egongo da, bazterrean utzi barik, kategoria bakoitzean egongo diren lehia estuak, guztira 54 automobil batuko dira-eta irteera puntuan: "Kopuru polita da lasterketa ikusgarria egiteko eta, aldi berean, antolaketa arazorik ez izateko, proba



Iban Tarsicioen EVO autoa, iazko Aramaio rallysprintean. | IMANOL SORIANO

asko luzatzea ere ez delako kome-nigarria", adierazi du Inhar Amenabarrek.

Tartean, ibarreko lagunak

Aurreratu moduan, 54 automobil izango dira lasterketan, eta ibarreko hainbat lagun izango dira pilotu eta kopilotu lanetan: Mainer Usandizaga kopilotua (EVO V, Ander Sarrao eta Aritz Garmendia (M3), Iñigo Errasti eta Erik Fuente (Clio Sport), Frutos anaiak (Clio Sport), Emilio Huerta (Peugeot 306 GTI), Unzetabarrenetxea anaiak (BMW 325), Gorka Urrutia eta Unai Jurado (BMW 318), Mikel Beretxinaga eta Omer Gartzia (BMW E30), Oskar Sarasua eta Koldo Olartua (Astra GSi 16V), eta Alex Calzon eta Jon Etxeberria (Saxo VTS).

Lasterketari dagokionez ez dago aparteko nobedaderik, ibilbidea azken urteotako izango da, Irubiretan hasi eta Andramariko bidegurutzean amaituko dute (7,8 kilometro txanda bakoitzeko, guztira 23,4 kilometro) eta pilotuak 15:00etan hasiko dira lanean.

TXIRRINDULARITZA



Tropela Bergaran. | IMANOL SORIANO

Amateur mailan, 29. Oñatiko proba zapatuan

X.U. | OÑATI

Amateur mailako ziklistek –Lehendakari Txapelketan– asteburuan amaituko dute denboraldia, zapatuan Oñatin eta domekan Zaldibian egingo dituzten lasterketekin. 29. Oñatiko Proba 10:30ean hasiko dute, Unibertsitate Etorbidean –helmuga ere bertan izango da, 13:30ak aldera– eta 115 kilometrotako lasterketan Untzillako eta Osintxuko gainak gainditu beharko dituzte. Azken kilometroak ere ez dira samurrak izango, Zuazola, Santipillau eta hilerritik itzulia eginda sartuko direlako Oñatira. Lasterketan hainbat debagoiendar izango dira lehian.

ARRASATEKO MUGIKORTASUN ASTEA 2016

"Mugikortasun adimentsua, ekonomia indartsua"

Irailaren 16tik 22ra

EGITARAUA

■ Irailak 17 Zapatua

- **BIRZIKLETA AZOKA** – Bigarren eskuko bizikleta azoka Mondragones kalean, azoka ondoan. 11:00–14:00 (*) Noiz eta nola batuko den materiala

• ERAKUSKETA

- MUGITU ZAITEZ BIZIKLETAK. Seber Altube plaza. 11:00-14:00. Paseoko bizikletak, tolesgarriak, eletrikoak

■ Irailak 18 Domeka

- **BIZIKLETA BIRA** Irteera: Seber Altube plaza 10:00

■ Irailaren 16tik 22ra

• MUGIKORTASUN ADIMENTSUA

Zure mugikortasun iraunkorra saritzen dugu. Sina ezazu konpromisoa eta lor itzazu sari bikainak.

Parte hartzeko baldintzak:

- Mugikortasun iraunkor baten aldeko konpromisoa sinatzea
- Arrasatearra izatea edo Arrasatetik/Arrasatera lanera edo beste edozein ekintzatarako joan-etorriak egitea
- Ibilbide hauek oinez, bizikletaz edo garraio publikoan egitea

Konpromisoa jasotzeko eta sinatuta entregatzeko: BAZen, Liburutegian, Kiroldegian, udal webgunean edo agenda21@arrasate.eus.

■ Irailaren 13tik 28ra

• ERAKUSKETA

- MUZIBAR-ARBOLAPETA-SAN FRANTZISKO: berrantolaketa proposamenak. Kulturete

(*) BIRZIKLETA azoka -

- Zer batuko da: Egoera onean dagoen edozein material. Edozelako bizikletak, mendikoak, paseokoak, errepidekoak, haurren bizikletak, trizikloak, kaskoak, belozimetroak, gupilak, eskularruak, maillotak... Materiala garbi eta egoera onean ekartzea eskatzen da. (Patinak eta patineteak ez dira jasoko)

- Noiz eta non batuko da materiala: Udal Azokan
Irailaren 10an, zapatua 11:00 – 13:00
Irailaren 13ean, martitzena, eta 15an, eguena 11:00 – 13:00 - 17:00 – 19:00

- Salneurria jabeak jarriko dio
- Saltzen ez den materiala eta saldutakoaren zenbatekoa jabeari itzuliko zaio irailaren 22an, eguena 17:00 - 19:00 Udal Azokan.



HIRI BUSA

- Irailaren 16tik 22ra, hiri busa DOAN.

** Adingabeek autobusa erabili ahal izango dute barrik nagusi batekin badoaz edo ohiko eskola bidaiek egiteko (aurreko urteetan sortutako arazoak gerta ez daitezela)**

BIZIKLETEN ERREGISTROA

Urritik aurrera

Arrasaten bizi bazara, zure bizikleta erregistratu dezakezu BAZen.

Udal erregistro bat sortuko da nahi duen herritarrak bere bizikleta erregistratu dezan. Honekin lortu nahi da informazio erabilgarria, lapurretak daudenean laguntzeko, galdutako bizikletak identifikatzeko...

Publikoak kirolariengan duen eragina aztergai

Mahai ingurua egingo dute, hilaren 21ean, Arrasateko Kultureteko aretoan

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

"Kirolari guztien lana eta jokaldiak txalotu. Emaizta ez da garrantzitsuen", "Errespetatu epaileen erabakiak eta bultzatu jokalariek ere erabaki horiek onar ditzaten", eta "Gogoan izan beti erakusten duzun jarrera eredu dela zure seme-alabendako". Horiek dira, besteak beste, harrobiko taldeen eta eskola kirolean diharduten ikusle zintzoaren dekalogoan zehazten diren puntuetako batzuk.

Seme-alabak animatzerakoan, zer nolako jarrera izaten dute gurasoek? Kirolariengan, izan etxeakoak edo profesionalak, zer nolako eragina du zaleen aldetik entzuten dituztenak?

Hori guztiori aitzakia hartuta, mahai-ingurua antolatu du Arrasateko Udaleko kirol zerbitzuak hilaren 21erako: Kultureteko areto nagusian, 18:30ean.

Kritikak eta laudorioak

Publikoaren eragina kirolariengan da mahai-inguruaren izenburua. Trek-Segafredo taldeko txirrindulari Markel Irizar, Añares Rioja ISB saskibaloitaldeko Intza Lizarazu, Oihana Kortazar mendiko lasterketarako korrikalaria eta Urdaibai traineruko entrenatzaile Jon Salsamendi izango dira parte-hartzaileak. "Kirolariek oso gustura jasotzen dituzten zaleen piropoak eta berba politak. Gauzak ondo egiten direnean, ez da arazorik egoten.

Baina, egoera okertzen denean datoz berba txarrak eta irainak. Horiek nola kudeatzen dituzten galdetuko diegu", esan du Jokin Etxebarriak.

Ikusleekin eta zaleekin izan dituzten esperientziak kontatuko dituzte Irizarrek, Lizarazuk, Kortazarrek eta Salsamendik.

Aitor Elduainen kazetaria izango da moderatzailea.

Arrasazoi

Badira hilabete batzuk Arrasateko Udaleko kirol zerbitzua *Arrasazoi* saioak egiten hasi zela. Elkartetako kideendako, kiroldegiko erabiltzaileendako, kirol monitoreendako eta kirolariendako ekintza ezberdinak antolatu izan dira hilean behin. Bada, hurrengo asteko mahai ingurua saio horietako bat izango da.



Intza Lizarazu. | GOIENA



Jon Salsamendi. | GOIENA



Oihana Kortazar. | GOIENA



Markel Irizar. | GOIENA

FUTBOLA

Bergarak eta Aretxabaletak derbiarekin hasiko dute denboraldia

XABIER URZELAI | ARRASATE

Ohorezko erregionalean joan den astean hasi zuten liga, eta erreional preferentean asteburuan hasiko dute txapelketa. Indartsu, gainera, Bergarak eta Aretxabaletako bigarren taldeak derbia jokatu dute eta domekan (16:45, Agorrosin). Kategoria berean,

Mondrako bigarren taldeak Ikasberri izango du aurrean (Domeka, 16:30, Azpeitia).

Ohorezko erregionala

Maila bat gorago, Mondrak eta UDAk etxean jokatu dute. Joan den astean biak hasi ziren ondo, etxetik kanpora irabaziz, eta etxean

beste hiru puntu batu gura dituzte. Hala, Mondrak Ordiziaren bisita izango du zapatuan (16:30, Moja-tegi), eta UDAk Elgoibar hartuko du domekan (16:30, Ibarra). Aloña Mendik, berriz, Anaitasunaren kontra jokatu du zapatuan (Azkoitia, 17:30).

Lehen erregionalean ere liga hasiko dute; Antzuolak eta Arizmendik ere derbia izango dute bihar (16:30, Estala), eta Soraluzen jokatu du Aloña Mendiko bigarren taldeak (17:30).

MENDI BIZIKLETA



Aurten, Agorrosinen beharrean, Labegarietan izango da irteera. | GOIENA

Palmerakuen laugarren martxa etzi, Bergarako bide berrietatik

XU. | BERGARA

Azken urteotan egin duten moduan, domekako martxarako (09:00, Labegarietan) Palmerakuak taldeko lagunek mimoz prestatu dute ibilbidea, bergararrak ez direnek gutxiago ezagutzen dituzten lekuetatik igarota: "Landarraitz, Asalditxa eta Turkarriko paraje ederrak zeharkatuko ditugu", diote antolatzaileek, zera gaineratuta: "Badira aldapa gogor batzuk pedalak astindu ahal izateko, zati azkarrak, bidezidor politak, hainbat jaitsiera interesgarri eta paisaia zoragarriak", adierazi dute antolatzaileek.

Horrenbestez, martxa erakargarria izan dadin osagai

guztiak izango ditu. Ibilbide luzeak 35 kilometro izango ditu, eta 1.500 metroko desnibel positiboa. "Baina, gogorregia iruditzen zaionarendako egongo da aukera bidea laburtu ahal izateko".

Leire Martini laguntzeko

Palmerakuak taldeko lagunek martxan batzen den diru kopurutik zati bat –izenemate bakoitzako euro bat– Leire Martin Pinedari laguntzeko erabiliko dute, bizkarrezurreko atrofia muskularra duen bergararrari.

Izenematea aurrez egin daiteke, *kirolprobak.com* atarian (10 euro), eta domekan bertan apur bat garestiagoa izango da.

MENDIA

Mendizale kuadrila galanta batuko da Oñatiko mendi martxan

Arrakasta galanta izan du Oñatiko 2. Mendi Martxak. Pentsa, aurrez dagoeneko 500 lagunek baino gehiagok eman du izena, eta bihar martxa hasi aurretik ere egongo da horretarako aukera, plazan bertan martxa hasi aurretik (07:30ean abiatuko dira). Antolatzaileek ibilbidea aldatzea erabaki dute, urtero berdina ez egitearren, eta bihar bitontor igoko dituzte: Burgamendi eta Elgeamendi. Ibilbide motzak 27 kilometro izango ditu eta luzeak, berriz, 37,5 kilometro. Izenemate bakoitzeko euro bat Hotz Oñati taldearendako izango da.

MENDI LASTERKETA

Axari trail irabazita, Oihana Kortazar Euskal Herriko txapelduna da

Joan den asteburuan lortu zuen Oihana Kortazarrek Euskal Herriko Trail Txapelketa irabaztea, Axari Trail izeneko lasterketan lehenengoa helmugaratu ostean (2.21.21). Txapela janzteko Kortazarrek lehia polita izan zuen Maria Zorroza mendi lasterkariarekin, eta Virginia Perez hirugarren sailkatu zen. Gizonezkoetan, berriz, Urretxuko Aritz Egeak ondo irabazi zuen (1.59.33) baina minutu bateko aldeagatik ezin izan zuen iaz berak ezarritako errekorra ondu. Ander Iñarra izan zen bigarrena, eta Imanol Goñi hirugarrena.



CROSSOVER-RAK DAUDE ETA CROSSOVER-RA DAGO

NISSAN QASHQAI N-CONNECTA 190 €/HILEAN*

36 kuota (190€ / hilean) | Sarrera: 5.999,68 € | Azken kuota: 10.967 € | UTB: % 6,11

ARABAUTO

Gamarrako Atea, 46 A-B, 01013, Vitoria-Gasteiz, Araba - Tel. 945 262 501 - <http://red.nissan.es/arabauto>

Kontsumo mistoa: 5,8 l/100km. CO2 isurpenak: 133 g/km

*Eskuzko Nissan Qashqai N-CONNECTA 1.2 DIG-Trako gomendatutako PSPa penintsulan eta Balear uharteetan: 21175 €. FAR garraioa, Nissan Assistance, sustapen-deskontua eta BEZa biltzen ditu. Aplikaturako zergek erosketako unera arte aldatetako izango balituzte, prezioa indarrean dauden zerge-tasa berrien aplikazioaren arabera moldatuko da. Finantzatu beharrekoa 15.383,07 €-koa izango da 37 hilabetetan (NIBSaren sustapen-laguntza biltzen du). Sarrera: 5.999,68 €. 190,00 €-ko 36 kuota. Irteerak-komisioa: 0,0 €. ITN: % 5,95. UTB: % 6,11. Azken kuota 10.967,00 €-koa. Epeakako prezioa, gutzira: 23.806,68 €. Zordundutako zenbatekoa, gutzira: 17807,00 €. Finantzatu beharreko gutxieneko zenbatekoa: 6.000 €. 24 hilabeteko gutxieneko iraupena. Kuotak Gidabaimena kentzearen Asegurua biltzen du: 20775 €. Eskaintza 2016/09/30era arte izango da baliozkoa Magic Plan 3D RCJ Banque SArekin, Espainiako sukurtsalarekin, finantzatuta. Ez da beste kanpainekin bateragarria izango. Informazio gehiagorako, joan gertuen duzun Nissan kontzesionariora. Baliteke bistaratutako irudia ez etortzea bat eskaintako ibilgailuarekin.



KILOMETROAK 2016

KULTUR HAMABOSTALDIA

- **'KILOMETROAK' BIDEA ERAKUSKETA**

Gipuzkoako Ikastolen jaiaren 40. edizioa da aurtengoa. Hala, 40 edizioetako irudiak, leloak, argazkiak, abesti zatiak... erakutsiko dira Bergaran. Aroztegi aretoan, irailaren 19tik urriaren 2ra bitartean.

- **'WORLD KAFE' SAIOA**

Kilometroak bidea hausnarketa prozesuaren gainean. Irailaren 17an, larunbata, Bergarako Aranzadi Ikastolan, 09:30etik aurrera. Kilometroak jaia berrasmatzeko prozesua.

- **'ESKOLA KIROL HEZITZAILEA' MAHAI-INGURUA**

Irailaren 19an. Eskola kirola ikuspuntu kritiko eta hezitzaile batetik aztertuko da. Aranzadi Ikastolan, 19:00etan.

- **'INKLUSIOAZ FORMATU TXIKIAN' ANTZEZLANAREN ESTREINALDIA**

Atea Teatro konpainiaren eskutik, irailaren 20an, 19:00etan hasita, Zabalotegi aretoan.

- **'GARDEN'**

Alos Quartet hari laukotea, Eñaut Elorrieta (Ken Zazpi), Oreka TX eta Aukeran dantza konpainia. Irailaren 24an, Bergarako Udal Pilotalekuan. Sarrerak salgai: www.pikupe.com



GARDEN

ALOS QUARTET

EÑAUT ELORRIETA + OREKA TX + AUKERAN DANTZA KONPAINIA

Irailaren 24an, 22:30ean Bergarako Udal Pilotalekuan

Sarrerak salgai 15€, www.pikupe.com edo Pikupe Produksioak-ek Artekalen duen egoitzan



KULTURA



Alos Quartet laukotea eta Oreka Tx taldeko kideak Aukeran dantza taldekoekin, *Garden* ikuskizunaren une batean. | ALOS QUARTET

Alos Quarteten musikaren gainean demaseko dantzak

- 'Garden' ikusteko sarrerak 15 eurotan, *Pikupe.com* atarian eta bulegoan
- Hari-laukotearekin, Eñaut Elorrieta, Oreka TX eta Aukeran izango dira

A. ARANBURUZABALA | BERGARA

Hiru aste geratzen dira Kilometroak 2016 jairako, eta azken txanparako Kultur hamabostaldia antolatu du Aranzadi ikastolak.

Hitzaldiak, erakusketak, antzerkia, musika eta dantza ikuskizuna, mahai-ingurua... askotariko ekitaldiak izango dira ikastolan eta herriko beste areto batzuetan. Esanguratsuena *Garden* ikuskizuna da. Alos Quartet taldearen izen bereko diskoan oinarritutakoa. Irailaren 24an, 22:30ean, Udal pilotalekuan eskainiko dute.

'Garden': musika eta dantza

Alos Quartet hari-laukote tolosarrak, Eñaut Elorrieta Ken Zapi taldeko konpositore eta abeslariak, Oreka TX txalaparta bikoiteak eta perkusionista batek sortzen dute ikuskizuneko musika. *Garden* diskoan (2015) dauden kantuak dira gehienak, baina badaude beste hainbat ere. Horien gainean dantzatzen dute Edu Muruamendiaraz Bergarako koreografoaren dantzariak. "*Geltokia* gure ikuskizunean agertzen diren hainbat koreografia bildu ditugu ikuskizun horretan".

Hirutan eskaini dute jendaurrean: Bilboko Campos Eliseos antzokian; Donostiako Victoria Eugenia eta orain dela hilabete,



Juan Gorritiren mural bat. | A. T.

Erpeletan. "Harrera ikaragarria izan dugu hiruretan; baina, egia esan, sekulako ilusioa egiten dit berriz ere nire herrian dantzan egiteak eta Kilometroak jaian parte hartzeak. Ikastola horretan hasi nintzen dantza ikasten eta ohore bat izango da dantzeekin itzultzea. Adin guztietarako proposa da Garden", gaineratu du Muruamendiarazek.

Irailaren 24ko jaialdian sorpresak izango direla aurreratu dute; horien artean, Aranzadi ikastolako abesbatzaren emanaldia. Sarrerak 15 eurotan eskura

EGITARAUA

World kafe saioa: *Kilometroak bidea* izeneko hausnarketa prozesuaren gainean. Irailaren 17an, zapatua, 09:30ean, Aranzadi ikastolan.

Kilometroak bidea erakusketa: Prozesua ilustratzen duen bilduma. Irailaren 19tik urriaren 2ra, Aroztegin.

Aralar Itsasmira erakusketa: Juan Gorriti artistaren lanak. Irailaren 19tik irailaren 30era, Aranzadi ikastolan.

Mahai-ingurua: *Eskola Kirol Hezitzailea* izenburupean. Irailak 19, 19:00etan, Aranzadi ikastolan.

Antzerkia: Atea Teatro konpainiaren eskutik, *Inklusioaz formatu txikian* lana. Irailaren 20an, 19:00etan, Zabalotegi aretoan.

Garden: Musika eta dantza bateratzen dituen ikuskizuna. Irailaren 24an, 22:30ean, Udal pilotalekuan.

daitezke Pikupe Produksioak-en bulegoan (Artekale 7) eta *Pikupe.com* atarian.

Juan Gorriti eta Atea Teatro

Hamabostaldia, baina, bihar hasiko da ikastolan egingo duten *Kilometroak bidea* solasaldiarekin (Ikus 21. orria). Gaiarekin lotutako erakusketa, berriz, martitzenean zabalduko dute Aroztegin.

Era berean, sortzaile gehiagoren lanak gertutik ezagutzeko aukera izango da datozen egunotan; izan ere, astelehenetik aurrera Juan Gorriti nafarraren *Aralar itsasmira* erakusketa izango da ikastolako behe eta lehen solairuetan. Gorritiren gertuko natur guneko hainbat elementurekin egin edo lotutako, eskulturak, muralak, liburuak eta bestelakoak batzen ditu bildumak.

Antzerkiaz gozatu eta ikasteko aukera ere izango da. Martitzenean, Zabalotegi aretoan, Atea Teatro konpainiak *Inklusioaz formatu txikian* izeneko eskainiko du. 12 urtetik gorakoentzako proposatzen duten lanak hausnarketarako bidea ematen du. Iazko Kilometroak 2015 jaian estreinatu zuten *Jendartea bidai* antzezlanaren jarraipena da.

ARRASATEKO BASERRIKO PRODUKTUEN AZOKA

09:00-14:00 Seber Altube Plaza

HILEKO 3. ZAPATUA

Irailak 17

2016 | Urriak 15 / Azaroak 19

Antolatzailea: **ARRASATEKO UDALA**
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
■ Enplegu eta Garapen Ekonomikoen Salla

Laguntzailea: **ibal-arte**
Arrasateko baserriek eta merkatariak konfiantza, hurbiltasuna eta kalitatea eskaintzen dizkizute.



Xabier Zabala | Konpositorea eta musikaria

"Asko zor diot, duda barik, 'Maite zaitut' kantuari"

Askotariko musikari ezagunen kantuen eta bestelako egitasmoen egilea da Zabala; eroso eta gustura dago etengabe gauza berriak ikasten dituelako

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

Musikagintzan eskarmentu handia duten Asier Gozategik eta Xabier Zabalak euren bizipenak kontatuko dituzte gaur, egubakoitza, Kultureteko areto nagusian, 19:00etan. Arrasateko Trikiti Eskolaren eskutik datoz.

Zure izena sarritan ezkatuta gertatzen den arren, zure izana musikari askoren lanean aurki daiteke.

Gure lana hori izaten da; bigarren mailan geratzen garen musikariak gara. Lan oso ezberdinak egitea tokatzen zaigu, baina ni oso eroso sentitzen naiz posizio horretan. Egunero ikasten ari naizen sentsazioa dut.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak aspaldiko lagunak dituzu.

2002. urtean hasi ginen elkarrekin lanean eta dagoeneko hamasei bat disko argitaratu ditugu.

Hain zuzen ere, Garate estudioan topatu zaitugu, pailazoaren azkeneko lana grabatzen. Zelakoa da?

Aurtengoa ere disko bikoitza da: ikuskizunera bideratutakoa da

bat eta bestea, berriz, oraingoan omentzen dugun pertsonaiaren ingurukoa da. Lehenengorako konposizio guztiak nik egin ditut eta bestean, berriz, kantuen konponketak. Esango nuke izan behar duen formula mantentzen duela azkeneko lan honek ere; disko alaiak eta biziak egiten saiatzen naiz urtero.

Zein da zure irizpidea haurrentzako edo helduentzako kantuek egiterakoan?

Ez dut desberdintasunik egiten, normalean; norentzako den baina zertarako den begiratzen dut gehiago, bereziki, zuzenekoetarako direnean. Sarritan joaten naiz pailazoak ikustera, asko laguntzen didalako hurrengo lanetarako. Pailazoendako egiten ditudan diskoak produktu familiar bat bezala planteatzen ditut; abiapuntua umea den arren, denek gustuko diskoak egiten saiatzen gara. Era berean, kantuek pertsonaiekin enpatia izaten ahalegintzen naiz.

Konpositorea, musikaria... nola definitu beharko genuke Xabier?

Haurra nintzela musika asko entzuten nuen; Elvis, bereziki. Nire burua definitzea zaila egiten zait, musikan murgildu izan naiz-eta beti; eta konpositoreari esanahi sakonegia hartzen diot. **Kantu asko egin dituzu; horien artean, Maite zaitut ezaguna.**

Asko zor diot, duda barik, kantu horri. Familia bereko hiru belau-naldi kantua partekatzen ikustea, guretzako, hori da saririk onena.

Enkarguz egiten duzu beti lan?

Gehienetan, bai; batzuetan, konposizioa bakarrik izaten da; beste batzuetan, grabaketa egin eta diskoa sortzea; soinu bandak...

"Norentzako den baino gehiago, zertarako den begiratzen dut nik"



Xabier Zabala konpositorea Arrasaten izango da gaur | XZ

Gogoratzen duzu lehenengoa?

1997an Hik Hasi aldizkariaren-tzako egin nuen diskoa izan zen aurrenekoa.

Maixa Lizarribarrek esandakoa da: "Xabier Zabala dagoeneko ez dago plazetan, baina haren musika plaza guztietan dago". Zer diozu?

[Barre] Egia da! Soinu jotzailea naiz eta gaztetan Nafarroako herri txiki askotara joaten nintzen. Geroago, Basakabi taldearekin erromeriak... Gaur egun, Kaabestri Ensemblerekin egiten ditut zuzeneko batzuk. Gustatzen zait jendearen aurrean jotzea.

Urte asko daroazu musikagintzan; zelan ikusten duzu egungo egoera?

Uf... industria dago dagoen moduan, baina ez bakarrik musika alorrean. Negozioari baino gehiago, kreatibitateari begiratzen diot. Euskal Herrian izugarritzko sormena dago; musikari asko eta oso onak daude. Gertatzen dena da, baina, ez dela erraza musikagintzatik bakarrik bizi izatea. **Arrasatera Asier Gozategirekin zatoz; zer diozu hari buruz?**

Asier eta haren taldea sekulako erreferentzia izan dira niretzako. Miresten dudana pertsona da.

Besaulkian eroso eserita kalitatezko zinemaz gozatzeko garaia iritsi da

► 21:00etako galarekin hasiko da ofizialki 64. Donostiako Zinemaldia

► Debagoieneko protagonistak ez dira falta izango aurtengoan ere

MAITE TXINTXURRETA | DEBAGOIENA

Gaur hasiko da Donostiako Zinemaldiaren 64. edizioa, eta bederatzi egunez Gipuzkoako hiriburu zeluloidearen munduko hiri-buru bilakatuko da.

Egunotan izar askok bisitatuko dute Donostia. Tartean izango dira, esaterako: Sigourney Weaver, Ethan Hawke, Ewan McGregor, Monica Bellucci, Richard Gere, Gael García Bernal, Joseph Gordon-Levitt...

Sail ofizialaz gain, Perlak, Horizontes Latinos edota Culinary Cinema bezalako beste sail batzuk daude; aurtun 200 pelikula baino gehiago proiektatuko dituzte.

Jarraipena Goienan

Goienako euskarri desberdinetan jarraipen berezia egingo diote festivalari, Donostian dagoen Imanol Gallegoren eskutik.

Bestalde, Gallegok eta Antonio Zabala Goienako zinema kritikariak blog bana elikatuko dute egunotan. Goienako blogen komunitatean topa daitezke hauek: *Zinemaldirik Goienara* eta *Irudi magikoak zinematik*,



Dena prest daukate Donostian gaur hasiko den jaialdirako. | ARITZ DENDATEGI

Debagoieneko ordezkariak

21:00etan egingo dute Kursaaletan zinemaldiaren irekiera ekitaldi ofiziala. Mireia Gabilondo bergararra arituko da aurkezle lanean, Emma Suarezekin eta Cayetana Guillen-Cuervorekin batera.

Gabilondo ez da izango zinemaldian zeresana emango duen debagoiendar bakarra, ordea. *Kalebegiak* filma 12 film laburrez osatutako lana da, eta horietako

bat, *Estropada Eguna*, Asier Altunak eta Telmo Esnaiek zuzendu dute. "Paris je t'aime edo New York I Love you filmen estilokoa" dela dio Gallegok, baina, kasu honetan, istorio desberdinen arteko lotura "hiria" dela azaldu du.

Patxo Telleriak, bestalde, *Igelak* filma estreinatuko du. Etxe barik geratzen den familia baten istorioa kontatzen du, Gallegok "komedia denuntzia" bezala des-

kribatu duen estilora. Aktore moduan ikusi ahal izango dugu Maria Cruikshank oñatiarra. Beste oñatiar bat ere bai, kameron atzean: Aitor Mantxola argazki zuzendaria. Gose taldea ere entzun ahal izango dugu.

Ikusleendako gomendioak

"Arriskatzea" da Imanol Gallegok Zinemaldian film bat edo beste ikusteko asmoz dagoenari emango liokeen aholkua. "Snowden bezalako pelikulak gerora ere ikusi ahal izango ditugu hementxe zine aretoetan; nik 'arraragoen' alde egingo nuke". Dena den, zerbait desberdina ikusi nahi duenarentzat baina "gehiegi" arriskatu gabe, Perlak saila gomendatuko luke Gallegok.

Sarrerak erosteko orduan, garaiz ibiltzea garrantzitsua da, Goienako kolaboratzailearen esanetan. Aldez aurretik Internet bidez erostea da bere aholkua.

Aktore famatuak ikusi nahi dituenak Kursaaletako alfonbra gorrian, Maria Cristina hotelean edo Kursaaletako terrazako photocallean izango du aukera.

Kontuan izateko filmak

Oraingo edizio honetan ikusi beharreko hainbat film zerrendatu ditu Gallegok; hor da, esaterako, Ewan McGregorren debuta zuzendari moduan: *American Pastoral*. Baita ere Bayonaren *A monster calls*, aurtengo Donostia saria. Baita ere *El hombre de las mil caras*, *Arrival*, *A quiet fashion...*

Goi mailako bertsolariak Aretxabaletako Arkupen

M.T. | ARETXABALETA

Puntako bertsolariak batuko dira Aretxabaletako Arkupe aretoan gaur, egubakoitza, 19:00etan izango den saioan.

Urtero izaten da bertso saio bat garai honetan, San Migel jaietara begira giroa sortzeko, hain zuzen.

Gaurkoan taula gainean izango dira Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio Euskal Herriko txapeldunak, eta haiekin batera, Alaia Martin eta Aitor Mendiluze. Saroi Jaurregik egingo ditu gai jartzailer lanak. Hasiera batean Amets Arzallus etorriko zela iragarri bazuten ere, azkenean, ezin izango da Aretxabaletara etorri eta Mendiluze izango da bere partez.

Sarrerak

Eguazten arratsaldean hasi ziren sarrerak saltzen Arkupen, baina gaur bertan esku-ratzeko aukera ere izango da, saioa hasi baino ordu erdi lehenago irekiko dute-eta Arkupe aretoko leihatila. Sarrerek lau euroko prezioa izango dute.

Debagoieneko lau 'sorgin' Kepa Junkerarekin elkarlanean 'Maletak' ikuskizunari esker

Getxoko Nazioarteko Folk jaialdian aurkeztu du lan berria Sorginak taldeak

A.T. / M.A. | ARRASATE

Amets Ormaetxea, Irati Gutierrez eta Leire Etxezarreta arrasatearrrak eta Maddi Alberdi bergararra dira Kepa Junkearen Sorgiñak proiektua osatzen duten hamar kideetako lau. *Maletak* ikuskizuna Getxoko Nazioarteko Folk jaialdian aurkeztu berri dute.

Hiru denboraldi daramatza Amets Ormaetxeak Kepa Junkerarekin Sorgiñak taldean: "Kasualitatez suertatu zen, Iratik eta biok txapelketa batean topo egin genuen Junkerarekin eta hasierako harremana sortu genuen. Ondoren, Arrasateko Erraldioien eta Kilikien konpartsaren 25. urteurrenean berriro topo egin genuen. Pandero-jole baten beharra zutela-eta panderoa jotzeko aukera izan nuen bertan. Eta halaxe, Sorgiñak proiektuaren berri eman zidan eta taldea osatu guran zebilela azaldu zidan. Nik Irati eta Leire proposatu nituen".

Maddi Alberdi, aldiz, proiektuan sartu berri da eta bizitako esperientzia onaz jardun du: "Sekulako esperientzia izaten ari da; gauza asko ikasten ari naiz. Uda hasieran sartu nintzen tal-



Maddi Alberdi, Amets Ormaetxea, Leire Etxezarreta eta Irati Gutierrez Monterroneko parkean. | AMAIA TXINTXURRETA

dean. Junkerak babes bezala neska gehiago behar zituen taldea osatzeko eta Bergarako ezagun baten bidez sartu nintzen taldera. Gainera, Arrasateko neskak aurretik ere ezagutzen nituen".

"Guretzako, ohorea da Kepa Junkerarekin lan egitea. Galiziarra asko joan gara, baita Kataluniara ere. Eta aurtun, Washingtonen izan gara", gaineratu du Ormaetxeak. "Maleta trikitiaren maletarekin lotzen du Kepa Jun-

kerak. Metafora bat egiten du etxean dituen erdi apurtutako maletekin. *Maletak* abestian, gainera, penintsula osoko kopia ezberdinak jasotzen dira: Aragoikoak, Kataluniakoak, Galiziarakoak", dio Leire Etxezarretak.

'Maletak' diskoa

Getxoko jaialdian aurkeztu dute ofizialki Sorgiñak taldeko kideek *Maleta* diskoa. "Oso berezia izan da. Askotariko musikariek lagun-

dutako kontzertua izan da: saxofoia, musika-kaxa bat, biolina, klarineta... Eta gainera, Galiziako, Asturiasko eta Kantabriako neska batzuen laguntza izan dugu panderoa jotzeko eta koplekin kantuan egiteko", azaldu du Irati Gutierrezek.

"*Maletak* diskoa esperimenta talagoa eta abstraktuagoa da. Modernoagoa denez, agian mundura zabaltzeko errazagoa", argitu du Gutierrezek.

Aire libreko pintura lehiaketa, bihar Arantzazun

M.A. | OÑATI

Xabier Alvarez de Eulate (Arantzazuko Basilikako beirateen egilea) artistaren omenegiten den aire libreko pintura lehiaketaren laugarren edizioa egingo da zapatuan, hilaren 17an, Arantzazun.

Hala, artista omentzea helburu duen lehiaketan, helduek (16 urtetik gorakoak), gazteek (12 eta 16 urte bitartekoak) eta umeek (11 urte artekoak) parte hartu dezakete. Lehiakideek Arantzazuko Santutegiko edozein txoko, paisaia edo monumentu margotu ahal izango dute.

Izen-ematea Arantzazuko Gandiaga Topagunean egingo da 10:00etatik 12:00etara bitartean. Lanak 16:00etatik 17:00etara entregatu beharko dira leku berean eta sinadurarik gabe. Epaimahaia Iñigo Arregi eskultoreak, Xabier Egaña eta Juan Ayesta pintoreek eta Leire Fernadez Arte Ederretan doktoreak osatuko dute. Lan guztiak ikusgai izango dira irailaren 24tik urriaren 16ra bitartean Gandiagan (asteburuetan eta jaiegunetan 11:00-14:00).

UDAKO ARGAZKIEN XII. GOIENA LEHIAKETA

Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak eta irabazi sari bikainak!



Argazki guztiak fotoblog honetan: blogak.goiena.eus/argazkiak

IRAILAREN
18A AZKEN
EGUNA

Oinarriak*

- Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkez ditzake. Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:
 - Egilearen izen-abizenak eta herria.
 - Harremanetarako telefonoa.
 - Argazkia noliz eta non ateratakoa den.
 - Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.
- Argazkiak bidaltzeko epea: uztailaren 8tik irailaren 18ra arte (biak barne).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean, ondo erreproduzitzeko adinakoa bereizmenarekin).
- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.
- Irakurle/ikusleei aukera emango diegu argazki onenari botoa emateko blegean.

Bidali argazkiak eta datu GUZTIAK e-postaz:

argazkiak@goiena.eus helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Otalora Lizentziaduna 31, Arrasate

- Egoitzara ekartzekotan, gutun-azal batean sartuta, CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPG formatuan.
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Debagoienean jaio edo bizi den edonork parte hartu ahal izango du.
- 16 urtetik gorakoek parte hartu ahal izango dute.
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiak.
- Argazkiak izan daitezke koloretan zein zuri-beltzean.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 14an jakingo dugu, Goiena paperean.
- Argazkiek, gehienez, 5 MB izan beharko dute.
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero uztailaren erdialdetik aurrera *Puntuak* aldizkarian eta blogak.goiena.eus/argazkiak foto-blegean. Epaimahaia Goiena Komunikazio Taldeko kideek osatuko dute eta argazkiaren kalitatea, originaltasuna eta balio historikoa hartuko dituzte kontuan.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez badago, Goienak aukeraketa egingo du egokien iruditzen zaizkion irizpideen arabera.
- Jasotako argazkiak Goienako artxiboan gordeko dira, eta, aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adierazi egingo da.

Sariak

Epaimahaia aukeratzetik dituen 3 argazki onenen artean,



- Bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.
- Orioko Aisia hotelean, zirkuitu termala eta bazkaria edo afaria, Arrasate Bidaiak-en eskutik.
- Kindle liburu irakurgailua Arrasateko Eroski hipermerkatuaren eskutik.

Herritarren saria



Herritarrek aureratutako argazkirik onena munduko kafe ezberdinen otarra, Arrasateko Karibu dendaren eskutik.

ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

GURE AMETSA
JATETXEA



ARRASATE **BIDAIK**



EROSKI
ARRASATE

karibu
munduko zapoak
karibumundukosaporaak.com

ZORION AGURRAK



ARRASATE
Maddi Etxagibel Ruidiaz
Irailaren 22an, 10 urte.
Zorionak eta muxu handi bat, etxekoan partetik.



ESKORIATZA
Ender Martins Rojas
Irailaren 22an, urtebete.
Zorionak, txiki! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu handi bat, zure anaia Julenen eta lehengusu Iban, Aimar eta Zoeren partetik.



BERGARA
Ainhoa Larrañaga Azkoitia
Irailaren 22an, 42 urte.
Zorionak Ugarrixatik!



ARRASATE
Elene Ormaetxea Artola
Irailaren 22an, 8 urte.
Zorionak, bihotza! Asko gozatu zure eguna eta segi hain alai eta bizi. Patxo asko, familia osoaren partetik!



OÑATI
Ines Del Amo
Irailaren 19an, 34 urte.
Zorionak, amaxo! Muxu potolo asko, etxeko guztien eta, bereziki, Marinaren eta Carlaren partetik. Ondo pasatu!



OÑATI
Ainar Azkoitia
Irailaren 18an, 35 urte.
Zorionak, amaxo! Ez aldatu inoiz eta segi bizitzaz gozatu eta ingurukuori gozarazten! Mila muxu potolo, Julenen, Izarren eta aitatxoren partetik!



OÑATI
Ane Arregui Unamuno
Irailaren 18an, urtetxo bat. Zorionak, polit hori! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu handi bat, familiaren partetik.



OÑATI
Gari Palacin Errasti
Irailaren 18an, 2 urte.
Zorionak eta urte askotarako, Gari! Ondo pasatu zeure urtebetetze egunian! Mila muxu, danon partetik.



BERGARA
Izaro Loiola
Irailaren 18an, 2 urte.
Zorionak, Izaro! Dagoeneko 2 urte handi! Zorionak familia guztixaren partetik! Muxu potolo-potolo bat!



ARRASATE
Unax Aranzabal Vitoria
Irailaren 18an, 12 urte.
Zorionak, mutiko handi! Oso ondo pasatu urtebetetze egunean! Muxu handi bat, maite zaitugun guztien partetik.



ARRASATE
June Canales Diez
Irailaren 18an, 8 urte.
Zorionak, printzesa, zure zortzigarren urtebetetzean. Primeran pasatu eguna familia eta lagun artean. Infinito muxu eta besarkada, familia osoaren partetik!



ESKORIATZA
June Aguirre Gandarias
Irailaren 17an, 4 urte.
Zorionak, maitia! Oso ondo pasatu zure egunean. Muxu potolo-potolo, etxekoan partetik!



OTXANDIO
Eneko Berrio Garaitonandia
Irailaren 17an, 4 urte.
Zorionak, txapeldun! Otxandioko aita-amamak, Aramaioko amama Klara, tia Pakita eta, bereziki, Irati eta Markel.



BERGARA
Maialen Esteban Laskurain
Irailaren 17an, 3 urte.
Zorionak etxeko printzesarentzako amaxoren, aitatxoren, amamaren eta aitataren partetik. Mila muxu potolo!



ARRASATE
Malen Beitia Jara
Irailaren 17an, 6 urte.
Zorionak, printzesa! Egun zoragarria pasa dezazula. Izugarri maite zaitugu. Mila muxu, familiaren eta, bereziki, Unaxen partetik!



BERGARA
Aitor Fernandez Unamuno
Irailaren 17an, 8 urte. Zorionak, mutil handi! Muxu eta besarkada handi bat, etxeko guztien eta, bereziki, Marenen, Aioraren eta Liberen partetik.



BERGARA
Alex Mendiarez Paya
Irailaren 17an, 2 urte.
Zorionak, potxolo! Gure mutikotxuak bi urte! Ondo pasatu zure eguna eta muxu handi bat, zure familia osoaren eta, bereziki, Aitanaren partetik.



ARRASATE
Irati Rodriguez Sanzberro
Irailaren 17an, 8 urte.
Zorionak, printzesa! Aimarren, Ekainen eta etxeko guztien partetik. Ondo-ondo ospatu!



ARRASATE
Markel Agiriano Bermejo
Irailaren 17an, 8 urte.
Zorionak, Markel. Ederto ospatu zure eguna eta zortzi belarri tirakada zuretzat! Musuak guztien partetik. Bereziki, Asierrek eta Iratik.



OÑATI
Inge Esparza Castaños
Irailaren 16an, 7 urte.
Zorionak, Inge! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna.



ARRASATE
Haizea Arenaza Pagaldai
Irailaren 16an, 10 urte.
Zorionak, Haizea! Ondo pasatu eguna eta patxo handi bat, etxeko danon partetik.



BERGARA
Joane Lizarralde Larrañaga
Irailaren 16an, 12 urte.
Zorionak Ugarrixako familiaren partetik.



OÑATI
Iker eta Aimar Zabaleta
Irailaren 16an, Ikerrek 40 urte eta irailaren 20an, Aimarrek 4 urte. Zorionak, bikote, eta ondo-ondo pasatu. Patxo handi bana, familia osoaren partetik.



BERGARA
Oskitx Azkarateaskasua Alferez
Irailaren 16an, 9 urte.
Zorionak etxekoan partetik!



BERGARA
Oihan Larrañaga
Irailaren 15ean, 10 urte.
Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure eguna! Muxu handiak, familiako danen partetik!



OÑATI
Mireia Obeso Almeida
Irailaren 15ean, 6 urte.
Zorionak, pitxin! Zelako aguro handitu zaren! 6 urte! Ondo ospatu zure eguna! Patxo handi bat etxekoan partetik: aitatxo, amaxo, Anne eta Manex.



BERGARA
Beñat Larrañaga Liberal
Irailaren 15ean, 5 urte.
Zorionak, Ugarrixako familiaren partetik.



OÑATI
Noa Montero San Vicente
Irailaren 14an, 5 urte.
Zorionak, printzesa! Munduko laztanik handixena zuretzat! Pila bat disfrutatu zure egunian! Asko maitte zaitugu!



ARETXABALETA
Haizea Galan Perez
Irailaren 14an, 6 urte.
Zorionak, Haizea!



OÑATI
Markel Elorza San Miguel
Irailaren 14an, 10 urte.
Zorionak, Marke! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna familiarekin eta lagun guztiekin. Muxu handi bat, etxeko guztien partetik!



BERGARA
Haizea Iturrospe Arrondo
Irailaren 14an, 5 urte.
Zorionak, Haizea! Ondo-ondo ospatu zure eguna. Patxo handi bat, danon partetik.



OÑATI
